# Goienkaria

2008ko urriaren 31 > Egubakoitza > VIII. urtea > 351. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Aldikako azterketak egin beharko lizkigukete amiantoak kaltetu gaituenoi"

**Jesus Uzkudun**

CCOO > 09

**G2a** **Zabalotegi aretoaren inaugurazioa** > 43

**BERGARA** **Herriko lorategi historikoak babestea eskatu du talde batek** > 25

**ESKORIATZA** **Nagusien egoitzaren gaineko galdeketa egingo du Udalak** > 34

**ATLETISMOA** **Servimasa Soraluze-Bergara proban 300 lagun espero dituzte bihar** > 41

## Osasunaren gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, zortzi orriko gehigarria hainbat osasun gairen inguruan.




**ARRASATE** > ETXEBIZITZA

# Zerrajerako alokairuko 100 etxe eman dituzte

**GILTZAK** Zerrajerako etxalde berriko 100 etxebizitza egokitu zitzaizkien familiek eguaztenean jaso zituzten giltzak

**IRTENBIDEA** Etxebizitza sailburuak eta Arrasateko alkateak esan zuten alokairua izan daitekeela irtenbidea etxebizitzaren arazorako > 19

**KIROLA** > SARIAK

## Bailarako kirol sariak abenduan

Besteak beste, kirolari onena sarituko dute, eta herritarrek bozka eman dezakete > 40

**EGURALDIA** > ALDAKETA

## Neguko giroa sartu da ibarrean

Martitzenean eta eguaztenean, 63 litro euri jaso ziren Bergaran metro koadroko, urriko azken bi asteotan baino 18 litro gehiago. Aizkorri eta Urbia zuritu egin zituen elurrak. Aldundiak martxan jarri du errepideetako emergentzia plana. > 07



**AURKEZPENA** Belcebluseko Asier Elortza, Ibon Larrañaga eta Oihan Vega, diskoa aurkezten.

ARGAZKI PRESS

## Bergarako Belcebluesek euskarazko blues diskoa aurkeztu du, 'Infer'

Belceblues taldeko kideek Infer diskoa, euren lehenengo lana aurkeztu zuten eguaztenean Donostian, eta kontzertua egingo dute Bergaran. Soinu zuzena, bortitza eta sendoa du bergararren lanak; blues estilokoa eta euskaraz abestutakoa, nahiz eta ingelesezko abestiak ere badituzten. "Orain, bluesa euskaraz egiten dugun bakarrenetarikoak gara", dio taldeko Oihan Vegak.

Infer diskoa aurkezteko kontzertua Bergarako Galway's tabernan izango da, azaroaren 7an, barikua. > 26

## Danbakako 2. kontzertua

Elgetako Espaloia, 22:30

5 euro, Gaztekutxa, 3 euro

- Ni_Neu
- Scam
- Lord Witch
- Adi Holden

DANBAKA

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Gazteak** > 50
**Telebista-Irratia** > 51
**Denbora-pasa** > 52
**Berri-zakua** > 53
**Non-zer** > 54-55


Oñatiko Iker Sukaldeak-en erakusketa aldaketagatik
**Beherapen ikaragarriak**
Zatoz ikustera!
IKER SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR


SUPER AMARA
DENAK GUTXIAGO BALIO DU
BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea,18 P Bezeroentzako Aparkalekua



**ARRASATE** Talderik gehienak mistoak dira Arrasateko danborradan. GOIENKARIA



**DANTZA** Kintoen bi talde dantzan ateratzen dira Oñatin. GOIENKARIA

**JAIAK** > DANBORRADAK

# Debagoienean neskak zein mutilak jotzen ditu danborrak eta barrilak

**ELKARTEAK** Danborrada gehienetan, sorreran, elkarte gastronomikoetako bazkideek hartzen zuten parte eta gerora talde berriak sartu dira

**EMAKUMEAK** Ibarreko danborrada guztiak mistoak dira eta Eskoriatzan eta Oñatin baliteke emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa izatea

**DIRULAGUNTZAK** Udalek diru partida bat ematen dute danborradetarako, baina ez da taldeen artean edo emakume kopuruaren arabera banatzen

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Ia danborradak berak baino zalaparta handiagoa sortu du Donostiako Udalak danborradaren gainean hartutako erabakiak. Berdintasunerako Legeari jarraituz Udalak ez ditu diruz lagunduko mistoak ez diren danborrada taldeak. Emakumeek gizonen postu beretan parte hartzeko aukera dutenak baino ez ditu lagunduko.

Gurean danborrek eta barrikek baino ez dute hotsik ateratzen. Izan ere, Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Eskoriatzan jaien harira egiten diren danborrada guztiak dira mistoak. Antolatzaileekin berba egin dugu emakumeek ekitaldi horietan duten lekuaren gainean.

Ibarreko herri gehienetan danborradetako lehen urteetan parte-hartzaileek lotura zuten elkarte gastronomikoekin. Bergaran, "danborradaren sorreran elkarte gastronomikoek bakarrik hartu zuten parte, eta horiek gizonezkoenak ziren. Gerora beste elkarte batzuk sartu ziren: Aritzeta abesbatza eta San Joxepe erretiratuen elkartea, esaterako", esan digu Udaleko Hezkuntza teknikari Nagore Narbaizak. Eskoriatzan eta Arrasaten ere hasieran elkarte gastronomikoak ziren antolatzaile. Oñatin, ostera, ez da elkarte gastronomikoetatik bideratu. Danborradako antolakuntza taldeko Mikel Aranburuk azaldu digunez, "hainbat konpainia daude eta jendeak izena ematen duenean moldatzen dira taldeak. Badira nagusien talde bat eta beste bat kantinerena nahiko finkatuta daudenak. Beste batzuk, sukaldariena edo baserritarrena, esaterako, aldakorrak dira jendearen sartu-irtenaren arabera".

**TALDE GEHIAGO**

Garaiak aldatu ahala antolakuntza ere aldatu egin da. Arrasaten, "orain elkarte gastronomikoetakoak pare bat talde dira; gainontzean, partaideak koadrilетako jendeak, lagunak… izaten dira", esan digu danborrada antolatzen duen SUDC elkarteko presidente Juan Luis Arkauzek.

> **"Bergarako Udalaren helburua da danborradan emakumeen presentzia modu naturalean izatea, ez indarrez"**

> **"Arrasateko danborradan emakumeak karrozan joaten ziren, baina feministen kexuengatik aukera eman zitzaien danborra jotzeko"**

Bergaran elkarteen arabera antolatzen da danborrada. "Pixkanaka emakumeak joan dira modu naturalean elkarteetan sartzen. Aritzetan parte hartzen dute emakumeek eta gizonek, emakumeak gutxiengoa diren arren; Artatsen, San Joxepen eta Sustar Berrin emakumeen eta gizonen kopurua nahiko parekoa da; Lasai Tokin gizonezko gehiago dago, baina emakume batzuek hartzen dute parte, eta Urdinak eta Zuloa taldeetan gizonak bakarrik daude", dio Nagore Narbaizak.

Eskoriatzan hasieran hiru elkarte zeuden eta bakoitzak zeukan batailoi bat. "Gerora, Amuska emakumeen elkartea sartu zen eta bi batailoi sortu zituen. Bestalde, garai batean intsumiso zirenek beste batailoi bat sortu zuten eta orduan hasitakoek oraindik jarraitzen dute talde moduan, nahiz eta intsumisoen kontua amaitu. Bada barrika joleen beste batailoi bat ere", kontatu digu Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikari Arantxa Untzuetak.

**EMAKUME ASKO**

Emakumeen parte-hartzeaz galdetuta argi ikusi dugu Debagoieneko danborradak mistoak direla erabat, nahiz eta talde batzuk emakumeek edo gizonek bakarrik osatuak izan.

Arrasaten, hasieran, gizonek bakarrik hartzen zuten parte, emakumeak karrozan baino ez ziren joaten. "Hala, feministak kexu azaldu ziren eta emakumeei aukera eman zitzaien danborradan jotzeko. Ordutik hona, gizon eta emakume, denetarik irteten da. Orain danbor jotzaileen talde bat dago, dena emakumez osatua, eta gainontzeko taldeak mistoak dira", dio Juan Luis Arkauzek.

Bergaran esan digutenez, Udalak ez du emakumeen gaia agerian uzten aparteko garrantzirik ez emateko. Nagore Narbaizak esan digunez, "Udalaren helburua da emakumearen presentzia modu naturalean izatea, ez indarrez. Asmo hori guztiz beteko genuke hainbat irudiri berez duten kutsu maskulinoa edo femeninoa kenduko bagenio".



**MISTOAK** Bergaran talderik gehienak emakumez eta gizonez osatuak dira. GOIENKARIA



**EMAKUMEAK** Eskoriatzako danborradan urte batzuetan baliteke emakumeak gizonak baino gehiago izatea. GOIENKARIA

Oñatiko danborradan emakumeek hartzen dute parte kantinera moduan, danborra jotzen, dantzan, zaldi gainean... "Esango nuke Oñatiko danborradan nesken eta mutilen kopurua nahiko berdindua dagoela eta ausartuko nintzateke esatera emakumezkoak gehiago direla. Emakumeek betidanik hartu dute parte danborradan. Lehen mutilak alde batetik eta neskak bestetik joaten ziren eta orain mistoak ere badaude eta mantentzen dira. Kantinerak eta banderadunak, denak emakumezkoak", dio Mikel Aranburuk.

Eskoriatzan ere esan digute emakumeak balitekeela gizonak baino gehiago izatea. "Zazpi batailoietatik hiru emakumez soilik osatuak dira, eta batailoi handiak dira, gainera. Intsumisoenean eta Dorleta elkartean emakumeak eta gizonezkoak daude eta beste bi elkartetan gizonezkoak bakarrik", dio Arantxa Untzuetak.

**BANDERADUNAK ETA KANTINERAK**

Danborradetan emakumeek jokatu izan duten papera banderadunena eta kantinerena izan da toki askotan eta gurean ere irudi horiek ikusi izan dira danborradetan. Hala ere, garai berrietara egokitzeko ahaleginak egin dituzte eta beste toki batzuetan desagertu egin dira irudiok.

Arrasaten, zaldi gainean lau emakume joaten dira. "Lehen banderadunak ere joaten ziren, baina orain, lotsarengatik-edo ez da inor animatzen, ez dugu inor gertu dagoenik aurkitzen", esan digu Juan Luis Arkauzek.

Oñatin ere esan digute aspaldiko argazkiei begiratuta emakumeak karrozan agertzen zirela.

Bergara da beharbada alderdi horretan aldaketarik nabarmenenak egin dituen herria. Sasoi batean banderadunen irudia krisian sartu zen eta egoerari bulta emateko erabaki zuten orain dela hiru urte, besteak beste, arropa aldatu eta baserritar arropa janztea. "Orduan, 18 bandera zeuden eta lortu genituen bandera eramaile guztiak emakumeak izan ziren. Aurten hiru mutil animatu dira. Datorren urterako erronka da banderadun emakume eta gizonezkoen kopurua parekatzea. Gainera, azken urteotan banderadun jardun dutenek barrika eta danbor jotzaileen taldeak sortu dituzte. Izan ere, banderadunak aldatuz doaz eta banderadun bakoitzak dauka ardura urte batetik bestera bere errelebua lortzeko", azaldu digu Nagore Narbaizak.

**DIRULAGUNTZA BEREZIRIK EZ**

Donostian dirulaguntzen harira sortu da zeresana. Gurean, ordea, ez da taldekako edo emakumeen partaidetzaren araberako diru banaketarik egiten. Arrasaten Udalak SUDC elkarteari ematen dio danborradako gastuak ordaintzeko dirua; Oñatin eta Eskoriatzan ere partida orokorra egoten da danborradarako; eta Bergaran ez da danborra jotzearren dirulaguntzarik ematen, baina talde berriei Udalak ordaindu dizkie arropak eta arropa berritzen dutenei zati bat ordaintzen die.

Ez dago kezkatzeko arrazoirik emakumeen parte-hartzea tarteko eta aurrerantzean ere ez dirudi egongo denik. Eskoriatzako Kultura teknikariak esan digunez, "ez da beharrezkoa neurri bereziak hartzea. Elkarteetan ere emakumeak badira bazkide; hortaz, arauak ipinita ez dugu, bada, guk arazorik sortuko, ezta?".

*Donostia, bakarra munduan* dio danborradako martxaren kantuak eta Debagoieneko herriekin alderatuta horrelako neurriak hartzen bakarra dela erakutsi dute. Arrasaten San Juanetan 120 lagun inguru; Bergaran San Martinetan gero eta jende gehiago; Oñatin San Migeletan 170 herritar; eta Eskoriatzan 160 lagun San Pedro jaietan. Denek, emakume eta gizon, danbor eta barrika hotsez jantziko dituzte ibarreko herriak aspaldiko ohiturak pixkanaka berrituz.

## Aramaion lehenengo eta Elgetan gero, helduen danborrada bertan behera utzi dute

Ibarrean beste bi herritan nagusien danborradak egiteari utzi zioten. Elgetan lau aldiz –tartean, atseden urteak egonik– egin zen danborrada eta azken bi urteotan ez dute egin. Danborradan, gainera, herriko talde edo pertsona ezagunak omendu dituzte. Udalarendako garestiegia zelako eta dirulaguntzarik ezean, antolatzaileek bertan behera utzi zuten. Aramaion, orain dela 15 urte ingurura arte egiten zen, baina jendearen parte-hartzea urritu joan zelako erabaki zuten ez jarraitzea. Jaietako hirugarren egunean egiten zuten eta karroza ateratzen zuten parodia eginez. Esaterako, erreginaren karrozan gizonezko bat joaten zen, erregina jantzita. Aurrerago, parodia haiei gai politiko eta sozialek hartu zieten lekua.

## Antzerkiak, dantzak eta karrozak kutsu berezia ematen diete ibarreko danborradei

Ohiko danbor hotsak eta piezak entzuten ditugu ibarreko danborradetan, baina herri bakoitzak bere kutsua ematen dio. Bergaran, San Martinen heriotzaren errepresentazioa egiten dute plazan. Japoniarren esku gurutziltzatuta hil zen konkistatzailearen irudiak pisu handia du danborradan. Bergaran antzerkia eta Oñatin dantza. Bi talde irteten dira danborradako abestiak dantzatzera, gehienetan kintoak. Gainera, badira pieza batzuk Oñatiko danborradan bakarrik jotzen direnak: *Mirentxu, Despierta Juventud* eta *San Migel Martxa*. Eskoriatzan urtero karroza egiten dute Amuska elkartekoek eta emakumeekin zerikusia duten gaiak aukeratzen dituzte. Gainera, jaietako programan azaltzen dute karrozaren zergatia.

markeline
haurrentzako moda
0 hilabetetatik 16 urtera
%20ko deskontuak
(azaroaren 3tik 15era)
6 urte hauetan gurekin egoteagatik, eskerrik asko!
MISS SIXTY SCOTCH DDP JUNIOR berlingot fransa kids GAS Junior cri cri BÓBOLI miniman Pampolina mim-pi PJE
Herri Lagunak 6, behea BERGARA Tel.: 943 76 05 24


Arrasatekobaserriko
produktuenazoka
Azaroak 8 Seber Altube Plaza 09:00 -14:00
08
Antolatzailea:
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea:
ibai-arte
Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
hurbiltasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizuete.

**HIRIGINTZA** > SAN JOSEPE HARROBIKO IDEIEN LEHIAKETA

# Epaimahaiak dagoeneko aukeratu ditu finalerako hamar lan, asteon

Hasiera baten, ez zuen aukeratutako ideien izenik jakinarazi behar, baina filtrazio bat egon da eta horren berri jakin da

**M.B.** > ARRASATE
Arrasateko San Josepe harrobirako ideien lehiaketara aurkeztutako lanen artetik lehen aukeraketa egin du asteon epaimahaiak. Aurkeztutako 26 lanetatik hamar aukeratu dituzte. Hasiera baten, hartutako erabakiaren berri ez zuela eman behar jakinarazi zuen epaimahaiak. Baina filtrazio bat egon da eta hedabide batek argitaratu ditu aukeratutako lanak. GOIENKARIAk baieztatu ahal izan du epaimahaiak zer ideia izan dituen gustukoen.

Epaimahaiak finalerako lau lan aukeratuko ditu; bosgarrena, berriz, arrasatearren ardura da. Azaroaren 9ra arte eman daiteke botoa 26 ideien artean.


**EKO-HARROBIA** Lan mota berriak garatzeko gunea, ikerketa zentroa eta saltokiak ditu.


**ESKUA** Hormetako lau dorretan etxeak doaz eta parekoan, bulegoak. Eskuaren itxura du.


**HARAT HONAT** Pasealeku handi batek azpiegitura guztiak lotzen ditu.


**HARRIZATE** Ikasleendako egoitza eta energia berriztagarrien zentroa doaz.


**KAIKU** Gazteendako auzo berria eraikitzea du helburu, iraunkortasunean oinarrituz.


**KISKY** BTT ibilbidea du. 25 metroko garaierako plataformak mendiaren mailak lotzen ditu.


**KO** Ur azalera handiak ditu. Mediateka, kirol pistak eta medio berrien zentroa ditu.


**NIDIER** Hormetan energia berria sortzeko dorreak ditu. Energiaren hiria sortu nahi du.


**SUELO** Plana herrigunetik AP-1 autobidera doa. Hiri Boulevard baten bidez sortuko da.


**TRONERA** Sei dorre handi ditu. Hor, besteak beste, San Andres auzoko osasun etxea doa.

**HEZKUNTZA**

## Joseba Intxausti izango da gaur Huhezin

**M.B.** > ESKORIATZA
Gaur, egubakoitza, Euskal Kulturagintzaren Transmisioan Adituen Tituluaren azken ekitaldia egingo da Huheziko kapera berrituan. Hau da, hemendik aurrera areto nagusi izango dena.

Ekitaldia 18:30ean hasiko da. Sarreratxoaren ostean, hitzaldia egingo du Etxeberri egitasmoaren zuzendari Joseba Intxaustik. Horren izenburua *Euskaltzaindia euskararen historia soziala lantzen* da.

Jarraian, Huheziko dekano Nekane Arratibelek hartuko du hitza eta ekitaldia amaitu aurretik oroigarri banaketa egingo da. Kapera berrituan biltzen direnek, gainera, graduondoko ikastaroan parte hartu duten ikasleen sormenarekin gozatuko dute.


BERGARA
San Lorentzo
ERRAZTASUNAK ORDAINTZEKO
APARTAMENTUAK 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak
Eraikitzailea
INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea
GRUPO Ormak
Argibide eta salmenta
943 42 44 30
www.ormak.es
Apartamentuak
152.000€-tik aurrera
25.300.000 pta



Luis Laskurain, Suradesako gerentea, bulego berrian. ARANTZAZU EZKIBEL

**ZERBITZUAK** > INAUGURAZIOA

# Bulegoa zabaldu du Suradesak Mankomunitateko egoitza berrian

Nafarroa etorbideko 17. zenbakian ematen dute zerbitzua, egunero, 07:30etik 14:00etara arte

Suradesak ibarreko udaletan ematen duen zerbitzuarekin jarraituko du aurrerantzean

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE
Debagoieneko etxeen birgaitzeak egiteko espedienteak tramitatu eta laguntza ematen duen Suradesa erakundeak lekuz aldatu du egoitza nagusia. Hain zuzen ere, Mankomunitateak Arrasateko Nafarroa etorbidean duen egoitzan zabaldu dute bulegoa. Egoitza nagusia egunero zabalduko dute, astelehenetik egubakoitzera, 07:30etik 14:00etara arte.

Bestalde, ibarreko udaletan ematen duen zerbitzuak ez du aldaketarik izango. Hala, udal bakoitzak zehaztutako ordutegian, astelehenetan Elgeta eta Antzuolako udaletan egongo dira; martitzenetan, Oñatin; eguaztenetan Bergaran; eta eguenetan, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udaletan.

**ETXEAK BIRGAITZEKO LAGUNTZAK**
Suradesaren helburua da Debagoieneko bizilagunei etxeak birgaitzeko espedienteen tramitazioak egitea. Horren harira, nork bere etxean edo bizilagunen komunitatean berrikuntza egiteko dirulaguntzak ematen ditu.

Eusko Jaurlaritzak ematen ditu laguntzok, eta lanak egingo dituzten etxeetan bizi direnen soldata hartzen dute kontuan: 33.000 euro azpitik irabazten dutenei mailegu bezala ematen zaie laguntza; aldiz, 21.000 euro azpiko sarrerak dituztenei bueltatu behar ez duten mailegu bezala ematen diete.

2008. urtean 152 espediente tramitatu dituzte Suradesan: 87 etxe partikularretan lanak egiteko espedienteak dira, eta gainerako 65ak bizilagunen komunitateetan lanak egiteko. Azken horiekin, 594 etxetako bizilagunak daude inplikatuta. Bestalde, ibarreko herrietan 380 igogailu jarri dituzte Suraderaren bitartez lortutako dirulaguntzen bidez.

**ENERGIA AURREZPENA**
Etorkizuneanenergiaren aurrezpenarekin zerikusia duten lanak egiteko asmoa dutela esan digu Suradesako gerente Luis Laskurainek: "Elgetako hiru etxetan eta Aretxabaletako beste baten probak egiten dihardugu. Esparru horretan egingo dugu lan".

DATUA

**152**
**ESPEDIENTE**

Aurten, 152 espediente tramitatu ditu Suradesak, 87 etxe partikularretan birgaitzeak egiteko; eta gainerako 65ak bizilagunen komunitateetan lanak egiteko.

ESANAK

**"Energiaren aurrezpenarekin zerikusia duten birgaitze lanak egingo ditugu etorkizunean"**
**Luis Laskurain** > Suradesa



Zbb
ZORROLLETA, 5
01015 GASTEIZ
T. 945 29 06 06
615 78 28 23
WWW.ZBB.ES

**DOMU SANTU EGUNA**

## Ordutegi bereziak asteburuan hilerrietan

Domu Santu eguna dela-eta ordutegi bereziak izango dituzte hilerriek

**NEREA MENOR** > BERGARA
Bergaran, 08:00etatik 19:30ak arte irekiko dute hilerria zapatuan eta 08:30etik 18:30era domekan. Oñatin, zapatu osoan zehar egongo da irekita, baita Leintz Gatzagan, Elgetan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere. Antzuolan 09:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Aramaion, kaleko hilerria zabalik egongo da, eta auzoetako gehienak ere bai.

**URBANOAK ARRASATEN**
Arrasaten betiko ordutegiarekin jarraituko dute, 09:00etatik 20:00ak arte. Urbanoak ezohiko ibilbide eta ordutegiak izango ditu hilerrira joan-etorria egiteko. Bihar, 10:00etan hasiko da zerbitzua eta ordu erdian behin pasako da, 18:30ak arte. Jaisteko azken autobusa 19:00etan izango da.

> FAGOR ETXETRESNAK

### Gabonetako pagarekin zer egin erabakiko dute martitzenean

Fagor Etxetresna Elektrikoak enpresak bilera egingo du martitzenean, Gabonetako pagarekin zer egin erabakitzeko. Urte bukaerako aparteko ordainketari uko egitea erabakiz gero, kooperatibistei bakarrik eragingo lieke (2.700 bazkide). Bestalde, urteko lehen seihilekoan izandako galerei aurre egiteko, Fagorrek 150 lanpostu murriztuko ditu: 130 langile aurre-erretiratu egingo dituzte, eta gainerakoak birkokatu.

> HITZALDIAK

### Arantzazuren gaineko astea egingo dute hilaren 3tik 8ra arte

Arantzazu Gaur Fundazioak antolatuta, Arantzazuri buruzko astea egingo dute hurrengo hilaren 3tik 8ra arte. Horren harira, hainbat hitzaldi egingo dituzte Gipuzkoan, Arantzazu Gaur Fundazioak esku arten dituen proiektuak azaltzeko; hain zuzen ere, Donostian, Zumarragan, Eibarren, Errenterian, Zarautzen, Oñatin, Andoainen, Irunen, Tolosan eta Arrasaten.

**EGURALDIA** > TENPERATURA GOXOETATIK, EURI ETA HOTZERA

# Aurreratu egin da negua Debagoienean

Eguraldiak berehalako aldaketa jasan du, tenperaturak jaitsi dira eta elurra ere agertu da; Diputazioak emergentzia sistemak martxan ditu

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Udazkena irailaren 21ean hasi zen eta abenduaren 21 arte iraungo du. Baina irailetik hona eguraldi ona izan badugu ere, aldaketa etorri zaigu bat batean azken aste honetan.

Eguraldi kontuetan aditua den Narbaiza-Boluko Luis Mari Agirre bergarararrak orain arte eman dizkigun datuek horixe erakutsi digute. Hala, irail amaieran tenperatura maximoa 31 gradutakoa izan zen eta minimoa, berriz, 10 gradutakoa. Euria ere apenas egin du udazken hasieran. Urriaren 8tik 14ra, esaterako, 6,8, litro metro karratuko. Horrela mantendu da orain arte: tenperatura goxoak eta euri gutxi; azken aste honetan eguraldia zeharo aldatu da eta maximo eta minimoen arteko diferentzia eskasa da orain. Hala, urriko azken egunetan, maximoa 26 gradukoa izan da (urriaren 26an), eta minimoa, 2 gradura arte jaitsi da (urriaren 24an). Gauzak aldatzen martitzena ezkero hasi ziren, eta euria ere egun horien ostean hasi da egiten; aste honetan, berriz, maximoa 9 eta 16 gradu artean egon da, baina minimoa 7 gradura igo da. Euriari dagokionez, urriko azken bi asteetan 45 litro metro karratuko jaso dira, eta azken astean gehiago. Hala, martitzen eta eguaztenean guztira 63 litro metro karratuko jaso ziren Bergaran. Elurra ere egiten hasi da, Urbia aldean. Martitzenean lehen elur malutak jausi ziren, eta Urbia eta Aizkorriko tontorrak zuritu ziren. Udazkeneko lehen elur malutak dira. Elur kota jaitsiko dela iragarri duten arren, oraingoz mendi aldean egingo du elurra.

Hala ere, hotza eta euria egingo du datozen orduetan. Horregatik, emergentzia sistemak martxan jarri ditu Diputazioak.

**EMERGENTZIA SISTEMAK PREST**

Hori horrela, negurako bide zaintzako neurriak hartu ditu Diputazioak. Leintz Gatzagan, elurra kentzeko kamioiak, xafla eta gatz banatze ekipoa prest dago edozein emergentzietarako, baita Elgetan ere. Gatz siloei dagokienez, Bergarako Elorregi auzokoan ere 1.000 tona gatz prest daude.

Guztira Gipuzkoa osoan 44 gidari daude prest lan horiek burutzeko. AP-1 autobiderako, berriz, lau ekipo prest dituzte eguraldiak okerrera eginez gero eta bidea estal dezakeen elurra kentzeko.

Bergarako gatz biltegia beteta dago 550 tona gatzekin. Gune horretan guztira 12 langile arituko dira 24 orduz txandaka lan egiten.

**HIZKUNTZA** > GALESTIK ARRASATERA

# Gales Hizkuntzaren Elkarteko zazpi lagun Goienan izan dira

Beste hizkuntza mugimenduekiko harremanak lantzen jarraitzeko asmoarekin etorri da elkartea Euskal Herrira



Galesko kideak atzo Arrasateko egoitzara egindako bisitan. MIREN ARREGI

**J.Z.** > ARRASATE

Atzo bisitan izan genituen Gales inguruko zazpi lagun Arrasaten: Gales Hizkuntzaren Elkarteko kideak, hain zuzen ere. Euskal Herriko hainbat herritan zehar daude bisitan, eta Goiena Telebistako instalazioak bisitatu zituzten.

Etorri ziren kideetako bat Elin Haf Gruffydd Jones izan zen; hura da Europako Batasuneko Mercator proiektuko zuzendaria eta Galesko Unibertsitateko irakaslea. Euskaraz nahiko ondo moldatzen da. Alan King ere taldearekin batera etorri zen; hura ingelesa da eta Zarautzen bizi da; Euskaltzaindiko kidea da, eta, besteak beste, galeseraz eta euskaraz egiten du.

**GALES HIZKUNTZAREN ELKARTEA**

Gales Hizkuntzaren Elkartea (Cymdeithas yr Iaith Gymraeg) 1962an sortu zen, gales hizkuntzaren beherakadari buruzko kezkagatik. Urte hartan Saunders Lewis idazle eta politikari abertzaleak irratiko hitzaldi ospetsu bat eman zuen, *Tynged yr iaith (Nora hizkuntza)* izenburupean, neurririk hartu ezean gales hizkuntza desagertu egingo zela aldarrikatuz. Nahiz eta Lewis-en jatorrizko helburua Plaid Cymru alderdi abertzaleak hizkuntzaren alde modu eraginkorragoan jardun zezan zirikatzea izan, azkenean hitzaldiaren ondorioz Cymdeithas yr Iaith Gymraeg delakoa sortu zen; Gales Hizkuntzaren Elkartea, alegia. Duela urte askotatik hona Cymdeithas yr Iaith-ek nazioarte mailan dihardu lanean. Esaterako, beste askorekin batera Iraken aurkako gerraren kontra egin du; apartheid delakoaren kontra aritu da baita ere; eta abar.

Bestalde, Cymdeithas-ek munduko beste hizkuntza mugimenduekiko harremanak lantzen jarraitzeko gogo handia du, beste herrion esperientziak ezagutu eta haiengandik ikasi ahal izateko.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Urriko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

ZU IZAN ZARA IRABAZLEA, ZORIONAK!

LIBURUAK
Irabazlea:
DOLORES AZPIAZU
(Arrasate)


SARRERAK
BRUESA-DVK. Irabazleak:
ANGEL MUJIKA LIZARRALDE
(Antzuola)
JAIONE ISAZELAIA INTZA
(Arrasate)
Bruesa-CAI. Irabazleak:
J. MARI OLABARRIA EGUREN
(Bergara)
IDOIA IRAZABAL BERNAL
(Oñati)

ZIRA
EKFB Euskal Selekzioa
Irabazlea:
M. ANGEL ELKOROBEREZIBAR
LARRAÑAGA
(Donostia)


SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
"LA PERLA"
TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).
La Perla

Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak

## gure artekoak

**CLIO GRAND TOUR** > Renault etxeak Clio Grand Tour autoa aurten bertan merkaturatu du. Bergarako Elkarte Renault kontzesionarioko Joana Dezak erakutsi digu automobil berria eta datu guztiak eman dizkigu.

**Joana Deza** > Elkarte Renault kontzesionarioko aholkulari komertziala

# "Maletategiaren tamainak aukera asko eskaintzen ditu"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Aurten merkaturatutako autoa da Clio Grand Tour autoa. Joana Deza Bergarako Elkarte Renault kontzesionarioko arduradunaren esanetan, autoaren kontsumo txikia da elementu azpimarragarriena. Renault etxearen ECO2 programaren barruan sartzen da Clio Grand Tour; hala, CO2 isurketa maila txikia delaeta, ez dago matrikulazio zerga ordaindu beharrik.



Joana Deza, Clio auto berriarekin. A.E.

**MALETATEGI HANDIA**

Beste elementu azpimarragarria maletategia da. 439 litroko karga dauka; baina atzeko aulkiak tolestuta 1.277 litroko karga hartzen du. "Merkatuan dagoen maletategi handiena da. Aulkiak tolestuta 1,70 metroko luzera duten kargak sar daitezke maletategian", azaldu digu Dezak. "Gainera, atzealde guztia maila berean geratzen da eta kargak sartzea eta ateratzea oso erosoa da", dio Dezak.

**MOTORRAK**

Motor aukera zabala eskaintzen du Clio autoak. Dieselezko hiru motor daude: 70 zaldi potentzia, 85 zaldi potentzia eta 105 zaldi potentziako autoak. Gasolinari dagokionez ere, aukera zabala da: 75 zaldi potentzia, 100 zaldi potentzia eta 110 zaldi potentzia. 100 zaldi potentziako motorra TCE da. "Motor berria da: 1.4 motorraren potentzia dauka, 1.6 motorraren parra eta 1.2 motorraren kontsumoa", azaldu digu Dezak.

**BIKOTE GAZTEAK**

Nori zuzenduta dagoen galdetuta, bikote gazteei eta asko bidaiatzen dutenei zuzenduta dagoela argitu digu Dezak. Izan ere, haurren aulkitxoak lotzeko Isofix seguritate sistema dauka. Bestelako segurtasun neurri guztiak ere betetzen ditu Clio autoak. Bost eserlekuko autoa da.

### Clio Grand Tour 1.5 DCI 85 ZP

| | |
|---|---|
| Prezioa | 13.500 euro |
| Luzera | 4,20 metro |
| Zabalera | 2,02 metro |
| Maletategia | 439 litro[1] |
| Kontsumoa | 4,4 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 174 km/h[3] |
| Otik 100era | 13 seg. |
| CO2 isurketak | 117 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

## etxeko leihotik



**Goiatz Arana** > 'goarana@goiena.com'

# 'Urriko ilberrin, elurra Aizkorrin', dio esaerak

Urriko azken txanpan, eguraldiak neguko itxura du udazkenekoa baino gehiago. Hotza, euria eta haizea izan dira astean protagonista, eta, noski, baita denboraldiko lehen elur malutak ere. Ai, eguaztenean, Deskarga gainean, elurra kentzeko makina ikusi nuenean!

Manta zuriak Urbiako zelaiak estali zituen martitzenean eta mendian behera abiatu ziren bertan geratzen ziren azken bi artzainak, artaldeekin. Degurixatik ere, bat jaitsi da dagoeneko eta gainerako lauzpabostek gauza bera egingo dute, seguruenik, datorren astean. Bien bitartean, Oñatiko Udala ari da prestatzen Aloña-Urbia-Oltza ingururako 2009ko artzaintza kanpaina. Ordura artekoa babesean pasako dute ardiek, bi hankako zenbaitek ez bezala, akaso. Donostian azaroaren 15ean irekiko ditu ateak *hotzaren pisuak*, etxerik gabekoak hartzeko. Eta kontuan izanik Caritasek esandakoa, gero eta gehiago direla eurengana laguntza eske jotzen duten erdi mailako familiak, pentsatzekoa da *hotzaren pisuko* sartu irtena ez dela izango orain artekoa baino txikiagoa. Egoera sozio-ekonomikoak, behintzat, ez du askorik laguntzen.

**"Iritsi da elurra, manta zuriak Urbiako zelaiak estali zituen martitzenean"**

**> Eski estazioak** abendu hasieran irekitzeko arazorik ez da izango, eguraldiak gisa honetan jarraitzen badu. Betetzen diren ikusi behar, ordea; elurra ez, baina dirua faltako da aurten.

**> Gozatzeko** bidea ematen du horrelako giroak, baina errepidean, esaterako, ez du askorik laguntzen. Aste honetako euriak istripu ugari eragin ditu; egun bakar batean hiru, Debagoienean.

## begi-bistan



**Elurra Aloñan (Oñati) 2008/10/30**

**Argazkia:** Arantzazu Ezkibel.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Aurtengo udazkeneko lehen elurrak izan ditugu asteon. Eguraldiak asko hoztu du eta ondorioz elurra egin du mendi tontorretan. Urbian ere elurra egin du. Irudian, Aloña ingurua elurtuta.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Asier Altuna**
ZINEGILEA

Asier Altuna bergararraren eta Telmo Esnalen *Txotx* lana emango dute Arrasaten, Beasainen eta Tolosan. Donostiako beldurrezko zinemaldiaren barruan kokatzen den ekintzak da. Kimuak sailari omenaldia da eta Arrasaten hilaren 14an emango dute.



**Asier Urdanpilleta**
KORRIKALARIA

Donibane Lohitzunen jokatutako proban hirugarren tokian sailkatu zen Urdanpilleta oñatiarra. Donibane Lohitzunetik Hondarribira arteko 21 kilometrotako lasterketa izan zen. Laugarren tokian beste oñatiar bat, Ritxar Fernandez sartu zen.



**Benito Cantero**
ARGAZKILARIA

Argazkilari bergararrak *Bilboargazki08* programaren barruan erakusketa jarriko du Bilboko Hotel Indautxu aretoan. Bihar hasi eta azaroaren 15era arte egongo dira argazkia erakusgai, guztira 20. *Natura-ko eta mendiko paisaiak* da erakusketaren izena.

Jesus Uzkudun (Hernani, 1949) CCOO sindikatuko Lan Osasun eta Ingurumen Saileko arduraduna da. Amiantoak kaltetuendako konpentsazio funtsa sortu gura dute. Urte askoan amiantoarekin egin du lan Uzkudunek. Bada, hitzaldia egin zuen atzo Eskoriatzan, eta amiantoaren eraginez sortutako gaitzei buruzko azalpenak eman zituen.

**Jesus Uzkudun** > CCOO sindikatuko Lan Osasun eta Ingurumen arduraduna

# "Amiantoarekin lan egin dugunoi aldika azterketak egin beharko lizkigukete"

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

**Eskoriatzako Ezker Batuak antolatuta, amiantoak eragindako gaitzen inguruko hitzaldia egin zuten atzo. Helburua ibarreko kaltetuei dei egitea zen. Jesus Uzkudunek kontatu dizkigu gaitzaren gainekoak.**




Jesus Uzkudunek amiantoaren gainean egin zuen berba Eskoriatzan.

CCOO

**Zer da amiantoa?**

Beroari eta substantzia kimikoei aurre egiten dien mineral haritsua edo fibrosoa da. Antzinaroan zuziak egiteko erabiltzen zuten. 1828. urtean lurrun-makinen isolatzaile modura patentatu zuten. Hiru amianto ezberdin daude: zuria, urdina eta marroia; baina guztiek eragin dezakete minbizia gizakiongan eta animaliengan.

**Batez ere 1960-1980ko hamarkadetan erabili zuten industria eta eraikuntzan. Ze ondorio ditu?**

Industrian, eraikuntzan, burdingintzan eta ontzi-industrian erabili zuten, besteak beste. Garai hartan ez zuten prebentzio neurririk hartu, eta lehen gaixoak agertu ziren: pleura, birika, peritoneo, laringe eta hesteetako minbiziak eta mesoteliomak eragiten ditu.

2002ko ekainean amiantoa duten produktuak egitea debekatu zuten. Baina eraikuntza askotan dago amiantoa; besteak beste, uralitatan. Horren harira, amiantoa duten eraikuntzak berritu edo lurrera botatzen direnean hauts hori arnasteko arriskua dugu.

Bestalde, egun Asiako hegoekialdera eroan dute amiantoaren produkzioa, inolako informaziorik gabe. Izugarria da.

**Zeintzuk dira amiantoaren gaitzak dituen sintomak?**

Arnasteko arazoak dira lehen sintoma, eta ondoren bularrean mina sentitzen dute. Erradiografiaren bidez ikusten dira biriketako mantxak. Tratamendua behar dutenenei ematen zaie, baina mesoteliomak oso azkar garatzen dira.

Horregatik guztiagatik, amiantoarekin lan egin dugunoi, prebentzio gisa, biriketako egoeraren jarraipena egin beharko ligukete, mantxak goiz antzemanez tratamendua hartzeko aukera izango genuke-eta. Emakumeei bularretako minbizia garaiz antzemateko egiten dieten jarraipenaren antzeko zerbait eskatzen dugu amiantoarekin lan egin dugunondako.

**Noiz diagnostikatzen dira amiantoak eragindako minbiziak?**

Amiantoa har bat bezala da. Norberaren gorputzean sartzen da eta urte askotako lana egiten du. Lehen sintomak 15 urtera ager daitezke, eta beranduen, 30 edo 40 urtera.

Lehen kaltetuak agertu zirenean, medikuek ez zekiten gaixotasunaren arrazoia. 1989. eta 1998. urteen artean 1.647 mesotelamia diagnostikatu zituzten.

**Kaltetuek konpentsaziorik jasotzen dute?**

Amiantoak eragindako minbiziak Lan Ministerioak onartutako lan-gaixotasunen zerrendan daude. Baina kaltetuek frogatu egin behar dute amiantoarekin lan egin dutela, eta kasu batzuetan ezinezkoa da: Euskal Herrian lan egin eta orain beste toki batzuetan bizi direlako, edo lantegia itxi egin zutelako. Horrenbestez, borroka luzea dugu aurretik.

SINTOMAK

**"Lehen sintomak 15 urtera ager daitezke, eta beranduen, 30 edo 40 urtera"**

HILDAKOAK

**"Gure datuen arabera, Euskal Herrian 10.000 pertsona hil daitezke birikietako minbiziarekin"**

ASMOA

**"Amiantoarekin kaltetutako pertsonendako konpentsazio funtsa sortu gura genuke"**

**Zenbat kaltetu daude Debagoienean?**

Zifra zehatza ez dakigu, baina Bergarako eta Eskoriatzako kaltetu batzuk ezagutzen ditugu. Espero dugu atzoko hitzaldiaren ondoren, jende gehiago guregana etortzea, gure aldarrikapenekin aurrera egiteko gaitza duten kaltetuen beharra dugu-eta.

**Ibarreko ze enpresatan erabili zuten amiantoa?**

Bergarako eta Arrasateko Union Cerrajeran eta Fagor Etxetresna Elektrikoetan erabili zuten amiantoa 1960ko hamarkadan. Eraikuntzan ere bai.

Dena den, amiantoa erabili duten enpresa gehienek diote ez dutela erabili. Union Cerrajerak bakarrik esan zuen mineral hura erabiltzen zuela.

**Zenbat pertsona hil daitezke amiantoaren gaitzarengatik?**

Gure datuen arabera, *15en Europan* 250.000 pertsona hilko dira biriketako minbiziarekin. Espainia osoan 50.000 hildako aurreikusten dira, eta Euskal Herrian 10.000 inguru. Zifra izugarriak dira.

**Amiantoak eragindako gaixoen elkarteak (ASVIAME) ze lan egiten du?**

Elkartearen aurkezpen ekitaldia egingo dugu azaroaren 7an, Errenterian. Elkarteko kideok eta lan medikuntzako espezialista batek parte hartuko dugu. Amiantoak eragindako gaitzen gaineko informazioa emango dugu. Elkartea asko indartu da kaltetuen senitarteko gazteen partaidetzarekin. Bestalde, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren dirulaguntza jasotzen du.

Hortaz, informazioa gura dutenek elkartearengana edo Euskadiko Langile Batzordeak (CCOO) sindikatura jo dezakete. Buru-belarri gabiltza gai horrekin, eta amiantoarekin kaltetutako pertsonendako konpentsazio funtsa sortu gurako genuke.



zabalik

Maite Aristegi

# Lurrama eta geroa

Krisi dontsu honen harira, oraintsu leittu neban konponbidia nekazaritzaren eskutik etorri zeikiela. Izan be, Herrialde bakoitzaren elikadura burujabetzia eredu ekonomikoaren krisi honi erantzuna emateko oinarrizkoa da. Ze, norbait akordatzen ete da krisiaren agerpen larrienaz, goseteaz alegia? Eta gorantza doia mundu osuan! Orain arteko merkatu arloko aldaketek ez dabe gosea gutxitzea lortu, eta latza da gero ikustea, Banketxeen gainbehera dala ta, estaduek sartu daben dirutzarekin ia mundu osoko gosea ase zitekeela! Baina Munduko gosetea eta horri lotutako emigrazino flujoei benetako iraulixa emoteko, urjentea da beste eredu ekonomiko baterako alternatibak lantzea. Eta horretan agintarixak, itxuria, lasai-asko dare.

Geurian, baserri-lanaren eredu aldaketak ekarritako porrotaren eztenkada latzenak jasotzen gare. Apenas ia baserritarrik, eta prezio bajuekin konpetidu ezinak, okerrena eragin: etsipena eta jarraituko leukienak be ilusinoa galdu. Normala, baserritik eroslearenganainoko bidian,produktuen prezioa, batez beste %400 igotzen dala jakinda. Baina ezin ga negar zotinka gelditu! Alternatibak badare! Euskal Herriko Iparraldean, ia hirutik bat baserrittar izanik, bizi-bizirik dauke beste nekazaritza molde bat sortzeko gogua. Bizi-nahi horretatik sortu zan Laborantza Ganbara, eta bere ikerketa, asesorakuntza-lan eta alternatibekin, etorkizunerako hazixa ereitten dihardu. Herri batek ezinbestekoa dau-eta bere biziraupenerako tresnak izan eta indartzea. Eta politikoki hain garrantzitsua dalako ari da sufritzen halako jazarpen politiko ikaragarrixa. Ba,erasoari erantzuteko aukera paregabea dogu asteburu honetan. Baionan 3.urtez antolatzen daben Lurrama azoka bisitatuz, jaixaz gozatuz, Urtarrilerako epaiketa, ilegalizatze, kartzela eta isunei ezetz esanaz, Ipar eta Hego, nekazaritza eredu bizixaren aldeko lanari baietz esango dotzagu. Animau zu be!

> **"Baserrian, jarraituko leukienak be, ilusinoa galdu"**
>
> **"Baina Iparraldean, bizi-bizirik daukate beste nekazaritza molde bat sortzeko gogua"**

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## DANBAKAKO PRODUKTUETAN DESKONTURIK BAI?

**Irakurle batek hauxe galdetu digu: "Danbakako kamiseta eta CD-DVDa, biak batera erosteagatik deskonturik badago?".**

Bai: prezio bereziak daude Danbakako produktuak batera erosteagatik. Hala, banaka erosita, CD-DVDa 13 euro kostatzen da eta kamiseta, 12 euro; baina biak batera erosteagatik, salneurria 20 euro da. Horiek erosteko aukera dago Danbakako kontzertu egunetan, Elgetako Espaloia antzokian bertan Goienak ipiniko duen salmenta postu baten eta baita Goienako egoitzetan ere. CD-DVDa *www.hotsak.com* webgunean eta Euskal Herriko ohiko disko salmenta lekuetan ere salgai dago.

Eta kontuan hartu behar da kamiseta bat baino gehiago erosten duenak deskontua izango duela: bat 12 euro da; bi kamisetarengatik 22 euro ordaindu behar da; hirurengatik, 30 euro.

Azkenik, Danbakako kontzertuetarako sarreretan ere badaude eskaintza bereziak. Hala, egun baterako sarrera 5 euro da, baina 3, Gaztekutxa txartelarekin ordainduz gero; eta abonua 25 euro da, 18 euro Gaztekutxa txartelarekin. Sarrerok salgai daude Goienako egoitzetan eta Espaloia antzokian.

## PATINAJE IKASTARORIK BADAGO DEBAGOIENEAN?

**Kirol ikastaroen gaineko galdera bat jaso dugu. Hain zuzen, irakurle batek idatzi digu hauxe galdetuaz: "Patinetako hasiera edo sakontze mailetako ikastarorik badago?".**

Debagoieneko kirol zerbitzu eta kiroldegietara deitu ondoren, honakoa esan diezaiokegu gure irakurleari: une honetan inongo ikastarorik ez egon arren, egon egoten direla eta, are gehiago, kirol zerbitzuak badabiltzala antolatu nahian.

Hala, Arrasaten, Aukeako ordezkariek esan digute oraingoz ez dagoela talderik, ez delako behar adina jende apuntatu, baina azaroan "beharbada" egongo dela, jende nahikoa batzen bada. Hortaz, izena emateko aukera dago kiroldegian (943 77 16 77).

Oñatin, udan antolatzen dute, urtero, eta "arrakasta handia" izaten du. Hainbat talde sortzen dira, maila desberdinetakoak.

Aretxabaletan esan digutenez, oraingoz ez dago, baina badute antolatzeko asmorik.

Azkenik, Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuek esan digute eurek ez dutela antolatzen, baina hara deituz gero (943 77 91 67), herriko patinaje taldera bideratzen dutela interesa duena.

> **Galdera egiteko:**
> Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
> - Telefonoz: 943 25 05 05
> - Faxez: 943 25 05 12
> - Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
> - Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Unai Busturia




blog

# Internet bidezko bikoteak

Joxe Aranzabal
goiena.net/blogak/faroa

2007an 4.400.000 pertsona ezkondu ziren AEBetan. Horietatik 100.000k Interneten ezagutu zuten elkar. Garbi dago gaur egun ligatzeko Internet erabiltzea ez dela tipo bitxi batzuen kontua, sarearen hasieran jotzen zen moduan (…). Jendea albo batera uzten ari da lege zaharreko bideak bikotekideak bilatzeko —eliza, erakundeak edo zelestinak—, eta beste batzuk ari da erabiltzen, hala nola lantokia eta Internet. Azken honek leku asko ditu horretarako, esate baterako Match.com eta eHarmony, baina baita gune bereziagoak ere, DateAGolfer kasu, non golf jokalariak bila daitezkeen, Animal Atraction, animaliak maite dituztenentzat edo Positive Singles, non elkartzen baitira ezkongabe seropositiboak (…).

Euskal Herrian oso bestelakoak garela? Baliteke, baina uste baino gutxiago seguruenik. Abuztuan, gehienok oporretan ginela, aspaldi ikusi bako bikote bat ikusi genuen Elorrioko plazan. Mutila Elorrion jaioa da; neska, berriz, Uruguain. Orain sei bat urte Internet bidez ezagutu zuten elkar. Mutila eliza katolikoan bataiatua zen; neska, berriz, juduan. Hala ere, ezkondu egin ziren, eta gaur egun Urugain bizi dira, bi seme-alabarekin. Gure bi lagunak ez dira salbuespena: Interneten sortutako bikote gero eta gehiagotan nahastu egiten baitira nazionalitatea, erlijioa eta etnikotasuna.

Hala ere, Iparragirreren leloa ausartegitzat jotzen dutenek *–Eman ta zabal zazu*

plazara

Gipuzkoako zerbitzu sozialen gaineko eztabaida ireki da, bai Foru Aldundian, baita gizartean ere, gipuzkoar populazioaren zahartzeak eta krisi ekonomikoak bultzatuta, beste faktore batzuen artean. Aralar alderdiko Rebeka Ubera batzarkideak proposatzen du oraingo egoera aukera gisa hartzea arlo publikotik kudeatu eta eramandako kalitatezko zerbitzu sozialen eredu bat sortzeko.

**Rebeka Ubera ***

# Erronka, kalitatezko zerbitzu sozialak

Bada garaia gaur egun daukagun zerbitzu sozialen ereduaren inguruko eztabaida ireki eta gaur egun indarrean daukagun ereduari, hots, ardura publikoa baina kudeaketa pribatuan oinarritzen denari, buelta emateko, baldin eta epe motz, ertain eta baita luzera kalitatezko zerbitzu publikoa bermatzea baldin bada helburua. Zerbitzu Sozialak herritarren eskubide dira eta izan behar dira, noski, baina horiek orain arte ez dira eskubidetzat onartuak izan, baizik eta zama gisa. Ondorioz, zerbitzu sozialen alorreko gastua –edo hobeto esanda, inbertsioa– handitzea planteatze soilarekin batzuek burura eramaten dituzte eskuak. Garaiak aldatuz doaz, gizartea aldatuz doa, eta ondorioz, pertsonen beharrak ez dira berdinak, eta gero eta behar gehiago ditugu, eta makina bat erronka ageri zaizkigu aurre egiteko.



MIKEL ARROIABE

Debagoienean, esaterako, 2007an eta adineko pertsonentzako 391 egoitza-plaza zeuden, eta Foru Aldundiak mahai gainean jarri duen zerbitzu sozialen II. Maparen arabera, 2012rako helburua da 519 plaza-kopurura iristea. Beraz, datozen lau urteetan 128 plaza berri sortzea da helburua. Zalantzan gaude nahikoa izango ote den, kontuan hartzen badugu gaur egun 55 pertsona daudela itxoite zerrendan eta eskatzaileen kopuruak gora egiten duela.

Bat-batean, Gipuzkoan Politika Sozialeko Departamentuari, hots, Gipuzkoako hainbat zerbitzu sozial kudeatzen dituenari, lidergoa duen taldeari, Eusko Alkartasunari, Zerbitzu Sozial Publikoaren inguruko eztabaida irekitzea otu zaio. Gaur egun indarrean dugun ereduaren arduradunak, hirukoaren gainerako alderdiekin Eusko Jaurlaritzan, beraiek izan baitira, makina bat urtetan Foru Aldundian planteatzen joan diren ildoen bidez, forma eta edukia eman diotenak gaur egungo ereduari: ardura publikoa eta kudeaketa pribatua duten zerbitzu sozialen eredua sortu dutenak. Gure taldetik eztabaida irekiera hau txalotu egin dugu, tentuz, baina txalotu egin dugu, hainbatetan eskatutako eztabaida baita. Beharrezko eztabaida: gelditu eta hausnartu. Nondik nora goazen. Zeinek izan behar duen gure eredua baldin eta etorkizuneko erronkei duintasunez aurre egin nahi badiegu, kohesio soziala, elkartasuna, publikotasuna eta iraunkortasuna, bere zentzu zabalenean, helburu izanik.

**"Helburua da ibarrean, lau urtean, adinekoendako 128 plaza sortzea; zalantzan gaude nahikoa izango den"**

**"Krisi ekonomikoa aukera paregabea izan daiteke zerbitzu sozial publikoak bermatzeko"**

Baina indarrean dugun fiskalitate ereduarekin ezinezkoa da datozkigun erronkei aurre egitea, eztabaidarekin edo eztabaida gabe. Beste fiskalitate eredu bat beharrezkoa izango da, koiuntura ekonomikoak hainbeste baldintzatu ezingo duena. Fiskalitate bidezkoagoa premiazkoa dugu, bakoitzak duenaren arabera ordainduko duena. Gehien dutenek gehiago eta gutxiago dutenek gutxiago eman diezaioten ogasunari, eta ez, orain arte bezala, gizartearen pisua langileriaren bizkar, gehien dutenei ihes egiteko bideak irekiz. Beraz, hausnarketari ikuspegi zabal batetatik oratu beharko zaio, eta ezin izango da soilik zerbitzu sozialen esparruan kokatu.

Sartuta gauden krisi ekonomikoa aukera paregabea izan daiteke gelditu eta eztabaida irekitzeko. Krisia aukera bezala ikusi behar dugu. Aukera, pertsonen eskubide sozialak egonkortzeko urratsak emateko. Etorkizunean egoera dena delakoa izanik, pertsonen eskubideak bermatuak egoteko. Zerbitzu sozial publikoak bermatzeko: ardura eta kudeaketa publikoa izango dutenak. Gu bide horretan prest egongo gara elkarlanerako, urratsak emateko.

*Rebeka Ubera elgetarra Aralarreko batzarkidea da.

zer deritzozu?

**www.goiena.net**

## Asteburuan begiratzen diozu diruari?

| | |
|---|---|
| BAI | %60 |
| EZ | %40 |

**> KRISIA BURUAN**
Orokorrean gutxiago gastatzen saiatzen naiz orain, ez dakit krisia igarri dudalako edo krisian nagoela sartu didatelako buruan.
**Maddalen**

**> TOPERA**
Oraingoz ez. Gure etxera ez da krisia heldu. Aurreko aste bukaeran parranda egin genuen egubakoitz eta zapatuan; eta domekan baba-jana antolatu genuen. Topera gabiltza oraindik!
**Maria**

**> AFARI GUTXIAGO**
Bai, nik gutxiago gastatzen dut, edo saiatzen naiz behintzat. Eta ikusi dut jendeak ere gehiago zaintzen duela dirua: afari gutxiago egiten du orain.
**Elixabete**

**> ONDO PASATZEA**
Bai, kontuz gastatu behar da, baina pasatu gabe! Larregikeriarik egin gabe aurreztu daiteke, eta era berean ondo pasatu.
**Joseba**

**DATORREN ASTEKOA: Udalaren kultura ekintzetan ibiltzen zara?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

*munduan fruitua*–, aukera dute *Kaixomaitia.com* webgunean lagun euskalduna egiteko, webgune horrek horixe eskaintzen baitu abiapuntu legez: hurbiltasuna eta euskara.

## Konspirazioak Ameriketan ere

**Mikel Lizarralde**
eibar.org/blogak/lizarralde

Duela aste pare bat Sustaturi esker jakin nuen azken ekonomia Nobel saridunak bloga zeukala. *The Conscience of a liberal* da Paul Krugman-en bloga. Tarteka irakurtzen nabil (…).

Atzo irakurri nion AEBetako eskuin erradikalenen teoriaren berri ematen zuen artikulua. Krugman-ek dioenez eskuin-muturreko hainbat blogari teoria berri bat dabiltza aireratzen: egun bizi dugun krisi ekonomikoa demokratek sortua da; konspirazioa da hauteskundeetan errepublikarrak galtzaile suertatzeko. Konspiratzen dabiltzanak: demokratak eta komunikabide progreak.

Sentsazioa daukat ez dela lehen aldia matraka hau, edo antzerakoa, entzuten dudana. Gainera, Krugman-ek aipatzen du 2004.eko hauteskundeetan antzerako zerbait esan zutela, orduan, George Soros-i (Kerryren alde diru mordoa emandakoa) bota zioten munduko finantza merkatuen beherakadaren errua.

Mundu mailako kontserbadoreak batzen dituen beste ezaugarri bat daukagu eskuartean. Konspiranoikoak dira. Ez dira galtzaile onak. Galtzen dutenean, konspirazioengatik galtzen dute, ez besterik. Mundua sinplea da.

koplak

**Manex Agirre**

## San Josepe eta abangoardia

Aurrekoan, nola badagoen
gauza ikusgarririk han
Kulturateko klaustroetara
hurbildu nintzen bisitan.

(Portzierto, noan denetan diot:
zein aldaketa itzela…
Ez dakit den nostalgia edo
zahartzen hasi naizela).

Iritsi eta ohartu nintzen
bertan zegoela, hara
San Josepeko harrobirako
proposamenen ilara.

Atentzio-deigarri badela
onartu dezagun behintzat,
arkitektura berritzailera
ohituta ez gaudenontzat.

Baina badutela ohartu naiz,
denak ikusi ta gero,
erakargarri egiten duten
fikziozko zerbait edo…

Irabazleak nire ustez behar du
baldintza bat nabarmena:
fikziozko, baina praktikoa
eta denontzako dena.

## Seminarioko patioa txukundu

**Elsa Manso**
Bergara

Guraso bat naiz, Bergarako Aranzadi ikastolakoa, eta zera aditzera eman nahi dut: gure umeek, ikastolako zein ikastolakoak ez diren beste hainbatenak moduan, Seminarioko patioan ematen dituzte orduak jolasean, ikastolatik ateratzen direnean eta asteburuan. Eta dago gune bat hondatu samar dagoena: patioan bertan, Miguel Altuna parean dagoena, asfaltorik ez duena, lurra baizik; ustez, lorategia dena. Ustez diot, ze arbola batzuk izan ezik, lurra —eta euria egiten duenean, putzuak eta lokatza— eta zikinkeria besterik ez ditueta. Ondorioz, umeendako infekzio eta zikinkeria gune bihurtzen da.

Horregatik, eskatu nahi diot Udalari har dezala neurriren bat. Proposamena: hesiz itxi dezala edota asfaltoa bota dezala hor ere. Entzunda daukat etorkizunean lur azpiko aparkalekuak egiteko asmoa dagoela hor eta, ondorioz, patio osoa jaso beharko litzatekeela. Hori egin bitartean, behin-behineko irtenbide merke eta efikaz bat proposatzen dut.

Aldez aurretik, eskerrak emanez, eta begirunez.

## AHT: inposatutako egitasmoa

**Onintza Langaran Galdos**
Arrasate

Azkenaldian, *Euskal Y* izeneko makro proiektua aurkeztu bezain pronto onartu da. Euskal Autonomia Erkidegoko Abiadura Handiko Trenak Gasteiz, Bilbo eta Donostia lotu nahi ditu. Araututako parte-hartzerik gabe baiezkoa eman zaion proiektu honen gainean jakin beharreko zenbait aspektu azpimarratu nahi nituzke:

Une honetan, *Euskal Y*-a inposizio gisa aurkezten da, atzera bueltarik ez duen proiektu bezala. Sekula ez da guztiz zehaztutako proiektua aurkeztu; are gutxiago, beste proiektu batzuekin alderatu. Hala nola, Europako trenbideetako neurriekin bat datorren trenbide sarea berreraiki, hau da, trenbide zaharrak eredu berri batera moldatu. Bidaiariak zein merkantziak garraiatuko lituzkeen trenbide sarea, hain zuzen ere. Beste aukera bat besterik ez da, ez dut esaten egokiena denik. Trena garraiobide arloko zenbait hutsune eta arazo konpontzeko aukera izan daitekeela islatu nahi dut, baina horretarako ez da Abiadura Handiko Trenik behar. Makro proiektuak eta neurri gabeko inbertsioak berrikuntza eta aurrerapauso hitzekin lotu ohi dizkigute. Tamalez, askotan, makro proiektu hauek ez dituzte gizarte bateko arazo edota beharrak asetzen.

Neurri honetako proiektuak abiarazteko beste zenbait gauzaren artean beharrezkoa da aurretik zenbait eztabaida sendo eta demokratikoak egitea, gizarte bateko lurralde eredua zehaztu ahal izateko. AHTk Euskal Herria metropolizatze bidera darama, Euskal Herria hiri handi bat bilakatuz eta ez dut uste hau euskaldunok nahi dugun lurralde eredua denik. Zenbait herri galdeketa proposatu diren arren, bertan behera geratu dira, Elorriokoa kasu. Halako makro proiektuak esku artean dituztenek ez dute gure iritzirik behar.

Laburbilduz, AHT eta euskal gizarteak garraiobide arloan dituen gabezien artean bateraezintasuna dagoela esango nuke. AHTk sortuko dituen ingurumen eraginak aipatzea saihestu dut uneoro, beste hainbeste baitago esateko.

## Gipuzkoako Foru Aldundiaren dekalogoaren gainean

**Iñigo Louvelli**
(Ezker abertzaleko hautetsia)
Donostia

Jakin-min handiz aztertu dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak plazaratu berri duen dekalogoa. Dekalogoak Gipuzkoako Foru Aldundiak horren gustuko duen plazaratze mediatikoa izan du. Dekalogoaren edukiak herritarren partaidetza du ardatz.

Hitzez hitzekoak dira honako pasarte hauek:

- "Demokrazia da herriak partaidetza ahalik eta handiena izatea gobernu-eginkizunetan. Partaidetzarik ez badago, okerrago funtzionatzen dute demokraziak eta gobernuak".
- "… Helburu nagusia: Gipuzkoak talde gisara funtzionatzea. Horretarako tresnarik nagusietakoa, berriz, herritarren partaidetza bultzatzea da".

Pasarte horiek irakurrita, honako galdera hau luzatu nahiko genioke Gipuzkoako Foru Aldundiari eta, bereziki, Markel Olano diputatu nagusiari: nola liteke demokraziaz eta partaidetzaz horrelako dekalogo bat atera eta etxez etxe zabaltzea, urte eta erdian gipuzkoarrok demokraziaren adierazpen nagusi omen den bozaren bidez aukeratutako ordezkari instituzionalen parte hartzea debekatu duzuenean? Zinikoa behar da izan gero!

Demokrazia eta herritarren parte-hartzea hitz potoloak dira bolo-bolo ibiltzeko.

Gipuzkoarrok zoritxarrez oso ondo ezagutzen dugu Foru Aldundiak bultzatzen duen parte hartzea eta demokrazia zertan datzan.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan 72.000 gipuzkoarrek baino gehiagok "demokratikoki" egin zuten hautu politikoa ez da errespetatzen. Hortaz, Batzar Nagusiak ez dira egokienak demokraziaz hitz egiteko, egitura eta osaketa herri borondatearen ukazioan eta herri ordezkarien ukazioan oinarriturik dutenean. Batzar Nagusiak egun lapurrez osatuta daude. Bai, lapurrak diogu. Horrela deitzen zaio berea ez den zerbait hartzen duenari, ezta?

Urte eta erdian, 72.000 gipuzkoarrek baino gehiagok aukeratutako ordezkariok traba eta oztopoak besterik ez dugu izan Batzar Nagusietan gure lan politikoa garatu ahal izateko. Informazioa eskuratu ezin eta gure ahotsa isildua izan da behin eta berriz demokraziaz eta parte hartzeaz dekalogoa plazaratu berri duen instituzio horretan. Hortaz, jendaurrean hitz politekin herritarren partaidetzaz aritzea lotsagabekeria galanta dela deritzogu. Eta lotsagabea baino gehiago izan behar da, milaka gipuzkoarron eskubideak ukatzeaz bat, guztioi betebeharrak exijitzeko: dekalogoaren zabaltzea gipuzkoarron diruarekin egin da, guztion diruarekin. Horretarako, ederki asko hartzen gaituzte kontuan!

Legealdiko urte eta erdi joan da dagoeneko, eta urratsik ez da eman egoera ezdemokratiko honi buelta emateko, horretarako aukera eduki duten arren. Ez gaituzte Batzar Nagusietan nahi, beldur direlako. Badakite ezker abertzalea bertan egonda, beren negozio eta txantxulloak aurrera eramateko arazoak izango dituztela. Badakite ezker abertzalea dela oposizio erreala egingo duen bakarra eta badakite ezker abertzalea dela Gipuzkoa eta gipuzkoarrentzat alternatiba ezkertiar eta abertzale bakarra. Gipuzkoar guztion eskubideak eta interesak defendatu eta bermatuko dituen bakarra. Badakite, bestalde, gori-gori dauden gaietan, herritarrak benetan kezkatzen dituzten gaietan –AHTn edo hiri-hondakinen trataeran– alternatibak eskaintzen ditugula: batetik, ahalik eta zabor gutxien sortzea, gauzen berrerabilpena bultzatzea, zaborra gaika biltzeko neurriak…; eta, bestetik, errepide-sareak hobetzea, trenbide sozialaren alde egitea…

Dekalogoan ezarri dutena jakina da, herriaren partehartzerik gabe demokraziarik ez dagoela, alegia. Horretan ados gaude. Diputatu nagusiak prentsan egindako lehen agerraldian esan zuen gipuzkoar guztien diputatua izan nahi zuela.

Zer den hipokrita izatea: hitz polit ustelak. Zenbait alditan izan gara berarekin, baita Alderdien Legearen aurka *omen* dauden beste alderdiekin ere, Batzar Nagusietan gure parte hartzea ziurtatzeko. Hitz hutsak baino ez ditugu entzun guztiengandik. Sekula ez dira izan partehartzearen aldeko ekintzak; aitzitik, gure ahotsa eta proposamenak entzuteko ateak itxi dizkigute.

Orain hitz ustel horiek beraiek dekalogo forman aurkeztuz paper batera pasa dituzte, gipuzkoarron aurrean herriaren parte-hartzearen eta elkarrizketaren apostoluak balira bezala. Tamalez, hamasei hilabeteotan euren ekintzek kontrakoa erakutsi digute: Apartheid politikoaren tresna bilakatu dituzte Batzar Nagusiak ere. Historiak epaituko zaituzte.

## Juan Antonio Lizarralde Jauregiren omenez

**Jose Javier San Sebastian**
(Juan Antonioren koadrilaren izenean)
Antzuola

Brasilen ibili zara abade misiolari, eta herritik bertatik esan diozu agur Antzuolari. Zure abadetza Antzuolako herri guztiaren abadetza zela esaten zenuen eta zure lagunok beti gogoratuko zaitugu Brasilen eta hemen. Domekan, agur esaterakoan, zure oroimen goxoa utzi zenuen gure gogoan. Zurekin akordatuko da Antzuolako koadrila, hona gure agur umila:

Ez gero pentsa samurra
dani korain bertsotan hastea
samintasunez daukatelako
nere barrena betea.
Zure heriotza izan degunez
uste gabeko kolpea
oraindiokan ezin sinistu
Juan Antonio maitea.

Zazpi bat egun, gehio ez
dira iritsi zinen etxera Brasil
aldetik merezi zendun atsedentxoa hartzera.
Bizimoduak sorpresak ditu
gorabeherakin batera
esan liteke etorri zala
Antzuolara hiltzera.

Zure lanean buru-belarri
Brasil alderdi hoietan
apaiz bizitza konsagratuaz
misiolari lanetan.
Une politak izango ziran
ta une latzak sarritan
zure bizitza arriskatuaz
behar baino gehiagotan.

Seguru nago aurkitzen
zera zeruan erdi-erdian
hainbeste maite izan zenduan
Jaungoikoaren aurrian.
Fede apur bat nola daukagun
geure bihotz barrenian
bilduko gera guztiok berriz
azkenengo egunian.

## Eskerrik asko, herriari, Udalari eta dendariei

**Ander Berraondo**
(Bedelkarreko presidentea)
Bergara

Bedelkar Bergarako dendari eta ostalarien elkartekoen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu, urriaren 18an Bergarako Udal Pilotalekuan antolatu genuen komertzioaren ferian parte hartzeagatik. Zuen laguntza ezinbestekoa da jarduera hauek arrakasta izan dezaten, eta laguntza hori barik, gure ahalegina hutsala da.

Horregatik, eman diguzuen erantzun on hori ikusita, prest gaude etorkizunean beste egitasmo batzuk antolatzeko; izan ere, ekimen horiekin lortuko baitugu gure kaleak modu jarraituan bizi-bizi edukitzea. Uste dugu denon artean lortuko dugula berreskuratzea Bergarako herriak lehen izan zuen bizitza.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari eskaini digun laguntzagatik eta, jakina, baita azokan parte hartu zuten dendei ere, badakigulako sekulako esfortzua egin behar izan zutela erakustokietara jeneroa eroan eta berriro ere euren dendetara itzultzeko.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

Faxa

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


Zer? Ez zinen gogoratzen ikastetxeko gastuak zetozela?
GESTIPLANek ohartaraziko dizu
Azkenean, hona hemen era erosoa eta erraza familiako ekonomia kudeatzeko: GESTIPLAN.
Zerbitzu berri honek familiako gastu guztiak planifikatzen eta kontrolatzen lagunduko dizu. Zehazki esango dizu zenbat eta zertan gastatzen duzun, eta hileko kuota bakarra kalkulatuko dizu urteko gastu guztiei aurre egiteko, nahiz eta hil batean handiak izan eta hurrengoan txikiagoak.
Honela, zeure etxeko ekonomian oreka handiagoa lortzeaz gain, aukera berriak aurkituko dituzu zeure diruarentzat.
Proba ezazu Kutxanet-en!
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


Negu honetan,
ahaztu hotza.
ESKAINTZA PAREGABEA
Naturgas energiarekin,
gas naturalez gozatuko duzu etxean.
Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzaileekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.
Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).
+
KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan finantzatzeko.
+
570 €
ere emango dizugu
Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.
Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarraren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.
902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com
naturgas energia











**> ARRASATE**
Zerrajerako ehun etxebizitzatako giltzak entregatu dituzte **> 19**

**> BERGARA**
Herriko lorategi historikoak babesteko taldea sortu dute **> 25**

**> ANTZUOLA**
Senegalen gaineko erakusketa ipiniko du Anelkarrek aste bukaeran **> 36**

**> ARAMAIO**
Udala pozik dago Erretiratuen Eguneko azokaren harrerarekin **> 38**


**ARRASATE** > AHOTSAK TALDEA

# Emakume autonomoetatik hasita, aniztasun politikora heldu gura dute

**EMAKUMEAK**
Arrasateko Ahotsak taldean 15 emakumek dihardute egun

**HELBURUA**
Askatasunean eta justizian oinarritutako bakearen aldeko eztabaida bultzatu gura dute



Arrasateko Ahotsak taldeko emakumeak Kulturaten, eguaztenean. MIREIA BIKUÑA

**MIREIA BIKUÑA** >ARRASATE
Emakume autonomo eta arruntengana heltzeko asmoz hasi du Arrasateko Ahotsak taldeak bide berria. "Izaera eta pentsamendu askotariko emakumeak bildu gura ditugu taldean, baina badakigu egun bizi dugun egoerak ez digula horretarako aukerarik ematen. Horregatik guztiagatik, emakume arrunt eta anonimoengana heldu gura dugu", esan digu Ahotsak taldeko Jasone Mendizabalek.

Duela urte eta erdi hasitako bidean 15 emakumek egin dute bat taldearekin. "Emakume guztiek dituzte gure taldeko ateak zabalik. Guregana datozenei ez diegu galdetzen nondik datozen. Aniztasuna da gure helburua: guretako garrantzitsua da pertsona ezberdinen arteko elkarlana", diote.

Arrasateko Ahotsak taldearen helburu nagusia aniztasun politikoa lortzea da: "Aniztasuna adin, jaioterri, pentsamendu, egoera ekonomiko eta ikuspegi kultural eta sozial ezberdinak azalduz ager daitezke. Hortaz, gure nahia da norbanako emakumeekin taldearendako aniztasun politikoa lortzea; alegia, ezberdintzen gaituzten ideia eta gauzak alde batera utziz, batzen gaituztenekin aurrera egitea", esan digu Arrasateko Ahotsak taldeko kide Amaia Gabilondok.

**"PERTSONEN ARTEKO ERRESPETUA"**
Arrasateko Ahotsak taldea orain dela bi urte nazio mailako Ahotsak ekimenak egindako deialdiari erantzunez sortu zen; hain zuzen ere, bakearen alde egingo luketen emakume talde autonomoak sortzea. "Guk nazio mailako Ahotsak taldeak sinatutako manifestuarekin bat egiten dugu eta hori hartu dugu lanerako ardatz nagusi. Gure helburu nagusia da askatasunean eta justizia sozialean oinarritutako bakearen aldeko eztabaida bultzatzea. Hori guztiori lortzeko uste dugu ezinbestekoa dela pertsonen arteko errespetua egotea", diote taldekoek. Horren harira, emakumeen parte-hartze aktiboa beharrezkoa dela uste dute, eta norabide horretan euren ekarpenak egiteko gertu daude: "Emakumeok gizartean dugun presentzia oso eskasa da. Hortaz, mota eta alde guztietako indarkeria desagertzen lagundu gura badugu, eragile aktiboak izan behar dugu. Hori da guk egin dezakegun ekarpenetako bat. Hortaz, emakume guztien lana eta ekarpenak dira garrantzitsuak".

**BESTE TALDE BATZUK**
Helburuak betetzeko egingo dituzten ekintzen gainean zera esan digute: "Euskal Herriko Ahotsak talde ezberdinekin ditugu hartu-emanak; besteak beste, Durangoko eta Elgoibarko Ahotsak taldeekin. Elkarrizketarako baldintzak sortzeko bitartekaritza lana egingo dugu Arrasateko emakumeekin".

Aurreko asteko egubakoitzean egin zuten jendaurreko lehen agerraldia. Taldearen aurkezpena eta helburuak azaldu zituzten arrasatearren aurrean.

ESANAK

## "Elkarrizketarako baldintzak sortzeko bitartekaritza lana egingo dugu Arrasateko Ahotsak taldeko emakumeok"

**Jasone Mendizabal**> Taldeko kidea

## Ahotsak taldeko kide batzuk

- Nerea Altzola
- Jasone Mendizabal
- Noelia Olabarria
- Maria Prat
- Carmen Kabiketa
- Julia Monge
- Arrate Landa
- Ikerne Altube
- Irune Iribekanpos
- Utzune Urrizalki
- Amaia Gabilondo
- Oihana Aranburu
- Aizpea Otxandiano

## Ahotsak taldeak bilera egingo du eguaztenean

Arrasateko Ahotsak emakume talde baten ekimenez sortu arren, herriko emakume guztiengana zabaldu gura dute. Horren harira, bilera irekia egingo dute eguaztenean, azaroaren 5ean, Emakume Txokoan. "Herriko emakumeei dei zabala egin gura diegu, gure taldea eta helburuak ezagut ditzaten. Gure helburuak betetzen laguntzeko gertu dauden emakume guztiak gonbidatu gura ditugu, gure asmoa aniztasun politikoa duen taldea osatzea da-eta. Mota eta genero guztietako indarkeria ezabatzeko ekarpenak egitea ezinbestekoa da", esan digute Ahotsak taldeko kideek.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 1 | Etxeberria | Zarrugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Domeka, 2 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Astelehena, 3 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Martitzena, 4 | Fdz. Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Eguaztena, 5 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Eguena, 6 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Egubakoitza, 7 | Español | Araba, 4 | 943 79 18 65 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 1 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 2 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 3 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 4 | Urritikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 5 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 6 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 7 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 1 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 2 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 3 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 4 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 5 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 6 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 7 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 1 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 2 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 3 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 4 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 5 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 6 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 7 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA (Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 03 54 00
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........943 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 1**
Eguerdi partean ostarte batzuk zabalduko dira. Tenperatura freskoekin jarraituko dugu, baina haizeak ez du oraingoan enbarazurik egingo.



**Domeka, 2**
Domekan ez da ostarterik espero. Euria gogoz egingo du eta tenperaturak antzera jarraituko dute gaur ere.

### EUSKAL HERRIAN

Ezegonkortasunarekin jarraituko dugu. Zerua estalita egongo da egunsentian eta egun amaieran; orduan espero da euria, batez ere lurraldearen hegoaldean eta ekialdean. Elur-maila 1.100-1.300 m inguruan egongo da. Domekan antzerako eguraldia izango dugu



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Egubakoitza, 24 — **2 ºC**

**MAXIMOA** Domeka, 26 — **23 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **64,8 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 22** | 12 ºC | 9 ºC | 0,2 l/m² |
| **Eguena, 23** | 16 ºC | 4 ºC | - l/m² |
| **Egubakoitza, 24** | 18 ºC | 2 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 25** | 21 ºC | 3 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 26** | 23 ºC | 7 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 27** | 16 ºC | 7 ºC | 33,9 l/m² |
| **Martitzena, 28** | 9 ºC | 7 ºC | 30,7 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA AZAROAN

| Ilgora | Ilbete | Ilbehera | Ilberri |
|---|---|---|---|
| **6** | **13** | **19** | **27** |

## oharrak eta deialdiak

OÑATI
**> Txaloka ludotekak, ate irekien jardunaldia gaur**
Inauguratu berri duten Txaloka ludoteka (Lizaur kalea, 5) ezagutzeko aukera dute gura dutenek gaur, egubakoitza, 17:00etatik 20:00etara.

BERGARA
**> 1933an jaiotakoek ospakizuna egingo dute**
1933an jaiotako bergararrak bazkaltzeko elkartuko dira azaroaren 16an Zumelaga jatetxean. Izena emateko, 6 euro aurreratu behar dira Intxorta tabernan.

BERGARA
**> 1930ean jaiotakoek kintada egingo dute**
1930an jaiotakoek bazkaria izango dute azaroaren 8an Zumelagan. Izenematea zabalik dago honako telefonoetan: 943 76 26 23 edo 943 76 22 22.

ARRASATE
**> Afrikaren gaineko bidaiak, hizpide**
Afrikako safariak eta Mauricio eta Seychelles uharteak hizpide izango dituzte Eroski Bidaietako hizlariek eguenean, hilak 6, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, 19:30ean.

OÑATI
**> Arreta gabeziaren inguruko jardunaldiak**
Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, arreta gabezia familian nola tratatu landuko du Carlos Urio adituak hainbat saiotan. Lehenengoa martitzenean, azaroak 4, izango da, Arantzazuko Ama kaleko ikastetxean, 18:30ean. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako gurasoendako da.

BERGARA
**> 1973an jaiotakoek ospakizuna izango dute**
1973an jaiotakoek Zabala jatetxean bazkalduko dute azaroaren 15ean. Izenematea zabalik dago Kortazar tabernan edo Yoar oinetako dendan, 20 eurotan, azaroaren 12a arte.

ARETXABALETA
**> Munduko dantzen ikastaroa egingo dute**
Munduko hainbat herrialdetako –Grezia, Israel, Eskozia…– dantzak erakutsiko dituzte, Jaiki elkarteak antolatutako ikastaro baten, azaroaren 15ean eta 16an. Izenematea zabalik dago: *jaikielkartea@yahoo.es* / 645 73 91 62.

BERGARA
**> 1960an jaiotakoek batera afalduko dute**
1960an jaiotako bergararrek kinto bazkaria izango dute azaroaren 15ean Lasan. Izena emateko, 10 euro aurreratu Igarza harategian edo Barrenkaleko estankoan.

BERGARA
**> Bitartekaritzaren gaineko hitzaldia**
Bizikasik eta Cim-Bitartez erakundeek honako hitzaldia antolatu dute: *Bitartekaritza: Eguneroko gatazkak eta familia bizikidetza hobetzeko tresnak*. Azaroaren 3an, astelehena, izango da Miguel Altuna institutuan, 19:30ean.

ARRASATE
**> Elizondora irteera egingo dute Abaroakoek**
Abaroa erretiratuen elkartekoek Elizondora irteera dute azaroaren 13an. Hamaiketakoa eta gaztandegi eta likore-denda batera bisita izango dituzte, besteak beste. Izenematea azaroaren 5ean da, 10:30ean. 24 euro da.

ARRASATE
**> San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleak**
San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleek afaria egingo dute azaroaren 28an, eta izenematea zabalik dago azaroaren 18a arte *jongoiko@iservicesmail.com* helbide elektronikoan eta 649 37 58 05 telefonoan. Egunean, 19:30ean batuko dira Iratin.

ARRASATE
**> 1943an jaiotako emakumeen ospakizuna**
1943an jaiotako emakumeak bazkaltzera batuko dira. Izena emateko, joan Muruamendiaratz gozotegira.

BERGARA
**> 1953an jaiotakoen kinto afaria**
1953an jaiotako bergararrek afaria izango dute azaroaren 15ean Tartufon. Izenematea zabalik dago jatetxe hartan edo Tasioren ONCEko kioskoan, 15 eurotan. Autobusa izango dute frontoitik.

BERGARA
**> 1958an jaiotakoek, 50. urteurreneko afaria**
1958an jaiotakoek 50. urteurrena ospatzeko afaria izango dute azaroaren 8an, Tartufon. Usoa kafetegian daude txartelak.

OÑATI, ARRASATE
**> Arantzazuren gaineko astea hasiko da astelehenean, eta bi ekintza izango dira bailaran**
Arantzazu Gaur fundazioak Arantzazuren gaineko hitzaldiak antolatu ditu. Eguaztenean, hilak 5, Oñatiko udaletxean hitz egingo dute Telesforo Zuriarrainek, Jose Antonio Arkauzek eta Lourdes Idoiagak; eta egubakoitzean, hilak 7, Arrasateko Kulturaten, Joxe Arregik eta Iker Usonek; biak, 19:30ean.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Hizkuntza urraketak salatzeko postontziez zer diozu?



**Begoña Elejalde**
Erretiratua
Aramaio

Ondo iruditzen zait aukera hori eskaintzea. Hala eta guztiz ere, Aramaion ez daukagu halako arazorik, Udalean denak euskaldunak dira eta. Hiriburu aldean gauzak beste modu batekoak izango dira.



**Juan Andres Elejalde**
Erretiratua
Aramaio

Nik ondo ikusten dut aukera hori. Aramaion gehiengoa euskalduna da, eta hiriburua ere euskaldunagoa dela iruditzen zait: Gasteizko Txagorritxu ospitalean Mirandako batek euskaraz egin zidan.



**Mertxe Elortza**
Langilea
Aramaio

Ondo iruditzen zait, baina Aramaion ez dago halako arazorik. Halakorik ez dut ikusi nik, behintzat, baina ni ere ez naiz egokiena, lehen hitzak askotan gaztelaniaz hasten bainaiz esaten.



**Nagore Almenar**
Langilea
Aramaio

Ez dut postontziaren beharrik ikusten; hori baino errazagoa beste pertsona horri euskaraz hitz egiteko eskatzea da. Euskal Herrian bizi bagara, logikoena da leku publikoetan euskaraz egitea.



**Ana Mari Jauregi**
Erretiratua
Aramaio

Ondo ikusten dut horrelako ekimen bat, baina Aramaion gehienok dakigu euskaraz eta ez dago arazo hori. Hiriburuetan, aldiz, euskaraz egin eta leku askotan ez dute ulertzen esaten diezuna.

txistuak



GOIENKARIA

# Masterrekako espaloian baldosak falta dira

Aste honetan Bergarako irakurle batek deitu digu, esaten herrian hainbat konponketa egiten ari direla, baina beste txoko batzuk utzita daudela; horren lekuko, Masterreka kaleko espaloia. Hura egin zutenean porlana bota zuten eta besterik ez, eta txukunxeagoa egotea eskatzen du herritar horrek, herriko beste txoko batzuk polit ipintzen dituzten moduan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

## 34

Horixe da Debagoienean joan den martitzenean egin zuen euri kopurua: 34 litro metro karratuko. Eguraldia bat-batean aldatu da eta aste honetan euria, txingorra… gogoz egiten ari da ibarreko txoko guztietan. Elurra ere hasi da zuritzen, baina oraindik ere 1.000 metrora dago.

usteak uste

**Iker Barandiaran**

# Beste kulturetatik ere ikasi

Aspaldi luze honetan Eskoriatzako berri edukitzen dut batez ere, hango albisteak egitea tokatzen zaidalako. Herri txikia bada ere, berezitasun asko dauzka: esaterako, kanpotik etorritako jende asko bizi da han. Bestalde, behin baino gehiagotan kultura edo bestelako ekitaldiekin harrituta uzten naute. Udalak antolatzen dituenez gain, herriko beste talde eta elkarte batzuek ere ekimenak egiteko ohitura handia daukate. Horien artean nabarmentzekoa da Aitzorrotz kultura elkarteak Inkernu tabernaren inguruan egiten diharduen guztia. Orain tabernako arduradunak aldatzera doaz eta lekukoa hartzearekin bat jai berezi-berezia egingo dute. Zorte on berriei!

Bestalde, gaur, eguba-koitza, ekimen interesgarria egingo dute Garabide GKEk eta Udalak Ibarraundi museoan eta Udal Bibliotekan. Lehenik eta behin, herrialde askotako indigenek umeendako ipuin kontaketa egingo dute. Horren ostean, gura duten guztiendako kafe-tertulia izango da atzerriko bisitari horiekin guztiekin. Hortaz, maien, kitxuen, maputxeen eta bestelako bisitarien kulturen gainean gehiago jakin gura dutenek aukera polita dute Eskoriatzan.

5 galdera…

# Ivan Barrigon

Urtxin loradendakoa
Oñati

**1. Bihar Domu Santu eguna da. Urtean zehar lore gehien erosten diren eguna da biharkoa?**

Domu Santuan, aste osoan zehar saltzen dira lore asko. Egunean bertan jendeak aurrez enkargu bitartez eskatutakoak hartzen ditu. Aste hau izaten da urtean loradendetan jende gehien mugitzen den astea. Nahiz eta urtean zehar ere saltzen ditugun, lan aldetik urteko asterik gogorrena izaten da.

**2. Biharko egunerako zeintzuk dira jendeak gehien erosten dituen loreak?**

Jende askok loreekin egindako zentroak eramaten ditu. Beste batzuek landareak eramaten dituzte: ziklamenak, hainbat egitura desberdin, baina gehienbat zentroak: lore ezberdinekin egindakoak edo krabelinekin egindakoak ere.

**3. Jende askok esaten du egun hauetan garesti egoten direla loreak. Prezio guztietakoak daude?**

Egun hauetan garestiagoak egoten dira loreak, egia da, baina guri ere garestiago saltzen dizkigutelako, kate bat da hori. Hala eta guztiz ere, ez da ikaragarri igotzen salneurria.

**4. Loreak erosteko orduan moda kontuak ere badaude?**

Normalean, ez. Hala eta guztiz ere, beti ekartzen dugu lore tropikalen bat, jendeari ere aldatzea gustatu egiten zaiolako; betiko krabelin, gladiolo eta margariten ordez. Aurtengo *izarren* artean loretan, helikoniak eta esterligiak dira. Saiatzen gara beti lore ezberdinak ekartzen.

**5. Lore edo landare bat ondo zaintzeko zeintzuk dira oinarrizko pausoak?**

Ureztatu behar zaionean eta argitasuna. Batzuek lorea etxeko sarreran ipintzen dute, argitasun txikia dagoen lekuan, eta hil egin daiteke. Lore sorta bat baldin bada, komeni da ura aldatzea bi egunean behin edo puntak pixka bat moztea, gutxienez zentimetro bat.



GOIENKARIA
2008ko urriaren 31



Besaide Mendi Elkarteak eskatu zuen Udalarako bidea garbi zezatela, Beteranoen Martxa (argazkian) egiteko. GOIENKARIA

**INGURUMENA** > MENDI IBILBIDEEN GARBIKETA

# Mendi-bideak garbitu eta haien gaineko inbentarioa aterako dute

Lau urtean dabil Udala mendi-bideak garbitu eta zaintzen; orain arte, udalerriko bost auzotatik pasatzen diren zazpi ibilbide garbitu ditu

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Arrasateko mendi edo landa inguruetako 65 bat kilometro bide garbitu ditu Udalak lau urteotan: zazpi mendi ibilbide, udalerriko bost auzotatik pasatzen direnak. "Garbitu den azkena da mondragoetarrek asko erabili izan duten zorbide bat, nar artean galduta zegoena. Besaide Mendi Elkarteak proposatu zuen eta oso polita da egiteko: herri barruan ateratzen da, Monterron inguruan, kanposantu gainetik Meatzerrekara doa eta handik Udalara; gero Aitaburu parajera doa, egundoko artadi ederretik. Eta buelta egin daiteke Udalatx bidetik herri barrura, errepidetik jaitsi barik", kontatu du Pello Garaik, Ingurumen Saileko teknikariak.

**BIDE-SAREA SORTU GURAN**

Hark emandako xehetasunen arabera, etorkizunari begira, garbitutako bideak garbi edukitzeaz gainera, berriak garbituko dituzte. Hori orokorrean; baina epe motzera begira, egitasmo gehiago ere badituztela aitortu du; adibidez, Gabonetarako bide publikoen inbentarioa argitaratuko dutela. Modu horretan, bide saretxo bat sortu gura dute, paseatzeko: "Horrek ekarriko du bide gehiago garbitu eta seinaleztatzea. Gero, seguru aski, azkeneko pausoa izango da plano bat ateratzea, erakusteko Arrasaten autoa herritik atera barik eta gauza handirik egin barik auzoetan bertatik bertara aisialdirako ibilbideak antola daitezkeela". Edozelan ere, udal teknikariak azpimarratu du gidak "oraingoz" ez daukala epe zehatzik.

**BIDE BERRI POSIBLEAK**

Mendi-bide berriei dagokienez, berriz, oraindik ez dituzte zehaztu zein garbituko duten hurrengo, baina badituzte ideia pare bat bueltaka: "Ikusi dugu Arrasatek joera handia duela Udalatx ingururako. Jendeak egiten duena da bide zuzenetik joan, Kaparramenditik edo Gongeta ingurutik, arinagoa delako; baina baserritarrek erabili izan dituzte beste bide batzuk belarretara, ahuntzetara joateko... ikusten dugu badagoela bide-sarea artaditik barrena egoki daitekeena". Horrekin batera, Udala eta Besaide arteko bidea erraz ibiltzeko moduan ipini gura dute.

**OSO-OSO ZIKIN**

Garaik kontatu du, oro har, mendi-bideen egoera okerra zela, "oso-oso zikin" zeudela, "narrak janda" eta asko desagertuta. Dauden beste asko, berriz, baserritarren lanari esker gorde direla argi utzi du Ingurumen teknikariak.

## Orain arte garbitutako ibilbideak

**Erregebide-Bedoña**
Musakola – Bedoña – Anbulatoriotik irten – Zubillagara iritsi – buelta osoa – Bedoñaraino – San Andrestik jaitsi kalera

**Musakola**
Institutu atzetik – Anporreta mendira – Loo baserritik behera; bide berak beste adar bat du Meatzerrekara eta handik Udalara

**Udalatxen azpiko aldea (PR)**
Udalan irteten da – Besaidera doa (goiko bidetik) – buelta beheko bidetik egiten du – Udalara iristen da

**Garagartza**
Garagartzan irten – Lisuetako kobara iristen da – Leze Txiki ingurutik jarraitzen du – Gesalibar

**Uribarri**
Lauaxeta etxean irten (Muru bidea) - Naparrena baserrira igo – buelta – Bastergain Azpiko – Bastergain Gaineko – Telleria ingurura

**Monterron (zorbidea)**
Kanposantu gaina – Meatzerreka – Udala – Aitaburu parajea (artadia) – Udalatx bidea-Udala – Larragain – Malvinak

ITURRIA: ARRASATEKO UDALEKO INGURUMEN SAILA

**DOMU SANTUA** > HILERRIRA IGOTZEKO AUTOBUSA

# Urbano zerbitzu berezia Domu Santua dela eta

Gaur eta bihar, autobus urbanoak ibilbide eta ordutegi bereziak izango ditu

**U.M.**> ARRASATE

Gaur (egubakoitza) goiza ezkero, ezohiko ibilbide eta ordutegiarekin dabil herri barruko autobus urbanoa; izan ere, bihar Domu Santu eguna da, eta San Kristobal hilerrira joan-etorria egiteko zerbitzu berezia ipini du Udalak gaur eta bihar.

**GOROSTIZATIK ATERAKO DA**

Gaurko egunari dagokionez, 10:00etan hasi da zerbitzu berezia, eta 18:00-18:20an (geralekuaren arabera) aterako da azkeneko autobusa. San Kristobaldik jaisteko azkeneko autobusa, berriz, 18:55ean izango da.

Gorostizan hasi du bilbidea, honako hauxe: Gorostiza-Erguin-Arimazubi (Bolintxo)-San Andres-Garibai-Maala-San Frantzisko biribilgunea-Legarre-Musakola-Joan Bengoa-Santa Teresa-Agarre-Obenerreka-Makatzena-hilerria. Jakina, beheranzko ibilbidea antzerakoa izango da. Geraleku batetik bestera bost minutu inguruko aldea izango du eta autobusa orduro pasatuko da: hilerrira igotzeko puntuan eta jaisteko, erdietan.

**BIHAR, AZKENA 19:00ETAN**

Zapatuko zerbitzua, berriz, 10:00etan hasiko da, eta ordu erdian behin pasatuko da geraleku bakoitzetik. Hilerrira igotzeko azkeneko zerbitzua 18:30ean aterako da, Gorostizatik. Hilerritik jaisteko azken autobusa, berriz, 19:00etan da. Ibilbideari dagokionez, gaurko ibilbide bera egingo du bihar.



San Kristobal hilerria, iazko Domu Santu egunean. GOIENKARIA

> ELKARTASUNA

### Datorren astelehenean bukatuko da boluntario ikastarorako izena emateko epea

Boluntariotzako oinarrizko ikastaroa antolatu du Hezkide elkarteak Arrasaten eta justu, datorren astelehenean, azaroaren 3an bukatuko da izena emateko epea. 12 orduko ikastaroa da, azaroaren 10, 11, 17 eta 18an egingo dutena. Helburuak dira, besteak beste, boluntario irudia bera lantzea, harremanak errazten dituzten gaitasunak lantzea eta inguruko herrietako elkarteak ezagutzea. Ikastaroa dago zuzenduta boluntario direnei zein izan gura dutenei. Doakoa da. Izena emateko: 943 31 14 74.

> EDADETUAK

### Abaroatik Elizondora joateko txangoa antolatu dute, azaroaren 13rako

Abaroa erretiratuen egoitzako udazken-negua kanpainaren barruan, Elizondora (Nafarroa) txangoa egingo dute datorren azaroaren 13an. Besteak beste, gazta-fabrika eta likore-fabrika bana bisitatuko dituzte. Horrez gainera, bingoa, dantzaldia eta partaide bakoitzarendako opari bana izango dira. Izena eman behar da azaroaren 5ean, 10:30ean, Abaroan. Hiru autobus antolatuko dituzte, beraz, Abaroakoez gainera, gainerako erretiratuen elkarteko kideek ere eman dezakete izena.

> HEZKUNTZA

## Microstation programaren gaineko ikastaroa

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak Microstation marrazteko programa informatikoaren gaineko ikastaroa egingo du azaroan. Ikastaroa ikastolako Ferixaleku gunean egingo dute, azaroaren 4an, 6an, 11n, 13an, 18an eta 20an. Hogei orduko ikastaroa izango da, eta saioak 17:00etatik 20:20ra egingo dituzte. Matrikula 200 euro da, eta, partaidetza mugatua denez, Ikastolak Euskadiko Kutxan zabaldu duen kontu korrontean dirua sartu ahala onartuko dituzte partaideak.

> YOGA

## Topaketa pertsonalak egingo dituzte Trebiñun

*Topaketa Pertsonala, norberarekin, besteekin eta ama naturarekin*; izenburu horrekin iragarri dituzte azaroaren 7an, 8an eta 9an Trebiñun egin behar dituzten yoga topaketak. Besteak beste, honako edukiak landuko dituzte hiru egun horietan: nork bere buruaren ezagutza, gorputza, adimena eta hunkipenak eta sormenaren garapena. Topaketak Trebiñun diren arren, izena Arrasaten eman behar da, hizlaria Jose Luis Armendia yoga irakaslea da-eta (943 79 35 76).

> GAZTEAK

## Haur eta gazteendako lantegiak daude bihar San Andres auzoan

Joan den zapaturako iragarrita zegoen Txatxilipurdi elkarteko Larunblai ekimena atzerartu egin zuten. Bada, Txatxilitik abisatu dute ekitaldi hori bihar egingo dutela.

Hitzordua egin dute 11:00etatik 13:00etara, San Andresen. Eta iragarri dute haur eta gazteendako lantegiak egingo dituztela.

Bestalde, gogora ekarri dute Txatxilipurdiren lan poltsa osatzeko hezitzaileak behar dituztela (943 79 54 46).

**OSPAKIZUNA** > AED ELKARTEA

# Azaroan da AED jaio zeneko 25. urteurrena

Hitzaldi-sorta egingo dute azaroan bertan, eta abenduan, nazioarteko jardunaldiak

Datorren urteko maiatzerako ekitaldi erraldoia iragarri dute: 'Denok elkarrekin'



Maiatzean, AEDren bazkide ugarirekin argazkia, Amaia antzokian. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Justu orain dela 25 urteko azaroan jaio zen Arrasate Euskaldun Dezagun elkartea. Urteurren esanguratsu horren harira dagoeneko hainbat ekitaldi egin dituzte, baina "ospakizun egitarauaren atalik potoloenak orain gauzatu" behar dituztela jakinarazi du Jose Herrartek, 25. urteurreneko koordinatzaileak.

**EUSKARAREN ETORKIZUNA**

Xehetasunen arabera, urte bukaerara bitartean hiru ekitaldi egingo dituzte. Euskararen etorkizuna oinarri hartuta, hitzaldi zikloa antolatu dute azarorako. Eta abendurako, berriz, omenaldi bat eta nazioarteko jardunaldiak iragarri dituzte.

**HITZALDI ZIKLOA**

Azaroko ekitalditik hasita, eguenero egin dute hitzordua, Kulturaten, 19:00etan, azaroaren 13an hasita. Egun horretan, Iñaki Martinez de Lunak (EHU) honako hitzaldia egingo du: *Hizkuntza gutxituak mundu globalizatuan. Eta euskara zer?* Azaroaren 20an Joserra Gartziak (EHU) *Sehaskatik Sarera. Euskararen atarramentuak Komunikazioaren Gizartean* hitzaldia egingo du. Eta bukatzeko, Josemari Velez de Mendizabal historiagileak *Ez nau etorkizunak kezkatzen* hitzaldia landuko du.

Bestalde, Euskararen Egunean, abenduaren 3an, omenaldia egingo diete AEDren sorreran ibili zirenei eta, oro har, "herri guztiari, AEDri horrenbeste urtean bizi irauteko beharrezkoa eman diolako".

**NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK**

Bukatzeko, hizkuntza gutxituen gaineko nazioarteko jardunaldiak egingo dituzte abenduaren 19an eta 20an. "Euskaraz izango dira eta espero dugu Euskal Herri osotik etortzea jendea; baina nazioartekoak dira hizlarien aldetik. Izan ere, badator Poloniatik Europan hizkuntza gutxituetan aditu bat; Kataluniako soziolinguista bat eta beste ordezkari bat ere badatoz; eta Galizia eta Euskal Herriko ordezkaritza ere izango da. Nahiko eskaintza polita da", azaldu du Herrartek. Jardunaldietarako izena emateko epea zabaltzen dutenean jakinaraziko dutela gaineratu du AEDko ordezkariak.



Agintariak, jabe berriei giltzak ematen. MIREN ARREGI

**ETXEAK** > ZERRAJERA

# Giltzak entregatuta, orain barrura

Etxeak estreinatzeaz gainera, Zerrajera inguruan kale bat ere estreinatu dute orain: Txaeta kalea

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Urduritasuna, zirrara, poza... horiek, Zerrajerako alokairuzko etxebizitzetako batean bizi izatea egokitu zaien pertsonek izan zituzten sentsazio gozoak. 100 pertsona eta familiak eguaztena ezkero dute tokatu zaien etxebizitzetan sartzeko aukera. Giltzak Arrasateko alkate Ino Galparsororen eta Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazoren eskutik jaso zituzten. Biok adierazi zuten alokairuzko etxebizitzak egun etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko modu egokia izan daitezkeela, eta horren aldeko apustua berretsi zuten.

Lau atari eta 100 etxebizitza dira Txaeta kalean eta Nafarroa etorbidean kokatuta daudenak.

IAMAI kafe ANTZOKIA ARRASATE
AZARO BERDEA
00:00etatik aurrera
azaroak 7 Mari La Vikinga TVE-ko "el rey de la comedia" saioko finalista
azaroak 14 Martín Luna Umorezko saio musikala
azaroak 21 Toño magoa (2. zatia)
azaroak 28 Angel Miralles Umorezko bakarrizketak

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontratxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

**UDALA** > JOSE LETONA BEKA

# Udalak Biteriren bizitza ikertzeko beka bideratuko du

Bekaren helburua da Pedro Biteri familia eta negozio giroan nolakoa zen jakitea

Ikerketa historiko baten bidez bere bizitzan ezezagunak diren aldeak ezagutuko dira

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasateko Udalak Jose Letona deritzon beka bideratuko du. Bekaren izena Jose Letona Arrieta idazle arrasatearraren jaiotzaren mendeurrena ospatzen delako aukeratu dute. Letona orain 100 urte jaio bazen, orain dela 100 urte hil zen Pedro Biteri Arana filantropo arrasatear ospetsua. Urteurrenak aprobetxatuz, ikerketa historikoa bultzatu gura du Arrasateko Udalak, Biteriren bizitzaren inguruan ezezagunak diren alderdiak argitaratzen laguntzeko.

**BESTE BITERI BAT**

Jose Letona bekaren helburua Pedro Biteriri buruzko ikerketa historikoa egitea da. Biteriren gainean hainbat biografia idatzi badira ere, Udalak bereziki azpimarratu nahi ditu biografia horiek jaso ez dituzten aspektuak, besteak beste: familiaren jatorria, Biteriren ikasle garaia, bere negozioen nondik norakoak, familiaren diru-ondasunak eta bizilekuak... Hau da, batetik, Biteriren inguruko giro pertsonal eta familiarra ezagutu nahi da, eta bestetik, Biteriren negozio jardunaren gaineko informazioa batu gura dute.

**EKARPENA ETA ONESPENA**

XIX. mende erdialdeko historia ekonomikoari eta sozialari ekarpena egitea da Udalaren asmoa, lokalismoen gainetik. Eta baita, noski, Pedro Biterik merezi duen onespena jasotzea.

**PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Pedro Biteri Arana Arrasaten jaio zen 1833ko uztailaren 18an, eta Biarritzen hil 1908ko maiatzaren 21ean. Oso gazte utzi zuen jaioterria Baionara joateko. Ikasketak Baionan hasi zituen eta Britainia Handian amaitu. Familia dirudunean jaio zen eta anaiaren heriotzaren ondoren familiaren aberastasun osoa jaso zuen herentzian. Aberastu egin zen eta bere dirutzaren zati bat Arrasaten inbertitzera eraman zuen.

Biterik Arrasateko hezkuntzaren alde egin zuen lan eta zenbait kalkuluren arabera, garai hartako 750.000 pezeta inguru eman zizkion Arrasateri.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

## Izena emateko azken eguna, abenduaren 12a

Deialdian jatorrizko eta argitaratu gabeko ikerketa proiektuak aurkezten dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek parte hartu ahal izango dute. Parte hartu ahal izateko ikerketa proiektuaren laburpena edo memoria egin beharko da, gehienez 20 orritan.

Honakoak dira laburpen edo memoriak bete beharreko baldintzak: lanaren helburuak, metodologia, materialak, baliabideak, unitate analitikoak eta informazio iturriak zehaztu behar dira, eta baita zein hizkuntza erabiliko den. Curriculuma ere bidali behar da. Eskabide guztiak BAZ-en entregatu behar dira, abenduaren 12ko 19:00ak baino lehen.

DATUA

**10**

**MILA EURO**

Arrasateko Udalak 10.000 euroko beka emango dio Biteriren ikerketa historikoa landu nahi duen pertsona fisiko edo juridikoari. Iraupena, gehienez, urtebetekoa izango da.



Gona eskoziarrez jantzita eromena eta izerdia izaten dira nagusi Real McKenzies taldearen emanaldietan. GOIENKARIA

**MUSIKA** > PUNK-ROCK ASTE BUKAERA

# Real McKenzies-en punk doinu eskoziarrak 3.60 aretora datoz

Gaztetxean, bestalde, herriko taldeek Rip-eko 'Portu' eta 'Mahomari' omenaldia egingo diete

**J.B.** > ARRASATE

Punk rock zalearentzat aste bukaera borobila dator. Gaur, batetik, Kanadako Real McKenzies taldeak punk ukitua duen musika eskoziarra ekarriko du 3.60 aretora, eta bihar, bestetik, herriko musika taldeek omenaldi xumea egingo diote Rip taldeko *Portu* eta *Mahoma* musikari arrasatearrei, Arrasateko gaztetxean. Beraz, musika molde berean, erabat ezberdinak diren eskaintzak izango dira; estilo bakarraren barruan aniztasuna posible den adierazle. Gaur, Eskoziako gaitez bustitako punk melodiko saio batez gozatzeko aukera izango da, eta bihar, bestalde, 1980ko hamarkadako Euskal Herriko punk doinuetara bidaiatzeko aukera emango duen emanaldiaz.

**EROMENA NAGUSI TAULA GAINEAN**

3.60 aretoko kontzertua 23:00etan hasiko da. Kanadarren aurretik Oñatiko Golpe de Estado taldeak joko du.

Real McKenzies-en emanaldiak dibertigarriak direnik ezin ukatu. Eskoziar gonez jantzita, kantu eskoziar dantzagarriz mozkortzen da boskotea, eta eszenatoki gainean eromena izaten da nagusi. Arrasatera *Off the leash* izeneko azken diskoa aurkeztera datoz. Eta euren abesti mitikoak ere joko dituzte, seguruenik.

**LIBURUGINTZA** > ITZULPENA

# Lessing ospetsu egin zuen eleberria, euskaraz irakurgai

Koro Navarrok itzuli du 'The grass is singing', Doris Lessing 2007ko Literaturako Nobel saridunaren nobela, hain zuzen

**J.B.** > ARRASATE

Martitzenean aurkeztu zen Doris Lessing idazle britainiarraren *The grass is singing* (1950) nobela ospetsuaren euskarazko bertsioa, eta dagoeneko salgai da ohiko saltokietan, 20 euroren truke.

Doris Lessing-ek Literaturako Nobel saria irabazi zuen iaz, eta sari hori irabaztearen arrazoia, neurri handi batean, *Belarra kantari* eleberria da.

Nobela hilketa batekin hasten da, eta hilketa horretara iritsi arteko bide bihurri eta zoritxarrekoa kontatzen da istorioan. 292 orritan zehar, Hego Afrikako bizimodu latz eta txiroak itota eta gizarte zorrotz arrazista baten sareak lotuta bizi den laborari zuri pobre batetik datorren emakume baten –Mary– istorio gogorra kontatzen da liburuan. Itzulpenaz Koro Navarro itzultzaile eta hizkuntzalari donostiarra arduratu da.

**BIZITZARI LOTUTAKO OBRA**

*Belarra kantari* liburuan deskribatzen den Hego Afrikaren edertasuna eta gogortasuna Lessing-en bizitzari hertsiki lotuta dago. Oso gazte joan zen Britainia Handiaren Rhodesia koloniara (egungo Zimbabwe) eta haurtzaroa bertan eman zuen. Euskaratu berri den eleberrian eta aurretik idatzi zituen bestelako idatzizko lanetan Afrikan bizitako esperientzia oso presente dago. Doris Lessing inperio britainiarraren menpe bizi zen Persian (egungo Iran) jaio zen, 1919an. Oso gazte ezkondu zen eta haurrak izan zituen.

Lessing sexu, klase eta arraza bereizkeriaren salatzaile sutsua izan zen, pertsonen duintasunaren defendatzaile ozen eta mikatza. Aldaketa sozialen alde erabat konprometitu zen, eta 1950ean, bigarren senarra utzi eta seme txikiena hartuta Londresera joan zenean, *Belarra kantari* argitaratu zuen, bere lehen obra. Lan hori, baina, lehenagotik idatzitako lan baten oinarritzen da.

**LEHENAREN OSTEAN, BESTEAK**

Lehen obraren ostean errenkadan atera zituen beste hainbat lan, urtero ia bat. Guztira, Lessing-en bibliografia 50 bat lanek osatzen dute.

# Jatetxe Gida



## Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA
943 71 45 66 www.hotelazkoagaenea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua




## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 www.etxeaundi.com

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

**Berezitasunak**
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**




## Tartufo jatetxea

San Juan Auzoa 35. Elgetara bidean / BERGARA
943 76 35 51

**Eskaintza**
- Terraza eta parrilla zerbitzua
- Eguneko menua
- Asteburuetan 20€-ko menu berezia, eta gauetan oilasko erreak bertan jan eta eramateko
- Jai pribatuak antolatzen ditugu



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**




## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

FUTBOLA > ZAURITU BAT ANOETAN

# "Lehenbailehen hau dena ahaztea da gura dudana"

Realeko zale Mila Beitia arrasatearrari aulki bat jaurti zioten joan den astean Anoetan, Castelloren kontrako partiduan

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Joan den domekan, beste askotan moduan, Mondrako presidente Jose Luis Azkarate eta haren emazte Mila Beitia Anoetara joan ziren, Realaren eta Castelloren arteko partidua ikustera.

Arrasateko bikotearendako berdegunean gertatutakoa gutxienekoa izan zen, Beitiari kolpe galanta eman zioten-eta jarleku batekin. Buruan eta bizkarrean hartu zuen kolpea, ustez 10-12 eserleku atzerago zegoen gazte batek eserlekua botata: "Bigarren zatia hasi eta hamargarren minutuan-edo gertatu zen. Ezin dut gauza handirik esan, izugarrizko mina egin zidala buruko kolpeak, eta min horren ondorioz bizkarreko kolpea igarri ere ez nuela egin. Gero, oso urduri jarri nintzen, eta anbulantziara eraman ninduten, apur bat lasaitzera eta lehenengo azterketa bat egitera".

Eserlekua bota zuen gazteak hasieratik onartu zuen gertaeraren erruduna zela, baina eserlekua ez zuela nahita bota adierazi zuen. Haren esanetan, berdegunean gertatzen zebilenagatik amorratuta, aurreko eserlekuari ostikoa eman, eta eserlekua hegan irten zen. Ertzaintzak gaztea identifikatu zuen, eta Arrasateko bikoteak salaketa jarri zuen astelehenean.

Astelehenean, baita ere, Realeko segurtasun arduradunak Beitiari deitu zion, gertatutakoa bertatik bertara ikusi zutenen testigantzak dituztela esanez. GOIENKARIAk berba egin du Realeko segurtasun arduradunarekin, kamerekin ezer grabatu zuten galdetzeko. Ez dute adierazpenik egin.



Joan den astean Urdanetaren kontrako partiduko irudia. OINTXE!

SASKIBALOIA > LEHENENGO NAZIONAL MAILA

# Partidua irabazteko zaleen babesa beharko du MUk bihar

Ligan puntu bat ere eskuratu ez duten bi talde izango dira bihar aurrez aurre Iturripen (18:00)

X.U. > ARRASATE

Bihar arratsaldean denboraldiko lehenengo puntuak batzeko aukera ezin hobea izango dute Mondragon Unibertsitateko mutilek. MUk Centro de Estudios Mikeldi talde bilbotarra izango du aurrean, eta zeingehiagoka horretan, oraindik punturik eskuratu ez duten bi talde izango dira aurrez aurre. Hori dela-eta, Arrasateko mutilek inoiz baino gehiago eskertuko dute etxeko zaleen babesa.

Biharko norgehiagokari begira, zuri-moreek joan den astean hirugarren laurdenean erakutsitako jarrera errepikatzen badute, bilbotarrek kontrario gogorra izango dute aurrean. Zati hartan Urdanetak zailtasunak izan zituen Arrasatekoei eusteko, eta markagailuko aldea txikitu zuten.

## futbitoa zaldibar

### EMAITZAK

| | |
|---|---|
| Betrayer-Total Disaster | 8-2 |
| Ekaitz Taberna-AT Celaya | 6-4 |
| HLB 108-Saukelu Kabia | 5-6 |
| Abokajarro-Iturriotz Taberna | 7-3 |
| McAwenDauen-Urza | 8-5 |
| Iluntz-Bar Aldapa | 2-3 |
| Lasagabaster-Dublin Irish Pub | --- |
| Paulaner Dribling-Equs | 5-1 |
| Cipris-Iriztu Taberna | 2-5 |

### PARTIDUAK

| Azaroak 1, zapatua | | Epaileak |
|---|---|---|
| 10:00 | Abokajarro-Bar Aldapa | Total Disast. |
| 11:00 | Saukelu Kabia-Total Disa. | Abokajarro |
| 12:00 | Lasagabaster-Iriztu Tab. | Saukelu |
| 13:00 | Betrayer-AT Celaya | Lasagabaster |
| 16:00 | Ekaitz Taberna-Iturriotz Tab. | Urza |
| 17:00 | HLB 108-Urza | Ekaitz Taberna |

| Azaroak 2, domeka | | Epaileak |
|---|---|---|
| 11:00 | Iluntz-Equs | Paulaner Dribling |
| 12:00 | Paulaner Dribling-Cipris | Iluntz |
| 13:00 | McAwenDauen-Dublin Irish | Cipris |

### SAILKAPENA

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | McAwen Dauen | 6 | 2 |
| 2. | Betrayer | 6 | 2 |
| 3. | Paulaner Dribling | 6 | 2 |
| 4. | Iriztu Taberna | 6 | 2 |
| 5. | HLB 108 | 3 | 2 |
| 6. | Abokajarro | 3 | 2 |
| 7. | Iluntz | 3 | 2 |
| 8. | Dublin Irish Pub | 3 | 1 |
| 9. | Lasagabaster | 3 | 1 |
| 10. | Ekaitz Taberna | 3 | 2 |
| 11. | AT Celaya | 3 | 2 |
| 12. | Bar Aldapa | 3 | 2 |
| 13. | Saukelu Kabia | 3 | 2 |
| 14. | Urza | 0 | 2 |
| 15. | Cipris | 0 | 2 |
| 16. | Iturriotz Taberna | 0 | 2 |
| 17. | Equs | 0 | 2 |
| 18. | Total Disaster | 0 | 2 |

SAN FELIPE APOSTOL
ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
Sociedad de Socorros Mutuos
www.sanfelipeapostol.com

Gipuzkoa etorbidea 33, behea
Tel.: 943 79 16 82
Tel./Faxa: 943 77 30 22

San Felipe Apostol Elkarlaguntzarako Elkartearen 110. urteurrena dela eta, Zuzendaritza batzordeak bazkideei eta herritarrei oro har ondoan aipatzen diren aspektuen berri eman nahi die.

**1. ERAKUNDEA** San Felipe Apostol erakundea IRABAZI ASMO GABEKO elkartea da, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Departamentuan erregistratuta dago, **1898an sortu zen** eta **12.865 bazkide** ditu.

**2. ZERBITZUAK**
San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:
- **Espaniako Estatu Barruan** egin beharreko leku aldaketak, hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea.
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Hildakoen janzte lanak.
- Auzitegian egin beharekoak. Mediku ziurtagiria
- **550** euroko dirulaguntza, hildako bakoitzagatik.
- Sarrera 40 urtera arte doan.

**3. URTEKO KUOTAK**
Titularrak: 22 €
Ezkontidea: 22 €
Onuradunak: 10,5 €

AURREIKUSTEA ONDO ETOR DAKIZUKE



**Zuzendaritza Batzordearen kideak:**
**Ezkerretik hasita:** Luis Iñarra (bokala), Jose Ignacio Elorza (Idazkaria), Iñaki Urrutia (Bokala), Agustin Garcia (Bokala), Alberto Ojanguren ( Maiorala), Agustin Etxebarria (Bokala), Jose Luis Yarza (Lehendakaria), Fernando San Miguel (Lehendakariordea), Jose Antonio Etxebarria (Diruzaina).

kanpotarrak arrasaten

**Lucia Noscovicova** > Eslovakiarra
Ikaslea

# "Pintxoak hemen ezagutu ditut eta aurkikuntza goxoa izan da"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**Doktoretza egiten dabil Noscovicova eta iraila ezkero gure artean da. Arrasatearrak atseginak direla adierazi du; hemengo janari "goxoak" eta pintxoek harritu dute bera.**

Lucia Noscovicova eslovakiarrak lau hilabete pasatuko ditu gure artean. "Neurketaren Teknologia eta Tresnerian Ingeniaritza ikasi dut. Orain doktoretza egiten ari naiz eta doktoretza horren barruan Mondragon Goi Eskola Politeknikora etorri naiz". Irail hasieran etorri zen Arrasatera eta Gabonetan bere herrialdera itzuliko da berriro. Arrasaten Erasmuseko beste hiru ikaslerekin batera bizi da etxebizitza batean.

**ESPERIENTZIA BERRI BAT**

Noscovicovak adierazi digu esperientzia berri bat izan nahi zuela eta horregatik etorri zela Arrasatera: "Esperientzia berri bat eduki nahi nuen eta beste hizkuntza bat ikasi. Gainera, ez nuen hiriburu handi batera joan nahi, eta naturaz inguratuta egon nahi nuenez, aukera egokia iruditu zitzaidan Arrasate".

**"Arrasate Bratislava baino lasaiagoa da, txikiagoa ere badelako; eta jendea ere oso atsegina da"**


Lucia Noscovicova.

Arrasate Bratislava baino lasaiagoa dela adierazi digu Noscovicovak: "Herri txikiagoa izatean, lasaiagoa ere bada, eta jendea ere oso atsegina da".

**PINTXOAK, AURKIKUNTZA BAT**

Hemengo janaria Eslovakiakoaren antzerakoa dela aitortu digu hark. "Desberdintasuna, hemen hiru plater daudela beti: lehena, bigarrena eta postrea; gainera pintxoak hemen ezagutu ditut eta aurkikuntza goxoa izan da". Euskara ikasteko denbora luzerik ez duela izango adierazi digu ,baina hitz solte batzuk ikasi ditu (eskerrik asko, kaixo, agur...). Etxekoak faltan igartzen ditu, baina Internet horretarako lagun bikaina dela esan digu Noscovicovak.

txutxu-mutxua


TXATXILIPURDI

## Gazteendako txalaparta ikastaroa antolatu zuten San Andresko gazte txoko inguruan

**Arrasateko hiru gazte txokoek txalaparta ikastaroa antolatu zuten San Andresko gazte txoko inguruan. Ikastaroaren helburua txalapartaren hastapen ikastaroa egitea izan zen. 18 gaztek hartu zuten parte eta Arrasateko txalaparta taldeko kide bik eman zuten ikastaroa. Gazte txokoak egunero irekitzen dira 17:00etatik 20:00etara eta beti egiten dituzte hainbat ekintza, hala nola eskulanak, txapelketak, ikastaroak, sukaldaritza eta baita beste mila kontu. Horretaz gain, ping-ponga, mahai futbola eta bestelakoak ere badaude gazteen eskura.**

bere ustez


**Aitor Izagirre**

## Hau, bai eta hori, ez!

Ordulariak ez ezik, politikariak ere aztoratuta ibili dira pasa den asteburuan: UPN eta PP Naparrak higuindu nahian dabiltza aspaldian, taula gainera igotzen ari diren antzezlan gogaikarriari bira eta bueltaka behin eta berriro. Bizitzan, musean bezala ezin dira karta onak izan "handitara" eta "txikitara", eta bietara hordagoa botatzen duenak, jakin badaki, joko batean behintzat, gezurra duela ahoan… Gurean, berriz, EAJ, EA, EB eta Aralar batu ziren elkarrekin, gera-

**"Zelako pozik dabilen Patxi! Nik gazteago, lerdenago eta alaiago ikusten dut aspaldion..."**

tzen zitzaien azkeneko herentzia apurra suntsitzeko asmotan-edo. Antza denez, zerbait galdetu nahi ziguten asteburuan eta Madrileko jauntxo zitalek gogoak zapuztu zizkieten, alajaina! Bailara honetako biztanleok, ordea, gustura hartuko genituzke azken urteotan beste galdeketa batzuk: autobidearen traza Eskoriatzan edo AHTren egokitasuna kasuko. Asmo horien inguruan, ordea, galderak sobera omen daude! Non dago muga? Zer da galdegarri? Zer ez? Non dago koherentzia? Hala ere, jauntxo horien aurrekontuei babesa emateko astia ere hartu dute batzuek… Eta Patxi? Zelako pozik dabilen Patxi! Nik gazteago, lerdenago eta alaiago ikusten dut aspaldion… Zergatik ote?

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
**Erakusketa eta biltegia:**
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

S. CARRASCAL S.L.
**Guk egindakoak:**
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
*Erakusketa berria*
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Idoia Ibañez
ARTISAUTZA
IKASTAROAK AUKERAN URRITIK EKAINERA!
• **Irazki harizko ehundegia**, Idoia Ibañezen eskutik
• **Ziri enkajea eta bainika**, Idoia Ibañezen eskutik
• **Eskulanak**, Edurne Uribesalgoren eskutik
• **Patchwork**, Carmen Burgosen eskutik
• **Makramea**, Idoia Ibañezen eskutik
Erdiko kale 21 - Tel.: 686 08 30 67

**ORDENANTZA FISKALAK** > 2009KO ZERGAK

# Datorren urteko udal zergak %5 igoko dira orokorrean

## Kirol tasak eta ibilgailuen gaineko zerga mantendu egingo dira

## Ur kontsumoa %5 igoko da, zaborra %10, oraingoz, eta estolderia %50

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Kontsumo Prezioen Indizea kontuan izanda, orokorrean %5 igoko dira datorren urteko udal zergak. Aho batez hartu du erabaki hori udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran. Zaborra eta estolderia dira salbuespenetako bi; zaborra %10 igoko da, baina %23ra hel daiteke igoera, eta estolderia %50 igoko da. Beste muturrean daude, adibidez, ibilgailuen gaineko zerga eta Kirol Zerbitzuak; horiek ez dute igoerarik izango.



Zabor tasa da gehien igoko denetako bat: %10. JASONE ZABALA

**ZABORRA %23RA ARTE IGO DAITEKE**

Debagoieneko Mankomunitatearen aholkuari kasu eginez, zaborra %10 igoko da datorren urte hasieran. Horrela, 20,90 euro ordainduko ditu familia bakoitzak hiru hilean behin. Baina urtea bukatu orduko beste %13 inguru igo daiteke zerga hori, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak hartzen duen erabakiaren arabera. Bestalde, estolderia tasa %50 igoko da datorren urtean: 0,285 euro metro kubikoko.

Ur kontsumoak %5eko igoera izango du. Horrela, 50 metro kubiko arteko kontsumoagatik, 0,95 euro metro kubikoko ordainduko du familia normal batek hiru hilean behin. 50 metro kubiko baino gehiago kontsumitzen badu, metro kubikoaren prezioa 1,50 eurora igoko da. Kopuru horri, gainera, 10,50 euroko tarifa finkoa gehitu behar zaio. Horri lotuta, tarifa berri bat sortuko dute ikastetxeendako. Horiek 0,95 euro ordainduko dute metro kubiko bakoitza. Mizpirualdek ere tarifa bera izango du.

**KIROL TASAK, BERBERAK**

Kiroldegi, Udal Frontoi eta igerilekuari dagokienez, aurtengo prezio berak izango dira datorren urtekoak ere. Esaterako, 18 urtetik gora dituen herritarrak 10 euro ordainduko du hilero bainuetxea erabiltzearren, 15 euro igerilekua eta gimnasioa erabiltzeko eta 18 zerbitzu guztiez gozatzeko. Kirol ikastaroetan izena ematea, aldiz, hiru euro gehiago ordaindu beharko da 2009an. Txakurtegiaren zerbitzuak eta ibilgailuen gaineko zergak ere ez dute igoerarik izango datorren urtean. Kanposantuko eta merkatuko tasak %5 igoko dira, baserritarren produktuak dituztenak salbu; horien prezioak lehengoak izango dira. Bestalde, ibilgailuak bide publikotik kendu eta Udal Biltegira eramateak 30,85 euroko kostua izango du. Mizpirualde zaharren egoitzako tasa ere %5 igoko da.

### Zerga eta tasa batzuk, kopurutan

| | | |
|---|---|---|
| Estolderia, etxeko ur kontsumoa | 0,285 € | $m^3$ |
| Hirigintza baimena (6.000-18.000 euro arteko aurrekontua) | 114,70,€ | |
| Labegaraietako kantxa osoa argiarekin, abonatua | 26,40 € | orduko |
| Euskaltegiko matrikula | 1,12 € | orduko |
| Etxeko ur kontsumoa, 50 $m^3$ arte, hiru hilean behin | 0,95 € | $m^3$ |
| Obretako eskonbroak jasotzeko ontzia | 6,70 € | eguneko |
| Lurzoru publikoan mahaiak eta aulkiak jartzea | 6,45 € | $m^2$/hileko |
| Ibilgailua Udal Biltegian dagoenean | 8,35 € | eguneko |

> OSOKO BILKURA

### Errege Seminarioa Unedek erosteko ekarpena, onartuta

Joan den urriaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran aho batez onartu zuen udalbatzak Errege Seminarioa Uned-Bergara Patronatuak erosteko Bergarako Udalak egin beharreko ekarpenaren onarpena.

Guztira 100.000 euro ordaindu beharko ditu Bergarako Udalak Patronatuan duen ordezkaritza zatiagatik (%10). Foru Aldundiak %63 dauka eta 630.000 euro ordainduko ditu eta Kutxak %27 dauka eta hari 270.000 euro ordaintzea dagokio.

> BAZKARIA

### 1976ko kintoek bazkaria egingo dute azaroaren 22an

Deialdia egin dute 1976an jaiotakoek kinto bazkaria egiteko. Bazkaria azaroaren 29an Azpeitxi jatetxean izango da. Izena eman nahi duenak Euskadiko Kutxako ondorengo kontu korrontean sartu beharko ditu 40 euro azaroaren 22a baino lehen: 3035.0009.10.0090082805.

Bazkaria 14:30ean izango da; baina bazkarira joango direnak lehenago elkartuko dira herrian zehar txikiteoa egiteko. 13:00etan Pol-Pol tabernan elkartuko dira.

> UDALTZAINGOA

### Zirkulazio aldaketak zapatu arratsaldean, lasterketa dela eta

Zapatuan, azaroak 1, Soraluze eta Bergara arteko lasterketa egingo da eta zirkulazioan aldaketak egongo dira. Bideberri eta Miguel Altuna arteko errepide zatia itxita egongo da 15:00etatik 19:00ak arte eta Miguel Altunatik palmondora bitarteko zatia 16:00etatik 17:00etara. Komeni da Fraiskozuri inguruan aparkatuta dauden autoak erretiratzea goizeko bederatziak baino lehen.







Bergarako Irizar jauregiko albo batean frantziar estiloko lorategiak daude. IMANOL SORIANO

**HIRIGINTZA** > LORATEGIEN ALDEKO EKIMENA

# Lorategi historikoak babesteko plataforma dago herrian

Ekimen horren helburua da herriko hainbat lorategi historikok duten utzikeria herritarrenganaino eramatea, besteak beste

JASONE ZABALA > BERGARA

Hiriguneetako berdeguneekin arduratuta dauden herritar batzuek Bergarako Lorategi Historikoen Ekimena (BLH Ekimena) plataforma bultzatu dute, Bergarako lorategi historikoak babestu eta berreskuratuak izan daitezen. BLH Ekimenean dauden herritarrek hauxe diote: "Bergarako lorategi historikoen etorkizun zalantzagarriarekin arduratuta gaudela adierazi nahi diogu iritzi publikoari".

Elkartekoek adierazi digute Gipuzkoako lorategi historiko gehienak desagertu egin direla, baina "Bergaran oraindik batzuk" ditugula eta "balio handia dutela eta zaindu egin behar direla". Elkarteko kideek urteak daramatzate gure lorategi historiko publikoen "babesa eta kudeaketa egokia bultzatzen". 2006an, Udalaren partetik erantzun egokirik ikusten ez zutenez, Eusko Jaurlaritzari eskatu zioten Errekalde, Irizar eta Untzeta jauregietako lorategiak babestea.

**ETXE GARRANTZITSUAK DESAGERTU**

Hauxe diote: "Kezkagarria da gure herriko historian zehar ondarezko balio handia zuten gune, fatxada eta monumentuekin egindako akats tamalgarria".

Horren lekuko, "1919an Bidekurutzetako Zabala etxea ospetsuaren desagertzea edo Errotalde jauregiko balio garrantzitsua zuen lorategi historikoaren etengabeko degradazioa", adierazi dute.

Taldeak ekimen horrekin bi urte inguru daramatza, baina kezka urrunagotik dator. Taldearen arabera, aipatutako ekimenaren aurrean udal agintarien aldeko erantzunik ez dute jasotzen eta babesa ez da iristen. Taldeak uste du arduragabekeria larria izango litzatekeela, utzikeriagatik edo kalkulu politiko hutsagatik, Errekalde edo Untzeta lorategi historiko bezala betiko galtzea. "Horiek gure belaunaldiak jaso dituen guneak dira, Bergara berebiziko toki eta bizi izateko leku atsegina egiten dutenak", esan dute.

**EKIMENAREN INFORMAZIOA**

Ekimenaren inguruko informazio gehiago jaso nahi duenak *www.blhekimena.org* webgunean sartzeko aukera dauka: "Egiten ari garen ahalegina zein den ezagutu eta guztion artean Bergaran kalitatezko gune publikoak, atseginak eta bizi izateko intesgarriak izan ditzagun".

**GAZTEAK** > GOIKO ESTAZIOA

# Jamen entseatuko dute taldeek, obrek dirauten artean

Abenduaren 1ean hasiko dituzte goiko estazioko obrak eta apirila bitartean, Jam aretoan entseatuko dute musika taldeek

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Udalak eta Jam aretoak adostu dute goiko estazioko obrek irauten duten bitartean taldeek Jam-en entseatzea. Duela aste batzuk hasi ziren alde biak aukera hori aztertzen eta joan den asteko eguenean egin zuten bileran hartu zuten erabakia.

**GAZTEEN ANTOLAKUNTZA**

Goiko estazioko eraikina konpontzen abenduan hasiko dira eta bost hilabete iraungo dute lanek. Horrela, apirila bitartean Jam aretoa erabili ahal izango dute herriko musika taldeek entseguak egiteko.

Areto guztia izango dute libre erabiltzeko. "Goiko aretoa zein beheko agertokia, dena erabili ahal izango dute, egunero 10:00etatik 22:00etara. Muga kontzertuek jarriko dute. Kontzertua dagoenean ezingo dute aretoa erabili. Horixe da baldintza bakarra", dio Jam aretoko kide batek. "Entseguak gazteek antolatuko dituzte. Eurek erabakiko dute zeinek, noiz eta zein ordutan entseatzen duen non. Ordu berean talde batek baino gehiagok jotzeko aukera egongo da, Jam-en tokia dagoeta horretarako, baina taldeen esku gelditzen da hori guztia antolatzea", jarraitu du.

**HASI DITUZTE LANAK**

Dagoeneko hasi dituzte goiko estazioko lanak. "Orain arte ez da urik egon eta ura eramateko azpiegitura jartzen hasi dira; hodiak pasatzeko bidea egiten, alegia. Eraikinarekin aurrerago hasiko dira, baina lan horiek egin aurretik, ingurua txukundu eta behar diren azpiegiturak jarri behar dituzte", dio Nagore Narbaizak, Udaleko Hezkuntza teknikariak.

Eraikin eraberrituan herriko musika taldeek entseatzeko zortzi gela egongo dira, behar bezala egokituta, paretak intsonorizatuta, eta baita komunak ere. Lan horiez gain, argindarraren instalazioa ere berriztatuko dute.

LANAK

## Abenduaren 1erako hustu beharko dute goiko estazioa

Abenduaren 1ean hasiko dira goiko estazioko eraikina konpontzen. Ordurako bukatuta izango dituzte kanpoan egin beharreko lanak eta eraikina eraberritzen hasiko dira. Horretarako, hutsik egon behar du erakinak. Egun goiko estazioan entseatzen duten taldeek, beraz, abenduaren 1a baino lehen atera beharko dituzte euren tresnak handik.

Udalak gutuna bidaliko die taldeei data hori gogoraraziz, baina ez dute gutunaren zain egon beharrik eraikina husteko. Lanek apirila arte iraungo dute, bost hilabete.

# 1943an jaiotakoak Hondarribira egun pasa

Pasa den urriaren 25ean Hondarribira egin zuten txangoa 1943an jaiotakoak. Guztira 45 pertsona joan ziren. Hondarribira heldu zirenean katamaranean ibili ziren ordubete inguru. Bertan, Txingudiko bahia ikusi zuten, Igerreko faroa eta baita portua ere. Ondoren txikiteoa egin zuten eta bazkaltzera Beheko Errota jatetxera joan ziren. Ostean, Guadalupeko elizara joan ziren guztiak. Amaitzeko, Lezo bisitatu zuten. Egun polita pasa zuten bertan bildu zirenek.



CARLOS ARRONDO

**MUSIKA** > BELCEBLUES

# Disko bortitza, zuzena eta sendoa atera du Belcebluesek

Azaroaren 7an Bergaran aurkeztuko dute diskoa, plazako Galway's tabernan

Bederatzi abestiz osatutako lana da; euskaraz eta ingelesez abesten dute



Bergarako hirukoteak eguaztenean aurkeztu zuen lan berria. GAZTELUPEKO HOTSAK

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
*Infer* lehen lanaren aurkezpena egin zuen Belceblues taldeak eguaztenean Donostian. Asier Elortza, Ibon Larrañaga eta Oihan Vega taldekideak izan ziren aurkezpenean, Gaztelupeko Hotsak etxeko arduradun Ubane Uzinekin batera.

2008ko neguan hasi ziren grabaketa lanekin Bergarako Xarti eta Aimar estudioetan. "Arazoak tarteko, uste baino luzeago joan da dena", esan digu Oihan Vegak. Ia urtebeteren ondoren, bederatzi abestiz osatutako lana atera dute. Abestiak euskaraz eta ingelesez abesten dituzte.

**BLUESA EUSKARAZ**
Euskal Herrian bluesa euskaraz egiten duen talde bakarrenetarikoa izango da Belceblues. "Lehenago bazegoen Arima Beltza taldea, baina orain bluesa euskaraz egiten dugun bakarrenetarikoak izango gara, bakarrak ez bagara", dio Vegak.

"Diskoa erosten duenak blues berria aurkituko du; orain arte jorratu ez dena", adierazi du Vegak. Soinu zuzena, bortitza eta sendoa du bergararren lanak. "Iraganean izan dugun ukitu heavya argi nabaritzen da diskoan. Gainera, beste estilo batzuk nahastu ditugu; funkya, esaterako", esan digu Vegak. Hauxe gaineratu du: "Ohi ez bezala, hiru ahotsetan abesten dugu, eta, gainera, euskaraz".

**'INFER' IZENA**
Diskoaren izenarekin eta diskoarekin berarekin "garaia baino lehenago infernura joan direnak" omendu gura izan ditu Bergarako hirukoteak. "Bereziki, Infernukua tabernako Javiri eskainia dago", dio Vegak.

Diskoa grabatzerakoan hainbat lagunen laguntza izan dute: Satan Asses haize taldea eta Enrike Txurruka, esaterako.

**BERGARAN JOKO DUTE**
Azaroaren 7an (egubakoitza) Bergarako plazako Galway's taberna irlandarrean joko du Belcebluesek. Diskoa herrian aurkezteko aukera izango dute, hortaz.

Bestalde, beste hainbat kontzertu hitzartu dituzte datozen egunetarako.

Belceblues taldeak Danbakako bigarren edizioan parte hartu zuen; gainera, finalera iritsi ziren. "Taldearentzat esperientzia ona izan zen, motibazioa piztu zigunea", diote. Diskoa ateratzeko, baina, lana gogor egin behar izan dutela dio hirukoteak.

KONTZERTU DIDAKTIKOAK

## Bluesa ezagutzera emateko ahalegina

Bergarako hirukotearen nahia bluesa ezagutzera ematea da. Horretarako, kontzertu didaktikoak egiteko asmoa dute. Orain arte egin dituztenak esperimentalak izan dira; eta Elorrion azaroaren 12an egingo dute lehenengo kontzertu didaktikoa.

"Beti musika bera entzuten dugu; euskal kultura musikala oso pobrea dela uste dugu. Horretarako, munduak eskaintzen dituen beste musika horiek ezagutarazi nahi dugu. Bluesa horietako bat da", azaldu du Vegak. Edozein adini zuzendutako kontzertuak dira, bereziki 12 eta 16 urte bitarteko haurrei.

> IKASTAROA

### Masaje ikastaroan izena emateko azken eguna gaur da

Jardun euskara elkarteak masaje ikastaroa antolatu du azaroaren 4, 6, 11 eta 13rako. Ikastaroan izena emateko azken eguna gaur da, urriaren 31. Masaje ikastaroan parte hartu nahi duenak Jardun elkartera deitu beharko du –943 76 36 61–.

Ikastaroak bi orduko iraupena izango du: 19:00etatik 21:00etara izango da aipatutako egunetan. Ikastaroan parte hartzeko 17 euro ordaindu behar dituzte Jarduneko bazkideek eta 20 euro gainontzekoek.

> LIBURUTEGIA

### Munduko ipuin kontalariak Udal Liburutegian

Gaur hasi eta abenduaren 12ra arte, egubakoitzero, 17:45etik 18:30era 4-6 urte bitarteko haurrentzat Leire Iruin izango da ipuinak kontatzen haur liburutegian.

Bestalde, nagusiei zuzenduta astelehenean, azaroaren 3an, ipuin kontaketarekin gozatzeko aukera egongo da. EPAko ikasleei zuzendutako ekimena izango da. 15:30etik 17:00etara izango da, Udal Liburutegiko erakusketa gelan, *Liburutegiak topaleku* kanpainaren barruan.

> ERAKUSKETA

### Muniategiren lanak azaroaren 7tik Aroztegi aretoan

Azaroaren 7an, Manu Muniategiandikoetxea margolariaren lanak jarriko dituzte Aroztegi aretoan. Egubakoitzean hasi eta azaroaren 30era arte egongo dira ikusgai lanak.

Orain, Mari Paz Alustiza bergararraren lanak daude erakusgai. Gogora ezazue ordutegia: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta, domeka goizetan.

Almacenes MAHER
ETXERAKO ARTIKULUAK
Izarak, funda nordikoak, mantak, toallak, sukaldeko trapuak, etab.
eta AZAROtik aurrera
ALZA
sukaldeko tresneria
FABRIKAKO PREZIOAK!
Bidekurutzeta 29 Bergara



altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
K21
arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak


erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10


San Martin Agirre
herri eskola
GUK
SAN MARTIN
Herri eskola
Bergara
"Gaztainerre eguna"
Azaroaren 7an ospatuko
dugu Eskolan
Arratsaldeko 4retan, ikasle eta irakasleok
patioan elkartuko gara gaztainak jateko.
4:30ean, gure senitartekoek ere izango dute
aukera gurekin gaztainak jateko.
2008


Euskalduna
Hileta Zerbitzuak
BEILATOKIA
ETENGABEKO ZERBITZUA
LORE KOROAK
ESKELAK
TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA
bai euskarari
zerbitzua euskaraz
Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

TXIRRINDULARITZA

# Azaroaren 22an batzar orokorra egingo dute

**J.Z.** > BERGARA

Denboraldi amaierako azken irteera pasa den domekan egin zuten txirrindulari elkarteko zikloturistek. Denboraldiko azken 70 kilometroak izan ziren. Gatzagako Dorletako Ama Birjinari egin zioten lore eskaintza, hura koroatu zuteneko 50. urteurrena bete denean.

**BATZARRA ETA AFARIA**

Denboraldiari amaiera emateko, azaroaren 22an batzar orokorra egingo dute Zuloa elkartean (19:30ean). Ondoren, Azpeitxi Jatetxean egingo dute afaria. Horretarako, izena eman nahi dutenek bi lekutan egongo da aukera: Igartua dendan eta i2 Kirolak dendan.

> PEDALAREN EGUNA

## Lokatzak Pedalaren Eguna ospatuko du azaroaren 22an

Lokatza Txirrindulari Elkarteak Pedalaren Eguna ospatuko du azaroaren 22an, eta afaria egingo dute Bergarako txirrindulari elkartean aritu diren hainbat txirrindularirekin batera.

Afaria Lokatzarekin harremana izan duten lagun guztiei dago zuzenduta, eta animatzen denak 25 euro sartu behar ditu –azaroaren 15a baino lehen– Euskadiko Kutxako 3035 0189 31 1890013987 kontu korrontean. Informazio gehiago 649 69 33 02 telefono zenbakian edota *lokatza_ze@hotmail.com* helbidean duzue.



BTLSk azken lau porrotak ahaztu behar ditu eta sailkapenean gora begira hasi, poliki-poliki. GOIENKARIA

**FUTBOLA** > 1. ERREGIONALA

# Antzuola-BTLS derbia eta Bergara-Ilintxa partidua, bihar

BTLS azken lau porroten ondoren garaipenaren bila joango da Antzuolara; Bergara, aldiz, Ilintxaren aurka lidergoari eraso egitera

**JASONE ZABALA** > BERGARA

BTLS taldea, joan den asteburuan Lagun Onak liderraren aurka etxean galdu ondoren, sailkapeneko beheko postuei begira jarri da (11. postuan; 7 puntu). Azken lau partiduak galdu ostean, itxura hobea eskaini nahiko dute, partidu bakarra irabazita dagoen Antzuolaren aurka (azkena doa sailkapenean, 16. postuan; 4 puntu). Julen Aranburu eta Ibai Igartzaren mutilek aukera ezin hobea daukate bihar 16:30ean Estalan jokatuko den partiduan polikipoliki goiko postuei begira hasteko. BTLSko Jose Luis Beitia arduradunak adierazi digunez, "partidu gogorra eta tentsio handikoa izango da. Taldea ondo dabil, aukerak sortzen ditugu, baina ez dugu golik sartzen, eta hiru puntuen beharrean gaude".

**BERGARAREN AUKERA**

Bergara KE taldeak, bestalde, beste aukera bat dauka bihar (Agorrosin, 15:45) lehen postuari begira jarraitzeko (2. postua, 17 puntu). Beheko postuetan dagoen Ilintxaren bisita izango dute. Manu Diazen mutilek, nahiz eta pasa den asteburuan Mutrikuren aurka (4. postuan, 16 puntu) berdinketa lortu, bigarren postuan jarraitzen dute, Lagun Onak liderrarengandik (lehenengoak, 19 puntu) bi puntura. Partidu zaila izango da bergarararrendako, baina aukera ezin hobea lidergoari eraso egiteko. Manu Diaz Bergarako taldeko entrenatzailearen arabera: "Biharko partidua gogorra izango da, Ilintxa gora doan taldea delako. Sailkapenak erakusten duena baino egoera gehiago da eta pasa den urtean egoera berean berdinketa lortu zuten hemen".

Gainera, Aretxabaleta B taldeak Azpeitiara joan beharko du Lagun Onak taldearen aurka jokatzeko. Handik zerbait positiboa ekartzen badute aretxabaletarrek, Manu Diazen mutilendako mesede galanta izango litzateke lidergoaren borrokan; hori bai, Zestoa (hirugarren) eta Mutriku (laugarren) taldeek jokatuko duten partiduan gertatuko denari begirik kendu gabe.

## Labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Carboneros-Irubide | **10-0** |
| Internacional-Los Blus | **4-4** |
| CM Errotagain-Irish Pub | **1-0** |
| Carboneros-Irish Pub | **10-3** |
| Monte Taberna-UD Akabaoak | **1-19** |
| Diego Valor-Niu Tim | **3-6** |
| Zigalikatis-Belengua | **4-5** |
| Los Latinos-Komando Pip. | **11-5** |

**PARTIDUAK**

| Azaroak 2, domeka | | Epaileak |
|---|---|---|
| **12:00** | Los Latinos-Irubide | **Irish Pub** |
| **13:00** | Irish Pub-Belengua | **Los Latinos** |
| **16:00** | Akabaoak-Los Blus | **Diego Valor** |
| **17:00** | Diego Valor-Carboneros | **Internac.** |
| **18:00** | Zigalikatis-Internacional | **Monte Tab.** |
| **19:00** | Monte-Komando Pip. | **Zigalikatis** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | U.D Akabaoak | 15 | 5 |
| **2.** | Carboneros | 15 | 5 |
| **3.** | Los Latinos | 15 | 5 |
| **4.** | CM Errota-gain | 11 | 5 |
| **5.** | Zigalikatis | 10 | 5 |
| **6.** | Komando P. | 9 | 5 |
| **7.** | Belengua Taberna | 9 | 5 |
| **8.** | Diego Valor Ilea | 6 | 5 |
| **9.** | Internacional | 4 | 5 |
| **10.** | Los Blus | 3 | 5 |
| **11.** | Niu Tim | 3 | 5 |
| **12.** | Irubide Taberna | 1 | 5 |
| **13.** | Irish Pub | 0 | 5 |
| **14.** | Monte Taberna | 0 | 5 |

### Carboneros taldea ere lidertzan

Bost jardunaldi jokatuta, hiru talde dira sailkapenean buru, 15 punturekin: Akabaoak, Carboneros eta Los Latinos. Errotagainek ere hurbil ditu goiko postuak eta partidurik galdu gabe laugarren postuan dago. Ikusitakoa ikusita, faboritoen artean lehen laurak sar ditzakegu. Joan den asteburuan ere ikusi zen Akabaoak taldearen nagusitasuna nolakoa den, eta partidurik irabazi ez duen Monte tabernari 19 gol sartu zizkion.




# Osasuna

Egubakoitza / 2008ko urriaren 31 / **Arduraduna:** Leire Kortabarria / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga




ARGAZKILARIA: GOIENKARIA

ZURE OSASUNAREN GIDARI
BioQiros
MEDIKUNTZA BIOLOGIKOKO ZENTROA
elikadura energetikoa
jarduera fisikoa
terapia zerbitzuak
Ayurveda, Osteopatia,
Chi-Kung terapeutikoa,
Homeopatia, HESA antitabakoa...
adimen jarduerak
Tai Chi, Hatha Yoga,
Pilates, Musikoterapia...
odol analisiak
Zelaeta Berri 3
943.027.661
www.bioqiros.com
BEASAIN

■ KIROPRAKTIKA

# Modu naturalean osasuna berreskuratu eta zaintzeko

JASONE ZABALA

**Gaixoaren erresistentzia-ahalmena indartzea eta gaixotzeko joerari aurre egitea dira kiropraktika-zaintzaren helburuak. Kiropraktika ez da mugatzen mota jakin bateko gaixoetara, pertsona guztiei aplika dakieke. Garrantzitsua ez da sintomarik duen edo ez, ez du-eta sintomarik sendatzen.**

Kiropratika gure artera duela asko iritsi den metodoa da. Gorputza bere osotasunean hartzen duen filosofia holistikoa da eta gaixoaren erresistentzia-ahalmena indartzea eta gaixotzeko joerari aurre egitea du helburu.

Zientzia, arte eta filosofia sendatzaile holistikoa den aldetik, kiropraktika ez da mugatzen mota jakin bateko gaixoetara; pertsona guztiei aplika dakieke kiropraktika, ez du garrantzirik sintomarik duen edo ez, kiropraktikak ez du-eta sintomarik sendatzen.

**ZER DA KIROPRAKTIKA?**
Kiropraktika zer den bere buruari galdetzen dionak jakin behar du pertsona askok kiropraktika erabiltzen dutela modu naturalean zaintzeko, medikamentuak erabili gabe sendatzeko edo osasuntsu egoteko. Asma arazoak izan dituen neskatila batek zera galde dezake: "Arnasketarako balio du kiropraktikak?". Emakume batek erantzungo dio: "Hilerokoaren arazoetarako da kiropraktika". Bizkarreko arazoetarako, burukominetarako, hobeto lo egiteko edo gizakiak izan ditzakeen beste gaitz batzuetarako balio dezake. Zenbaitek kiropraktikoa bisitatuko dute energia handiagoa izateko, kirola egiterakoan errendimendu fisikoa hobetzeko, gaixotasunei aurre egiteko edo burua zaintzeko.



Kiropraktikoak bizkarrezurreko azpi-lokadura izeneko nerbio-interferentzia batzuk antzeman eta zuzentzen ditu. GOIENKARIA

**Kiropraktikak bizkarreko arazoetarako edo hobeto lo egiteko balio dezake**

**Kiropraktikoak bizkarrezurreko nerbio interferentziak zuzentzen ditu**

**Diziplina hori edozein pertsonarendako izan daiteke onuragarria**

**ZER EGITEN DU KIROPRAKTIKOAK?**
Garrantzitsua da jakitea kiropraktika ez dela erabiltzen inolako gaixotasunik tratatzeko, baizik eta osasuna berreskuratzeko eta mantentzeko; hau da, nerbio sistemak ondo funtzionatzeko. Kiropraktikoak bizkarrezurreko azpi-lokadura edota azpi-luxazio izeneko nerbio-interferentzia batzuk atzemateko eta zuzentzeko prestaturik daude. Interferentzia horiek galarazi egiten dute nerbio-bulkadak egoki igortzea burmuinetik gainerako gorputz ataletara, eta gorputzaren funtzionamendu egokia eragozten dute. Bizkarrezurreko azpi-luxaziotik libre, gorputzaren egokitze-ahalmena bere onera dator.

**GORPUTZAREN JAKITURIA**
Kiropraktika edozeinendako izan daiteke onuragarria: haur jaioberriendako, hirugarren adinekoendako, ama izateko direnendako, kirolariendako eta zirkulazio istripuko kaltetuendako. Guztiek izan dezakete bizkarrezur eta nerbio sistema osasuntsuak.

**GORPUTZAREN JAKITURIA**
Biziari eusten dion barne-jakituria dauka gure gorputzak. Kiropraktikan barruko medikua deitzen diogu berezko adimen horri.

Horrek nerbio-sistema erabiltzen du komunikatzeko eta baita gure gorputz-funtzioen oreka antolatu eta mantentzeko; presio arterialaren, oxigenazioaren, tenperaturaren, pentsamenduaren, zentzumenen, immunitate-sistemaren, digestio-aparatuaren, giarreen, zelulen birsorkuntzaren eta abarren oreka zaintzen du.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da berezko adimenaren adierazpena erabatekoa izatea, oztoporik gabea, gorputzeko atal guztien artean ahalik eta komunikazio hoberena izateko. Kiropraktikan garrantzi handia ematen zaio berezko adimenaren eta nerbio-sistemaren arteko loturari.

Nerbio-sistemaren funtzionamendu egokia galarazten duen alterazio oso arrunta da bizkarrezurreko azpi-luxazioa. Oztopatu egiten du burmuinaren eta gorputzaren arteko mezuen komunikazio egokia; ondorioz, egokitze-ahalmenak galtzen ditu gorputzak eta txarrera egiten du osasunak.

Zaintza kiropraktikoari esker, gaitasun handiagoa dauka gorputzak berak sendatzeko, bizitasuna adierazteko eta uneoro aldatzen dagoen mundu honetara egokitzeko.

Felsinee
www.felsinee.net
IBARGARAI ETORBIDEA 17, BEHEA
20570 BERGARA
Tel.: 943 53 44 53
FISIOTERAPIA eta ERREHABILITAZIOA - FISIOTERAPIA OBSTETRIKOA
ERREHABILITAZIO UROGINEKOLOGIKOA - TECARTERAPIA - R.P.G
ETXEZ-ETXEKO FISIOTERAPIA - PODOLOGIA - ELIKADURA eta DIETETIKA

■ PODOLOGIA

# Oinetako erosoak, oinak zaintzeko


Udan oinak aireztatzea aholkatzen dute podologoek. GOIENKARIA

MIREIA BIKUÑA

**Maskurrak (kalloak), oinetako onddoak, papilomak eta azazkaletako mina dira oinetako gaitzik ohikoenak. Hauek saihesteko, oinetako erosoak erabiltzea aholkatzen dute podologoek. Jeneralean, emakumeak dira oinetako gaitzak gehien sufritzen dutenak.**

Oinetako gaitzak laburbiltzea ez da erraza, baina orokorrean lau dira gaitzik arruntenak: maskurrak, onddoak, papilomak eta azazkaletako gaitzak. Guztiak tratatzeko podologoarengana joan behar dugu.

**MASKORRAK EMAKUMEETAN**

Maskorrak izaten dituztenen gehiengoa emakumeak dira, agian oinetako estuagoak erabiltzen dituztelako. Takoia erabiltzen duten emakumeendako aholkua ematen dute adituak: 4-6 zentimetro arteko takoia erabili beharko dute. Handiagoak direnek eragin zuzenagoa dute oinengan. Maskorrak oinaren azpialdean eta inguruan sortzen dira, batez ere, oinetakoarekin urratzen dira-eta.

Azazkaletako gaitzen inguruan adituek diote, batez ere, hatz potoloa eta txikia direla horiek sufritzen dutenak. Azazkala okelan sartzen bada, ebakuntza egin behar dute espezialistek.

**PAPILOMAK GAZTEETAN**

Gazteengan geroz eta gehiago hedatzen den gaitza papilomak dira. Birusa da eta kutsatu egiten da; besteak beste, igerilekuetan, aldageletan eta dutxetan. Hortaz, toki horietan oin hutsik ez ibiltzea gomendatzen dute.

**PODOLOGOARI BISITA**

Oinak gorputzak dituen atal inportanteak dira eta, aldika, podologoari bisita egitea aholkatzen dute adituek. Mina sentitzen dutenek azkar joan behar dute kontsultara.

Udaberrian eta udazkenean sufritzen dute gehien oinek, batez ere, oinetako aldaketa egiten dugunean. Aldaketa hain bortitza ez izateko, zainketak egin behar direla diote podologoek: oinak hidratatu, oinetako erosoak erabili eta bustita daudenean ondo sikatu. Oinetako erosoak erosi behar ditugu, oina eroso joateko. Gainera, oina ondo lotuta joatea aholkatzen dute: orpotik ondo lotuta, alegia. Udan, berriz, sandaliak erabiltzea gomendagarria da, oinak aireztatzeko.

Oinak zaindu behar direla kontzientziatzen hasi da jendartea; batez ere, kirolariek zaintzen dituzte oinak. Gaizki zapaltzen badute, etorkizunean min hartuko dute belaunean. Bestalde, izerdi asko egiten dutenez, oinak ondo sikatu eta kremarekin hidratatzen dituzte. Ohitura bihurtu da hori kirolarien artean.

**DIABETIKOEN ARAZOA**

Oinetako gaitzak asko areagotzen dira diabetikoen kasuan. Hortaz, kontu aldiz zaindu behar dituzte oinak, eta kontrol zorrotzagoak egiten dituzte. Gaitz hori dutenek zentzumen-organoetan eta odol zirkulazioan gabeziak dituzte. Batzuetan, zauriak egiten dituzte, eta ez dute minik sentitzen. Horregatik guztiagatik, zainketa zorrotza egin behar dute.

Baina, diabetikoez gain, guztiok zaindu behar ditugu oinak. Guk geuk izan behar dugu gure oinen sendagile.

Zure osasuna, zure etorkizuna

eTORKIZUN

•PSIKOLOGIA / TERAPEUTA
Sara Vitoria
658 72 09 87 / 943 03 64 04

•PSIKOLOGIA / TERAPEUTA
Olatz Zubia
629 17 81 88

•IVEF liz. / KIROMASAJISTA
Juan Ignacio Errasti
669 62 41 75

•DIETETIKA / ELIKADURA AHOLKULARITZA
Leire Ezkurra
626 96 68 45

•FISIOTERAPIA / OSTEOPATIA
Naiara Berezibar
669 05 80 33

•KONTSULTORA
Metalock ingeniaritza teknikoa
690 63 52 26

Otalora lizentziaduna 18, solairuartea, ezkerra 638 17 93 63

Ana Etxeberria

• Akupuntura
• Masajea
• Osteopatia

Errekalde 6 behea ANTZUOLA
Tel.: 943 76 60 13

■ MUGIKORTASUNA

# Eskailerei aurre egiteko moduak

ARANTZAZU EZKIBEL

**Jendartea gero eta arduratuago dago oztopo arkitektonikoak saihesteko. Gure ibarrean ere, oztopo horiek kentzeko ahaleginak handiak dira. Bestalde, etxe askotan igogailuak edo antzerakoak jartzen dihardute.**

Orain arte oztopo arkitektoniko asko izan ditugu gure ibarreko herrietan. Hori, baina, polikipoliki aldatzen doa. Izan ere, ibarreko udalek oztopo horiek kentzeko ahaleginean dihardute. Baina, kaleko oztopoez gain, badira etxean ditugun oztopoak ere. Oraingo etxe guztiek igogailua izan arren, lehenago, igogailu barik egiten ziren etxe mordoa.

Horren harira, badirudi herritarrok oztopo horiekin lotuta gero eta kontzienteagoak garela; eta badira etxean igogailuak edo bestelako gailuak jartzen dituztenak.

**EGOERAREN ARABERAKOAK**

Igogailua jartzeko tokirik ez duten etxebizitzendako hainbat irtenbide eskaintzen ditu gaur egun merkatuak, eta horietako bat plataforma bertikalak dira: horien bidez, hiru metro eta sei metro arteko tarteak igotzeko aukera dago eta, hala, pertsona nagusiak edo ezindu fisikoak dauden etxeetarako egokiak dira, eta adinekoek bizi-kalitatean irabazten dute. Baliagarriak dira, gainera, ataritik igogailurainoko bidea egiteko; edo duplex baten goiko solairura igo ahal izateko.

**OBRA BARIK**

Eskaileretako tokia txikiagoa denean, beste mota bateko irtenbideak aurkitu behar dira. Kasu horietarako egokiak dira plataforma inklinatuak eta eskailerak saihesteko jarlekuak. Eskaileretako barandari lotuta jartzen dira eta ez dute obra beharrik; horregatik, jartzeko erosoak dira.

Eskailerak saihesteko jarlekuak egokiak dira nagusiendako. Kalean gurpildun aulkiaren beharrik ez izan arren eskailerak igotzeko zailtasunak dituztenendako pentsatuta dagoen gailua da.



Oztopo arkitektonikoak saihesteko aukera asko daude gaur egun. GOIENKARIA

Elevalift
IRIBAR 2 - C-36 pabilioia
P.A.E. NEINOR
20018 DONOSTIA
Tel.: 943 21 48 08
www.elevalift.com
• Elbarrientzako sarrerarako eskailera-igogailuak eta plataforma bertikal eta inklinatuen instalazioa
• Eraikin zaharretan igogailuen instalazioa
• Traba arkitektonikoen ezabatzea
• Gremioen koordinazioa
• Dirulaguntzen gestioa eta aholkularitza



■ PSIKOPEDAGOGIA

# Arazoa onartu, baloratu eta laguntza koordinatua eman

JOKIN BEREZIARTUA

**Hitzak berak dioenez, psikologia eta pedagogia uztartzen dituen zientzia da psikopedagogia. Zentro psikopedagogikoek hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte, psikopedagogiak hamaika adarrekin du-eta lotura: besteak beste, estimulazio goiztiarra, eskola arazoen trataera eta logopedia eta psikomotrizitatea lantzeko zerbitzuak.**

Psikologia eta pedagogia: psikopedagogia bi zientzion espezializazioa da, eta era berean, hainbat arlori dagokion zientzia zabala ere bada. Ikusi besterik ez dago psikopedagogia zentroek gaur egun eskaintzen dituzten hamaika zerbitzuak, psikologia eta pedagogiarekin lotuak guztiak.

Zerbitzuon artean aurki daitezke, adibidez, jaiotzetiko garapen fisiko zein psikikorako arazoak dituzten pertsonei estimulazio goiztiarra, eskolan arazoak dituzten ikasleei laguntza psikologikoa –faktore emozionalen trataera– eta pedagogikoa –ikasketa teknika ezberdinen irakaskuntza–, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntza, psikomotrizitate eta logopedia zerbitzuak...

### ARAZOA DEFINITU

Arazoa onartzea izan ohi da zailena. Eta behin arazoa onartzen denean hasten da psikopedagogoaren lana. Lehendabizi kasua aztertzen da, hau da, diagnostiko bat egiten da. Hasierako balorazio hau oso garrantzitsua da, honen arabera aukeratuko da-eta tratamendua.

> **Psikopedagogoek mediku, guraso eta irakasleekin modu koordinatuan egiten dute lan**

### LAN EGITEKO ERA KOORDINATUA

Psikopedagogoek modu koordinatuan egiten dute lan. Eskola arazoak dituzten ikasleen kasuetan –psikopedagogiaren lan esparru nagusia– ikaslea laguntzen diharduen psikopedagogoa medikuarekin, gurasoekin eta irakasleekin harremanetan jartzen da. Harremanak, gainera, jarraitua izan behar du, adituak ikaslearen uneko arazoen berri izan eta aurrerapausoak ebaluatu ahal izateko.

### TERAPIA, TALDEAN HOBETO

Taldeko terapiak asko laguntzen du. Hasieran terapia indibiduala egiten da; ezinbestekoa dena eta zailena. Gero, taldean, askeago sentitu ohi dira, "euren modukoak" direnak ezagutzen baitituzte. Talde homogeneo bat osatzea, baina, ez da lan erraza izaten.




Modu pertsonalizatuan irakurtzean irakurtzen laguntzeko era bat da. J.B.

LIRAINEN ZURE BIZI KALITATEA HOBETZEN DUGU

**Horretarako, INDIBA 308 berreskuratzaile elektronikoa daukagu zure eskura!**
**Basodilatazioa sortzen du eta odol zirkulazioa eta linfatikoa hobetzen duenez, ehun-zelulak birsortu egiten dira, arnas endozelularra estimulatuz eta oxigenatuz.**

LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA



943 79 52 17
Bixente Ferrer,1
20500 ARRASATE

INDIBAk aplikazio ugari ditu estetikan eta osasunean:

- Zelulitisa.
- Bolumenaren galera.
- Ildoak.
- Erditze ondorengo errekuperazioa.
- Zikatrizazioak (berri eta zaharrak).
- Hematoma eta traumatismo handien inflamazioak
- Giharretako minak.

*Gainera, **LIRAIN**-en, teknologia berrienarekin lan egiten dugu gorputz tratamenduetan: irrati-frekuentziak, **VELASMOOTH; eSTYLE, GALILEO, PRESOTERAPIA (BALANCER )...***

AURPEGI-TRATAMENDUAK:

- Orbanak, eskuak, aurpegia…
- Zimurren aurkakoak.
- Trinkotzaileak.
- Hidratazioa.
- Oxigenoarekin tratamenduak.
- Irrati-frekuentzia.
- Fotogazteagotzea
- Aknea

OPARI EZAZU OSASUNA ETA ONGIZATEA

- Mandarina peeling-a + masajea: 70 €
- JONG BAO (Besarkada): 50 €
- Txokolate peeling-a: 50 €
- Txokolate masajea: 60 €
- Pindas masajea: 70 €

Azaroan eskaintza berezia!
Mandarina peeling-a + masajea : 50 €

■ MEDIKUNTZA BIOLOGIKOA

# Osasuntsuago bizi izatea ingurunearekin orekatuz

NEREA MENOR

**Betidanik izan dugu gure artean medikuntza biologikoa; sendabelarrak eta elikadura ekologikoa gure aitaita-amamek ere praktikatzen zuten. Gaur egungo egoera ikusita, medikuntzaren alor horrek gure benetako izatera bueltatzen lagundu nahi digu, eta, bide batez, oreka aurkitzen.**


Adimen oreka eta oreka emozionala lortzea, medikuntza biologikoaren helburuetako bi. GOIENKARIA

Hainbat terapiatan oinarritzen da medikuntza biologikoa eta ikasketarik berritzaileenak antzinako filosofiekin uztartzen ditu. Norbanakoaren organismoak bere arazo propioak edo asaldurak bere kabuz konpontzea du helburu. Horretarako, gizakia, gainerako izaki bizidunen moduan, naturarekin lotura zuzenean dagoela eta haren zati dela ulertu behar dugula diote adituek.

Osasun ona lortzeko, norbanakoa-ingurunea loturak orekan egon behar du. Hala, medikuntza biologikoak ez du osasuna gaixotasunik eza gisa definitzen; haien ustez, bizi garen ingurune horretara behar bezala egokitzea da osasuna, pertsonak bere osasun egoerarik onena jasoko du-eta ingurune horrekin orekan bizi izanda.

Medikuntza horren ustez, gaixotasuna oreka horren gabeziaren ondorio baino ez da. Gaixotzean, pertsonek pairatzen dituzten sintomak ohiko medikuntzan gaixotasun zantzu gisa hartzen dira; medikuntza biologikoan, aldiz, organismoak ingurune horretara egokitzeko egiten duen ahalegin naturala dira sintoma horiek.

**Bizi garen ingurune horretara behar bezala egokitzea da osasuna**

### IKUSPEGI INTEGRALA

Osasuneko arazoak ikuspegi integraletik landu ahal izateko funtsezko garrantzia duten lau arlo biltzen dira: elikadura energetikoa, jarduera fisikoa, adimen jarduera eta terapia zerbitzuak.

Elikagaiek norberarengan duten eragin energetikoa oinarri hartuta, gaixo horren organismoaren egoera energetikoa zein den aztertuko da, eta ziklo naturalean oinarritutako elikadura mota berezi bat ezarriko da.

Jarduera fisikoa mugimendu kontzientean eta energiaren erabilera egokian oinarritzen da. Ariketa horiek ez dira helburu bere horretan, bitartekoak baizik.

Medikuntza biologikoaren barruan kokatzen da baita ere adimen oreka eta oreka emozionala lortzea; tai txiak edo pilates metodoak lagun dezakete horretan. Lehenengoa blokeo kronikoak desegin eta fluxu energetikoa berrezartzeko ona izan daiteke eta bigarrenak bizkarrezurrari irmotasuna eta egonkortasuna emateko barneko muskuluak garatzea du oinarri.

Homeopatia, osteopatia eta akupuntura teknikek energiaren kanalizazioan lagun dezakete. Defentsak aktibatu, harmonia eta oreka berreskuratu eta gorputzaren puntuak estimulatzeko balio dute horiek.

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**

• Diagnostikoa - Orientazioa
• Psikologia klinikoa - Terapiak
• Mota guztietako eskola arazoak
• Estimulazio goiztiarra
• Tratu txarrak jasotakoei laguntza psikologikoa (fisikoak, psikikoak)
• Psikomotrizitatea eta logopedia
• Ikasketa teknikak eta ohiturak

Inazio Zuloaga 10 • 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 48 77 • psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net

Bizi Kiropraktika

Gorputza, sortu duen indar berberak sendatzen du.

Andrea Larrañaga
Kiropraktikan Lizentziaduna

Erdiko kalea 22-3 esk.
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 92 83

■ IKUSMENA

# Ondo zaintzen dugu gure ikusmena?

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Begiak zabaltzen ditugun bakoitzean gure buruari egin behar geniokeen galdera da. Izan ere, arriskuaren aurrean aurrez ipini behar dira begiak adiadi, ondoren kalte handiak etor ez daitezen. Begiak, gureak baino, adituenak: ikusmen arazoen aurrean eurek esango digutelako zein neurri hartu.**

Begien osasun onaren oinarrian legoke gutxienez urtean behin adituari, optikoari edo oftalmologoari bisita egitea.

Sarritan, ez gara ohartu ere egiten ikusmen arazoak dauzkagunean. Izan ere, gehienetan, gaitzaren sorreran edo arazoa hasten denean, apenas sumatzen dugu ezer begietan, aparteko minik edo ondoezik ez dutelako eragiten arazo horiek.

Ezkutukotzat har ditzakegun ikusmen arazo horiek gehien pairatzen dituztenak umeak eta 50 urtetik gorakoak dira. Gainontzean, betiere aparteko kasurik ez balego, ikusmen arazoren bat sortuz gero gaitza duenak berez sumatzen du.

**Begietako gaitzen sorreran aparteko minik sumatzen ez denez, askotan ez gara ohartzen**

**Ezkutuko ikusmen arazo gehien dituztenak umeak eta 50 urtetik gorakoak dira**



Begien osasun onerako, ona da gutxienez urtean behin adituari bisita egitea. GOIENKARIA

**UME TXIKIAK ETA HELDUAK**

Umeei dagokienean, adituek gomendatzen dute sei hilabete dituztenean lehen ikusmen azterketa egitea; azterketa hori derrigorrezkoa izan beharko litzateke umeak bi urte dituenetik aurrera. Ume txikietan ikusmen arazo gehienen arrazoia izan ohi da umeek begietako bat ez dutela erabiltzen, eta gurasoak joera horretaz ohartzen dira soilik umeak begia okertzen duenean. Guraso gehienek ez dute jakiten umeek begia okertzen ez badute ere egon daitekeela ikusmen arazoren bat.

Helduen artean, ikusmen arazo gehien dutenak honakoak dira: diabetesa duten gaixoak (AEBetan urtean 20.000 diabetikok galtzen du ikusmena); begiko tentsio altua dutenak; eta kataratak dituztenak.

Diabeteak eragindako erretinopatia eta glaukoma begien "isileko" gaixotasun oso arriskutsuak dira jendearendako.

Ikusmenak gure inguruarekiko harremana eta ezagutza ahalbidetzen ditu. *Ingurukoa eder edo itsusi, zein begik ikusi* dio esaerak, baina begiak osasuntsu egon behar dira aurrean duguna ondo ikusteko. Hortaz, begiak zaintzea eta, zerbait sumatuz gero, adituengana jotzea da sendabiderik onena.



IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak
Azterketa biomekanikoa
Kirol podologia
Neurrira egindako plantillak

Ikerleku zeharbidea BERGARA **943 76 07 84**

FISIOTERAPIA ZENTROA
naren



• Fisioterapia
• Errehabilitazioa
• **Osteopatia**
• Masajeak

**Belorrieta auzoa 5, ARETXABALETA**
**Tel.: 943 08 21 89**



**Fisioterapeutak:**
Miren Maiztegi • Nagore Llodio


2x1(*)
BERRIREKITZE
ESKAINTZA
Kalitatearekin dugun
konpromezuak
bultzaturik, eta
zerbitzu hobea
eskaintzearren, gure
denda erabat eraldatu
dugu.
Gerturatu gure
denda berritura!!
instituto optico
Erdiko Kale, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 71 68
Bidekurutzeta, 10
BERGARA
Tel.: 943 76 97 03
(*) Markako betaurrekoak erosiz gero,
ezaugarri berdineko beste batzuk
oparituko dizkizugu,
50 modeloen artean aukeratzeko.
(+- 6.00 esf; +- 2.00 cil.)
ARRASATE - BERGARA - ZUMARRAGA - DURANGO

nire bidaia hura

## Eneko Juaristi

Maroko hegoaldea > 2008ko udan

# "Paisaiei eta baita pertsonei dagokienez ere, kontrastez betetako bidaia izan zen udakoa"

**NEREA MENOR** > BERGARA

**Bidaiatzea ikaragarri gustuko du Eneko Juaristik. Udan, Maroko aukeratu zuen bere zaletasuna gauzatzeko. Hilabete inguruko bidaia egin zuen herrialde hura ezagutzen eta bere oroitzapenen berri eman digu ondorengo lerroetan.**


Eneko Juaristi.

Aurreko uda Maroko hegoaldean pasa zuen Juaristik. Bidaiatzea asko gustatzen zaiola onartu digu, eta buruan norako asko zituen arren, Afrikako lurralde hau aukeratu zuen 2008ko oporretarako. "Sari Kiel Amsterdameko lagunarekin joan nintzen hara. Buruan toki dezente genituen, baina Maroko gertu egonik salto kultural handia eskaintzen du, eta horrek biok erakartzen gintuen. Gainera, saharar herriaren errealitatea gertuagotik ezagutzeko interesa genuen", dio Juaristik.

Kontrastez betetako bidaia izan zela argitu digu, "bai paisaiei dagokienez baita pertsonei dagokienez ere".

Madrildik Marrakechera zioan hegazkina hartu zuten, uztaila eta abuztua bitartean, hilabetean zehar hegoaldeko lurralde horretan pasatzeko. Marrakechen bospasei egun pasa zituztela adierazi digu Enekok. "Bizitasunez betetako hiria da. Gero, astetxo bat Atlasera joan ginen, mendi buelta batzuk egitera Imlil kanpo-base izanda. Hortik, Agadirrera heldu ginen, Taroudant eta Essaouiratik pasa ostean. Toki bakoitzean egun gutxi batzuk eman genituen".

**"Saharar herriak bizi duen egoera oso konplexua eta bidegabezkoa da"**

**"Ezertxo ez zegoen mendi puntetan 'Coca-cola' aurkitzeak harritu ninduen"**

**TEA ETA GAMELU HARAGIA**

Guelmin izeneko hirira heldu zirenean elkartu ziren Brahimekin: "Familia saharar batekin eramango gintuen kontaktua zen. Tessegnane izeneko herrixkara joan ginen eta bertan aste bete inguru pasa genuen familia batzuen etxeetan. Te asko edan genuen, baita gamelu haragi ugari jan ere. Solasaldi luzeetan murgildu ginen eta elkarrizketa batzuk ere egin genituen. Familia horietako kide asko, saharar izate soilagatik, desagerrarazi egin zituen Marokoko Gobernuak. Saharar izateagatik, atxilotuak eta torturatuak izan ziren. Gaur ere gertatzen dira horrelakoak", salatzen du bergararrak.

Sahararren alde lan egiten duen Bubisher elkarteak lagundu zien sahararrengana heltzen: "Bidaia hasi aurretik, elkartearekin jarri ginen kontaktuan. Hasiera batean, errefuxiatu kanpalekuetara joateko interesa bageneukan; baina Marokotik muga zeharkatzeko arazo ugari daudenez, ez zen posible izan". Sahararen eta marokoarren gainean ere galdetu diogu Enekori: "Egun batzuk ez dira nahikoak hauek nolakoak diren azaltzeko, baina sahararrak, egia esan, ikaragarri naturalak, eskuzabalak eta kontzientziatuak direla iruditu zitzaidan. Bizi duten egoera oso konplexua eta bidegabezkoa da. Marokoko gobernuak bakean utzi ez arren, ezagutu genituen familiek euren herriaren eskubideen aldeko elkarteetan lanean ziharduten eta bizitza duina zeukaten. Errefuxiatu kanpalekuetan bizitza askoz gogorragoa da".

**BITXIKERIAK NONAHI**

Bertako klimak asko harritu zuen bergararra: "Marrakechen izan ezik, ez genuen bero handirik pasa eta ez genuen halakorik espero. Ezertxo ez zegoen mendi puntetan *Coca-Cola* aurkitzeak ere harritu ninduen". "Marokon mugitzeko, autobusez eta *grand taxi* delakoetan mugitzen ginen; prezioa ondo borrokatu behar izaten genuen".

Bidaia gehienetan gertatzen den bezala, asko ikasi zuten honetan ere, adibidez, "eskuekin jatea oso dibertigarria eta garbia izan daitekeela. Gastroenteritis mitikoaz aparte ez genuen arazorik izan".


Marrakecheko Koutoubia mezkitaren aurrean.



Tessegnane herrixkan, familia sahararrarekin.

bere ustez


Unai Lopez

## Bergaran izan zen aurkikuntza

Elhuyar anaien Wolframioaren aurkikuntzaren 225. urteurrenari buruz artikulu interesgarri bat irakurtzeko aukera izan dut azken egun hauetan egunkari batean. Bergararrok jakin badakigu bi anai bikain hauek gure herrian izandako jarduearen berri, neronek behintzat atzerrian jaioterriaz galdetzerakoan pasarte honen bitartez laburtzen dut gure Bergararen historiaren handitasun, ospe eta oihartzuna. Oso gazterik bidali zituzten espioi lanak egitera Europako zientzia eta industri gune garrantzitsuenetara. Helburu nagusia garaiko Royal Navy-ak erabilitako kanoien nondik norakoak ezagutzea bazen ere, zientzialari trebe eta apartak bilakatu ziren, besteak beste aipaturiko Wolframioaren aurkikuntza posible egin zuen ezagutza barneratuz. Bitxia da garaiko zabalkuntza intelektual hark gure egun hauetan gaurkotasun bera mantentzea, bi mende eta laurden pasa arren.

**"Pentsa Harvard bezalako erreferente bat edo garaiko Erret Mintegia etxe ondoan izatea"**

Pentsa Harvard bezalako erreferente bat edo garaiko Erret Mintegia etxe ondoan izatea zer izango litzatekeen, zientzialari eta jakitunen norabidea Bergara izatea. Kontuak kontu, Bergara eta bergararrok omenaldi edo aipamen xume bat behintzat zor diogu historiako pasarte honi aurtengoan.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA


Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

Ion Murgizu
Pinturak
Margoketa
orokorrean
• Enpapelatuak
• Iztukoak
• Fatxadak
• Eskilarak eta patioak
• Pintura industriala
Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara
Esozia 24- 2º behea • Soraluze
Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Foto Depilazioa

Lorena Bernal




**EDURNE ESTETIKA ZENTROA**
Aranburuzabala Kalea 42 behea
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 51 54

Besapeak + Izterrondoak
**3x2**
3 saio jaso itzazu eta 2 bakarrik ordaindu

Abenduak 31 arte

**Azkenik bukatu da ilearen arazoa**



BERRIA BERRIA BERRIA BERRIA

**LETE arraindegia**

**BIDEKURUTZETAN**
BERGARA
**Tel.: 943 76 34 51**

**GIZARTE ZERBITZUAK** > GAZTEAK

# Herriko gazteen egoera ezagutzeko egitasmoa jarri du abian Udalak

11 eta 18 urte arteko aretxabaletarren ohiturak aztertzen dabiltza Kabia elkarteko hezitzaile bi, eta abendurako bukatuko dute lana

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Aretxabaletan kale heziketa edo Ingurune Irekiko Egitasmorik behar den jakiteko, herriko gazteen ezaugarriak, bizimodua eta ohiturak ezagutzeko lanean dabil Udala. Kabia elkartea hartu du lan horretarako, eta hezitzaile bi dabiltza iraila ezkero diagnostikoa egiten.

Prebentzio Zerbitzuak jarri du abian egitasmoa, eta arrazoia da gero eta familia gehiago joaten direla Gizarte Zerbitzuetara laguntza eske: "Gurasoek arazoak izaten dituzte seme-alabekin; hau da, elkarren arteko harremanak ez dira nahi bezain onak, etxeko arazoak ez dakizkite zelan bideratu…", dio Myriam Beltran de Heredia teknikariak.



Herriko gaztetxoak Atxagazte gaztelekua ezagutzen, irailean, ate irekiak egin zituztenean. MIRARI ALTUBE

Abendura bitartean egingo dute diagnostikoa Kabia elkarteko hezitzaileek, eta jasotako emaitzak aztertuta erabakiko dute Ingurune Irekiko Egitasmoa abian jarri beharra dagoen edo ez. Hala balitz, lau urterako egitasmoa abiaraziko lukete.

**BEHAKETAK ETA ELKARRIZKETAK**

Diagnostikoa egiten diharduten hezitzaileak herriko gazteen egoera ezagutzen dabiltza orain: noiz eta non elkartzen diren, zelako harremanak dituzten, taldean daudenean zelan jokatzen duten, euren beharrak eta arazoak zeintzuk diren… Era berean, gazteendako herrian dauden azpiegiturak eta baliabideak aztertuko dituzte eta gainerako herritarren iritzia jakin. Horren guztiaren berri izateko, hainbat eratara dabiltza lanean: behaketa eginda, gazteekin zuzenean egonda eta gazteekin lan egiten duten eragileei elkarrizketak eginda.

Jasotako informazio guztia aztertu eta Ingurune Irekiko Egitasmoa abiaraztea erabakiko balute, hauek dira jarraituko lituzketen pausoak: heziketa lantzea banan-banan; gizarteratze prozesu egokia erakusten duten lagunak izaera normalizatuko talde edo erakundeetara bideratzea; pertsona eta talde bakoitzarekin banan-banan lan egitea; eta kasu bakoitzari jarraipena egitea.

**KULTURA** > AZAROKO EGITARAUA ARKUPEN

# Uraren gaineko erakusketa eta Oñatiko erretiratuen antzerkia

Udaleko Kultura Sailak antolatu du azaroko egitaraua, Ama-Lur enpresa lanean hasi bitartean

**M.A.** > ARETXABALETA

*Ura, bizi iturri* izeneko erakusketarekin hasiko dituzte Arkupe kultura etxeko ekitaldiak azaroan, eta mordoa izango dira hil guztian. Umeen ikuskizunei dagokienez, hona antolatutakoak: Txorroborro magoa (azaroak 8), Moronda eta Lironda pailazoak (azaroak 15), Xabi Larrea (azaroak 22) eta *Adarbakar urdina* txotxongilo emanaldia (azaroak 22).

Helduendako antzerkiak besteren horrenbeste daude: *Nos vamos de vacaciones,* Oñatiko Pake-Leku erretiratuen elkarteko antzerki taldearen eskutik (azaroak 7); *Sexo gratis,* Txirene taldearekin (azaroak 14); *Nik egin beharko,* Patxika Lamour-ekin (azaroak 21) eta *Greban gaude,* Lakrikun antzerki taldearekin (azaroak 28).

Gainera, hiru ikus-entzunezko izango dira: eguenean, azaroak 6, *Tandemean Hegoamerikan barrena* eskainiko dute Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabek. *Tener 13 años en el 36* aurkeztuko du Joaquin Galvezek (azaroak 20) eta *Auñamendien hatsa* Gemma Arrugaetak (azaroak 27).



*Ura, bizi iturri* erakusketako argazkia. ARKUPE



HEZKUNTZA > ELKARTRUKEA

# Herbehereetatik Kurtzebarri BHI institutura hirugarren aldiz

## Merlet College ikastetxeko 15 eta 19 urte arteko 40 ikasle eta hiru irakasle egon dira gure artean; gaur itzuliko dira



Arkupe kultura etxean egin zieten ongietorri ekitaldian Holandako ikasleak. M.A.

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Joan zen zapatuan iritsi ziren Herbehereetako –Cuijk herria– Merlet College ikastetxeko ikasle eta irakasleak Aretxabaletara. Merlet College ikastetxearekin elkartrukea egin duten hirugarren urtea da aurtengoa. Aste guztian izan dira gure artean Herbehereetako kideak eta gaur itzuliko dira.

**PROIEKTUAK BULTZATU**

Kurtzebarri BHI institutuko ikasleek egin zieten harrera joan den zapatuan Cuijk herritik zetozen 40 ikasle eta hiru irakasleei, eta domeka familia giroan pasatu zuten, elkar ezagutzen. Astelehenari, ostera, ekitaldi ofizialarekin eman zioten hasiera, eta Inaxio Garro alkatearen agurra entzun zuten –ingelesez ere bai– Arkupe kultura etxean. Iñaki Urreta institutuko zuzendariak esan zien kultura arteko harremanak sendotzea duela helburu elkartrukeak eta horretarako ez dagoela etorkizunera itxaron beharrik. Errealitate ezberdinak ezagutzeko aukera dutela orain ikasleek eta elkartrukerako proiektuak bultzatuko dituztela gaineratu zuen.

Astelehenean hasi eta gaur arte geratu barik ibili dira Merlet Collegeko eta Kurtzebarriko lagunak: Urkulu ezagutu, Donostiara bisita –Miramon–, Bilbora Guggenheim museora, Zugaztietara meategiak ezagutzera… Eguraldia ez dute lagun izan egunotan, baina gustura ibili dira eta inor ez da akordatu euria zenik.

Datorren martxoan –7tik 13ra bitartean– Kurtzebarri BHIko ikasleak joango dira Merlet Collegera bisita itzultzera. Zain izango dituzte ordurako.

## Idoia erizaina agurtu dute areantzarrek

Urretxuko Idoia Garmendia Balerdi erizainak sei urte egin ditu Aretxabaletako osasun etxean lanean, eta orain Arrasatekora joango da. Herritarrek ondo ezagutzen dute, baita auzoetan bizi direnek ere. Horregatik, Areantza auzoko bizilagunek argazkia atera zuten urriaren 8an gripearen aurkako txertoa jartzera joan zitzaienean. Elizpean jarri zien txertoa, Arantza Landaluze erizaina lagun zuela, eta areantzarrek "agur eta hurrengo arte" esan gura diote Idoiari, orduan ateratako argazkiarekin.



OIHANA ELORTZA

KIROLA > KARATE TXAPELKETA

# Odei Vazquez bigarrena izan da kata modalitatean

## Gerriko horia eta marroia dutenak izan dira Gipuzkoako txapelketan

M.A. > ARETXABALETA

Joan zen domekan Azkoitiko Zubiaurre kiroldegian jokatutako Gipuzkoako karate txapelketan garaikurra lortu zuen Odei Vazquez aretxabaletarrak. 14 urtetik gorakoendako zen txapelketa, eta gerriko horia eta marroia dutenendako. Vazquezek 14 urte bete berri ditu eta gerriko marroia du; hortaz, txapelketako gazteenetakoa zen. Hala eta guztiz, ez zen atzean geratu UDA elkarteko kidea, eta kata modalitatean bigarren postua lortu zuen junior mailan.

Harekin batera arrasatear bat ere izan zen txapelketan, Saioa elkarteko Omar Revuelta. Hirugarren postua eskuratu zuen hark kumite modalitatean, junior mailan.

**38 KIDE KARATE TALDEAN**

Odilo Vazquez entrenatzailearen agindupetara elkartzen da Aretxabaleta Kirol Elkarteko –UDA– karate taldea. 38 kide daude aurten: 6 eta 10 urte artekoak 24 eta 12 eta 36 urte artekoak 14. Kata eta kumite modalitateak erakusten dizkie. Erasoa eta defentsa irudikatzen duten hainbat mugimendu egitean datza kata modalitatea, eta teknika da garrantzitsuena. Kumitean, ostera, elkarren aurka borrokan egiten dute, hainbat arau kontuan hartuta.



Odei Vazquez eta Omar Revuelta domekan, txapelketa ostean. ODILO VAZQUEZ

> GIZARTE ZERBITZUAK

### Umorearen eta barrearen onurak ezagutu eta lantzeko ikastaroa hasiko dute eguaztenean

Udaleko Gizarte Zerbitzuek *Umorearen eta barrearen onurak* izeneko ikastaroa antolatu du. Eguazten honetan, azaroak 5, hasiko dituzte eskolak eta abenduaren 3a bitartean izango dira –bost saio–, eguaztenetan (17:00-19:00), Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan dagoen aretoan.

Eremu psikosozialean lan egiten duen Lahar elkarteak eskainiko du ikastaroa. Iaz ere eman zituen eskolok Aretxabaletan eta orduan bi talde osatu zituzten, eskaera handia egon zelako. Ikastaroan jardundakoak oso gustura geratu ziren eta errepikatzeko eskatu diote Udalari. Talde bat –15 kide gehienez– dagoeneko osatuta dago datorren astean hasiko duten ikastarorako.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

MAPFRE
Inbertitu MAPFREn zure dirua!
BERME eta ERRENTAGARRITASUN OSOA edukiko duzu
Kontsulta ezazu konpromisorik gabe.
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net



Itxura berria du San Lorentzoko Larraña institutuko pilotaleku berriak. LARRAÑA INSTITUTOA

**KIROLA** > PILOTALEKUA

# Larrañako frontoia, erabilgarri urtarrilean

Eskola orduetatik kanpo, edozein herritarrek erabili ahalko du frontoia, txanda eskatuta

Institutuko arduradunek oraindik ez dituzte erabiltzaileek ordaindu beharreko kuotak zehaztu

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
San Lorentzoko Larraña institutuko pilotalekuko berritze lanak bukatuta, herritarrek erabili ahalko dute urtarriletik aurrera. "Lanak bukatu ditugu, baina herritarrei zabaldu aurretik erabiltzeagatik ordaindu beharreko mantenu kuotak finkatu behar ditugu: besteak beste, argia eta aldagelak eta ur beroa erabiltzeko kuotak. Oraindik ez ditugu zehaztu, baina Zubikoa kiroldegian ordaintzen direnen antzekoak izango dira", esan digu Larraña Institutuko zuzendari Kepa Altubek. Dena den, zehaztu dute argia gura dutenek ordu baterako edo birako balio duten fitxak erosi beharko dituztela.

**ESKOLA ORDUETATIK KANPO**
Eskola orduetatik kanpo edozein herritarrek erabili ahalko du Larrañako pilotalekua, astegunetan eta aste bukaeretan. Baina, aldez aurretik txanda hartu beharko dute, 943 78 21 50 edo 943 78 12 68 telefonoretara deituz edo *www.onati.net/zerbitzuak* webgunean.

Institutuko frontoiaren inaugurazioa azaroan egingo dute, eta zuzendaritzak pilotari ezagunen bat ekartzeko asmoa du.

**ALDAGELA BERRIAK**
Berrikuntza lan inportanteenak teilatuan egin dituzte: burdinazko egitura mantenduz, sabai berria jarri dute. Bestalde, pilotalekuko ormak eta zorua berritu dituzte. Aldagela zaharrean biltegia jarri dute, eta harmailaren azpian bi aldagela eta komun berriak jarri dituzte.

**JAIAK** > BALORAZIOA

## Ezker Abertzaleak jaietako txosna batzordeak egindako lana azpimarratu du

Presoen aldeko ekimenetan jende askok parte hartu zuela esan dute

**M.B.** > OÑATI
San Migel jaiak bukatutako balorazioa egin du Ezker Abertzaleak. Herri Eguna eta Errosario Bixamoneko parte-hartzeaz gain, jai egitarauan ez zegoen txantxikuaren jaitsierak izandako "arrakasta" azpimarratu dute.

Bestalde, txosna batzordeko kideek egindako lana goraipatu dute: "Oztopoz beteriko lana egin dute, eta diru gutxirekin jai onak antola daitezkeela erakutsi dute. Alegia, egitarau garestien aurrean, beste bide batzuk daude erakutsi dute".

**"ELKARBIZITZAREN ALDE"**
Gazteek elkarbizitzaren aldeko urratsak emateko prest daudela esan dute: "Erantzun inposatzaileei aurre eginez, herriko sektore borrokalariekin bat datozela erakutsi dute eta preso eta iheslariei elkartasuna adierazi diete". Horren harira, danborrada nagusiaren ondoren eta Herri Egunean, preso eta iheslarien aldeko ekimenetan ehunka herritarrek elkartasuna adierazi zietela azpimarratu dute. "Bide honetatik jarraituko dugu", diote.

Bukatzeko, jaietako barraken prezioaren inguruko hausnarketa egin dute: "Eskandalagarria izan da barraken prezioa, 1,50 euro bidaia bakoitzeko. Datozen urteei begira, dagokionak, prezioak merkatzeko erabakiak eta neurriak hartu beharko ditu".

**KULTURA** > HAUR LIBURUTEGIA

## Ipuin saioa, Kamishibai teknika japorniarra erabiliz

Azaroaren 7ko saiorako gonbidapenak aldez aurretik jaso daitezke haur liburutegian

**M.B.** > OÑATI
Ipuin teknika berria duen ipuin kontaketa saioa antolatu dute 7-10 urte arteko neska-mutikoendako Haur Liburutegian, azaroren 7an, 18:00etan. Hain zuzen ere, Kamishibai teknika japoniarra erabiltzen duen ipuin kontaketa saioa egingo dute.

Horren harira, saioan parte hartu gura dutenek aldez aurretik gonbidapenak jaso behar dituzte Haur Liburutegian bertan. Gehienez ere 30 neska-mutikoendako sarrerak dituzte.

**IKUSI ETA ENTZUN**
Teknika japoniarra erabiliz lehen aldiz egingo dute saioa ibarrean. "Egurrezko egitura batean, ilustrazioak jartzen ditu kontalariak. Hala, ipuina ikusi eta entzun egiten dute aldi berean", esan digu liburutegiko arduradunak.

## Aste bukaeran, ekitaldi gehiago gaztetxean

*Los educadores* izeneko bideo emanaldiarekin hasiko dituzte aste bukaerako ekitaldiak San Martingo gaztetxean. Afaldu ondoren Hueco bakarlariak kantaldia egingo du. Bihar, eztabaida eta Zumaiako batzarreko kideekin mahai ingurua egingo dituzte. 18:00etan Sospechosos eta Gargantas Desgarradas taldeek kontzertua egingo dute. Domekan, Debagoieneko gazte batzarretako kideekin mahai ingurua egingo dute 15:30ean.



JOSETXO ARANTZABAL

> ETXEBIZITZAK

### Kurtiderixako etxeetarako ez dute izenik jaso udal bulegoetan epea zabalik egon den artean

Astelehenean itxi zuten Kurtiderixa gunean egingo dituzten etxe tasatuetarako izenemate epea. Udal bulegoetan ez dute eskaerarik jaso. Otadui Zuhaiztia kaleko 12-A eta 12-B zenbakietan egingo dituzten 12 etxe tasatuetarako 2007. urteko diru sarrerak hartzen zituzten kontuan. Era berean, ez zen derrigorrezkoa Oñatin erroldatua egotea.

Eskaerarik jaso ez dutenez, zozketa egiteko aukerarik ez dute; hortaz, Udalak erabaki beharko du zer egin Kurtiderixako hamabi etxe tasatuekin.

AITXURI
BURDIN LANAK
Galdaragintza
•
Mantentze lanak
Tel.: 688 63 95 18
20230 LEGAZPI
Gipuzkoa

GOIENKARIA
2008ko urriaren 31

**OSOKO BILKURA** > UDALEKO OHIKO OSOKO BILKURA

# Udal tasak eta zaharren egoitzaren gaineko kontsulta onartu dituzte

Mesedeetako Amaren egoitzaren gaineko kontsulta azaroaren 19an, 20an, 21ean eta 22an egingo dute; 16 urtetik gorakoek dute botatzeko aukera



Udalak asko kontsumitzen dutenak zigortuko ditu tasekin; zaldi asko dituzten ibilgailuak, esaterako. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
Eguazten arratsean ohiko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Hainbat gai jarri zituzten mahai gainean eta bilkurak oso luze jo zuen; besteak beste, ordenantza fiskalengatik. Hain zuzen ere, Hirigintza Batzordean hainbat ordezkari izan ez zirenez, bananbanan eztabaidatu eta adostu behar izan zituzten bilkuran.

**EA-K TASEI EZEZKOA BOZKATU**
Udal ordezkari guztiek onartu zituzten ordenantza fiskalak, EA taldekoak izan ezik. Karmelo Lezetak jakinarazi zuen euren proposamena dela tasa guztiak bere horretan uztea, ura eta zaborra izan ezik. "Kanpotik kobratzen dizkiguten tasak izan ezik, beste guztiak izoztu egin gurako genituzke", azaldu zuen.

Pedro Lasagabaster alkateak azaldu zuen tasak izoztuz gero, Udalak finantzazio arazoak izango lituzkeela. Hala, gainontzeko taldeen proposamenak aztertu eta ados jarri ziren, EAren ezezko botoekin. Hain zuzen ere, tasa guztiei herrialde historikoko KPIren igoera (%4,6) ezarriko diete, salbuespen batzuk izan ezik. Salbuespenak dira ura, zaborrak eta autoen gaineko zergak, hain zuzen ere.

**ZABORRA, MANKOMUNITATETIK**
Zaborra Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak jasoko du, eta, jakinarazi dutenez, urteko lehenengo sei hilabetekoan %10eko igoera egingo dute. Bigarrenean, berriz, igoera %24koa izango dela aurreikusten dute.

Uraren eta automobilen gaineko tasei dagokienez, Udalaren helburua da gehien kontsumitzen dutenei zerga handiagoak ezartzea. Hala, iazko tendentziari jarraipena eman gura diote. Automobilen kasuan, 14 zaldi baino gehiago dituztenek egiaztatzen badute ibilgailua lanerako dela, tasari ezarritako igoeran deskontua izan dezakete.

**MESEDEETAKO AMAREN EGOITZA**
Osoko bilkuran landu zuten beste gai garrantzitsu bat Mesedeetako Amaren egoitzaren gainekoa izan zen. Aurrekoan jakinarazi genizuen egungo zaharren egoitzak ez dituela Aldundiak eskatutako arau guztiak betetzen. Horren aurrean, Udalak eta egoitza kudeatzen duen patronatuak hiru aukera jarri dituzte mahai gainean, egin beharreko lanen eta kudeaketaren gainean.

Hori dela eta, osoko bilkuran aho batez erabaki zuten 16 urtetik gorako herritar guztiei kontsulta batera deitzea.

**BOZKETA, AZAROAREN 19TIK 22RA**
Bozketa azaroaren 19tik 22ra egingo dute, baina horren aurretik hainbat ekimen egingo dituzte, herritarrak gaiaren gainean ondo informatzeko. Hala, esaterako, hilaren 5ean, 6an eta 12an gaiaren gaineko berbaldiak egingo dituzte, eta etxe guztietara informazioa banatuko dute.

Osoko bilkuran Mesedeetako Amako hainbat langile izan ziren, egoitzaren eta euren lanpostuen etorkizunarekin kezkatuta. Udalak azpimarratu zien bai Udalaren eta bai patronatuaren asmoa dela lanpostu horiei eustea; eta egoitzaren kudeaketa GSRk hartuko balu, hala esango diote.



AMUSKA

## Amuskako koadrila handi bat Kantabrian

Joan den asteburuan, Amuska emakumeen elkarteak antolatuta, 36 lagunek Kantabriara irteera egin zuten. Lehenik eta behin, joan den zapatuko txangoan Soplaoko koba ikusgarriak bisitatu zituzten. Kobazulo hartan daude Europako estalaktita bitxienetarikoak direnak.

Horren ostean, jatetxe batera bazkaltzera joan ziren eta, bide batez, Santillana del Mar Erdi Aroko herria bisitatu zuten. Amuskakoek kontatu digutenez, bertako produktuak erosteko aukera izan zuten, eta batek baino gehiagok opariak eraman zituen etxera. Ederto pasa zutela aitortu digute.

> LANA

## Kontu-hartzailetzako erdi mailako teknikaria

Udalak aurrera dihardu kontu-hartzailetzako erdi mailako teknikariaren lanpostua osatzeko prozedurarekin. Hain zuzen ere, ekainaren 19an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zuen aditzera eskabideak aurkezteko epea zabalik zegoela.

Horren ostean, baina, Udalak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda osatu du. Hala, GAOn argitaratzen denetik hamar laneguneko epea izango da horri erreklamazioak egiteko.

Horrez gain, Udalak epaimahai kalifikatzailea izendatu du dagoeneko: Udaleko idazkariak, Ekonomia arloko teknikariak, Udaleko langile batek, HAEEk izendutako teknikari batek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aholkatutako beste batek osatuko dute, hain zuzen ere.

ERAKUNDEAK > EKIMEN BATERATUAK

# Huhezi, Udala eta Gizabidea lankidetza garatzen dabiltza

Hiru erakundeon arteko hitzarmena aurkeztu zuten

Udalaren eta Huheziren azpiegituren erabilera da ardatzetako bat

Udalerriko kultura ekitaldiak koordinatu gura dituzte

IKER BARANDIARAN / TXOMIN MADINA > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak, Gizabidea Fundazioak eta Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultateak lankidetzarako hitzarmena aurkeztu zuten martitzenean udaletxean. Hitzarmenak lau ardatz nagusi ditu: kultura ekintza bateratuak; azpiegituren erabilera; ikasleen praktikak eta ikasketen amaierarako proiektuak; eta ikerketa proiektuak.


Argazkian, Huheziko dekano Nekane Arratibel, Pedro Lasagabaster alkatea eta Kultura teknikari Arantxa Untzueta. TXOMIN MADINA

**AURREKARIAK DITU**

Astean aurkeztutako hitzarmenak hainbat aurrekari izan ditu iraganean, Huhezik eta Udalak aspalditik lankidetza izan duteeta. Martitzenean aurkeztutako hitzarmena datozen egunetan sinatzeko asmoa daukate.

**KULTURA EKINTZAK KOORDINATU**

Hitzarmeneko ardatz garrantzitsuenetako bat kultura ekintza bateratuei dagokie. Hala, erakundeon artean herrirako kultura programazioa koordinatu gura dute, eta Huhezik antolatzen dituen kultura ekintzak herri osora zabalduko ditu. Ezin da ahaztu, baina, aspaldian bi erakundeen artean erabilera askotariko lokal bat egiteko asmoa dagoela, eta horretan dihardutela.

Azpiegiturek ere izango dute tartea. Horren arabera, eskoriatzarrek Huheziren aparkalekuak eta aretoak erabili ahal izango dituzte, gura beste. Horren truke, baina, Huheziko taldeek Udalaren kirol instalazioak erabili ahal izango dituzte Heziketa Fisikoko ekintzak egin behar dituztenean.

Hitzarmenean aintzat hartu duten beste ardatz bat da ikasleen praktikak eta ikasketen amaierarako proiektuak Eskoriatzako Udalean egitea ahalbideratzea. Horren barruan, aisialdia, etorkinak, komunikazio eta berdinagarritasun planaren gaineko jarduerak bereiztu dituzte hitzarmenaren sinatzaileek.

Laugarren ardatza ikerketaren gainekoa da. Horren arabera, Eskoriatzako Udalak ikerketa lanen bat egiteko beharra duenean hezkuntzan, hizkuntzan edo soziologian, eskuragarri izango ditu arlo horietan Huhezik dituen gaitasunak.

**BESTELAKO LANKIDETZAK**

Hitzarmenean zehaztutako puntuetaz gain, alde guztiek oniritzia erakutsi zuten bestelako ekimenetan ere kolaborazio puntualak egiteko.

Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek azpimarratu zuen Udala harro dagoela udalerrian bertan unibertsitatea kokatuta dagoelako.

Horren ildoan, Huheziko dekano Nekane Arratibelek eta Eskoriatzako Udaleko Kultura Saileko teknikari Arantxa Untzuetak nabarmendu zuten hitzarmen horrek orain arte izandako lankidetza gorpuztu egingo duela. Are gehiago, nabarmendu zuten hitzarmena abiapuntu hartuta hiru erakundeon asmoa dela gero eta ekimen gehiago elkarrekin abiaraztea eta elkarri laguntzea.

UDAL ZERBITZUAK > KIROLDEGIA

## Kiroldegirako abonu bereziak

Kiroldegiko sarrera merkeago lortzeko, 100 sarrerako abonuak eskuragarri daude

I.B. > ESKORIATZA

Udalak arautu berri du Udal Kiroldegiko instalazioak erabili gura dituzten erakunde edo negozioetarako eskaintza berezi bat. Hain zuzen ere, aurtengo ekainean Huheziko arduradunek Udalera jo zuten unibertsitateko ikasle eta irakasleek kiroldegia erabiltzerakoan zelanbaiteko deskontuak izateko.


Intxaurtxuetako kiroldegiak erabiltzaile asko ditu. IKER BARANDIARAN

**100 SARRERAKO ABONUA**

Horren aurrean, Udalak erabaki zuen 100 sarrerako abonua erosiz gero, sarrera bakoitza 2,5 eurotan saltzea. Berez sarrera arrunta 4 eurotan saltzen dute.

Dagoeneko indarrean dago aldaketa hori, Udaleko Kultura batzordetik eta osoko bilkuratik pasa ostean. Hala, Huhezik dagoeneko eskuratu ditu abonu horiek, eta erabiltzen ditu, baina Udalak izaera ofiziala eman gura izan dio eskaintzari; eta hala, deialdi publikoa egin du hori jakinarazteko. Azkoaga Enea hoteleko arduradunek ere eskaera bera egin dute, baina oraindik ez dute abonurik hartu.

Udaleko Kiroletako azpibatzordeko arduradun Ander Agirianok jakinarazi digu eskaera horren aurrean aldaketa hori egin dutela, baina denborak esango duela bestelako aldaketarik egin behar den: "Egoerara egokitu beharra dago uneoro".

Abonu edota sarrerarekin ikastaroak eta sauna ez ezik, kiroldegiko gainontzeko zerbitzu guztiak erabil daitezke: hala nola igerilekua, gimnasioak, kantxa, pilotaleku txikia eta kanpoko igerilekua.

KULTURA ARTEKOTASUNA > GARABIDE

## Kultura arteko afalostea egingo dute gaur iluntzean

Hainbat indigenak euren kulturen berri emango dute Ibarraundi museoan

I.B. > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Garabide gobernuz kanpoko erakundeak eta Eskoriatzako Udalak elkarrekin antolatuta, hainbat ekimen egingo dituzte herrian. Lehenik eta behin, 18:00etan, umeendako ipuin kontaketa egingo dute Udal Bibliotekan. 3 urtetik gorako edozein joan ahal izango da munduko hainbat herrialdetako bisitarien ipuinak entzutera.

**EUSKARARA ITZULIKO DITUZTE**

Ipuin kontalari bakoitzak bere hizkuntza propioa erabiliko du, eta Udal Bibliotekako arduradun Iñaki Agirianok euskarara itzuliko ditu kontakizunak.

Iluntzean, 22:30ean, berriz, afaloste multikulturala egingo dute Ibarraundi museoan. Bertan, Bolivia, Ekuador, Paraguai, Wallmapu, Kolonbia, Amazigh, Guatemala eta beste herrialde batzuetako bisitariak izango dira. Ateak edozeini zabalduta daude. Kafe beroa hartzearekin bat, herrialde indigenetako kideek euren esperientzia eta kulturen berri emango diete gerturatutakoei.

**IKUSKIZUNAK ERE IZANGO DIRA**

Hala, aukera izango da herrialde horietako ohiturak ezagutzeko. Horren harira, gainera, hainbat ikuskizun egingo dituzte: maputxeek abestu egingo dute, Ekuadorko kitxuak dantzan arituko dira, Guatemalako maiek erritual bat egingo dute eta boliviarrek eta guaraniek oraindik ez dute jakinarazi zer egingo duten.

Dena dela, kafeaz gain, pastak, menta eta rona ere banatuko dituzte kafe-tertulian.

Garabide gobernuz kanpoko erakundearen helburua da euskalgintzaren lana eta eredua munduko beste herrialde batzuetan erakustera ematea. Hain zuzen ere, beste herrialde askotatik interesa erakusten dute euskararen alde Euskal Herrian egiten den lanarekin.



Kristina Bakaikoa antzuolarra sei urtez joan da Senegalera amaetxe batean laguntzera; aurten berriz joango da. K. BAKAIKOA

**ELKARTASUNA** > ANELKAR

# Aste bukaeran Senegalen gaineko erakusketa dago

Oreretako Mikelazulo elkartekoek Senegalera egindako bidaiako irudiak ikus daitezke

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Anelkar gobernuz kanpoko elkarteak erakusketa antolatu du aste bukaerarako. Oreretako Mikelazulo elkartekoak kultura trukean oinarritutako proiektu batekin izan ziren Senegalen. Proiektu horren gaineko ikus-entzunezkoak, txotxongiloak, koadroak, argazkiak, ehunak, aulkiak… erakutsiko dituzte. Olaranen egongo dira horiek guztiak ikusgai azaroaren 1ean eta 2an, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Antzuolako Kristina Bakaikoa ere azken sei urteetan Senegalen izan da eta aurten berriz joatekoa da. Djiemberingeko amaetxean jarduten du laguntzen. Esan digunez, “gauza material asko falta zaie, batik bat osasunari dagokionez, baina goseak ez dira hiltzen eta lasai bizi dira”.

Senegalen gaineko erakusketaz gain, aste bukaeran bidezko merkataritzako produktuak ipiniko dituzte salgai Anelkarrekoek.

**JUAN ANTONIO LIZARRALDE**

Anelkarrek Brasilera ere bidaltzen du laguntza, han misiolari lanetan ziharduen Juan Antonio Lizarralde antzuolarraren bitartez. Lizarralde jaioterrira etorri zen urrian eta joan zen domekan hil zen ondoezak jota. Anelkarrekoek eskertu egin nahi diote euren proiektuetan bidelagun eta irakasle izana.

**AISIALDIA** > TRIKITIA

## Saiheski jana izango da bihar, zapatua, Trikiti Egunerako dirua ateratzeko

Zurrategin erreko dute saiheskia eta, bi euroren truke, pintxoa eta txikitoa erosi ahal izango dira

**I.A.** > ANTZUOLA

Datorren urtean, apirilaren 25ean egingo dute V. Debagoieneko Trikiti Eguna Antzuolan. Egun horren harira, trikiti ikasleen gurasoek hainbat ekintza gertatzen dihardute antolakuntzarako dirua ateratzeko.

Jaietan sardina jana egin zuten eta asteburu honetarako, azaroaren 1erako, hain zuzen ere, saiheski jana antolatu dute.

Zurrategin, parrillan erreko ditu Giokelak emandako saiheskiak Peli Muxika harakinak. Ondoren, 19:00etatik aurrera salgai ipiniko dituzte pintxoak. Bi euroren truke saiheski pintxoa eta txikitoa erosi ahal izango dira Zurrategin.



Trikitixa ikasleek girotuko dute saiheski jana Zurrategin. GOIENKARIA

**TRIKITIA ETA PANDEROA**

Giroa alaitzeko trikitilaririk ez da faltako. 20 lagunek dihardute trikitia ikasten Antzuolan eta horietako batzuek jardungo dute.

**HEZKUNTZA** > GURASO ELKARTEA

# Pausokak eskola handitzea ipini du erronken artean

Hezkuntza delegazioak egin beharreko aurreproiektuaren zain daude guraso elkartekoak

**I.A.** > ANTZUOLA

Pausoka guraso elkarteak urteko batzarra egin du eta ikasturte honetarako hainbat erronkaren eta egitasmoren berri eman zien gurasoei.

Haurreskolaren eta eskolaren handitzea da Pausokaren erronka nagusietariko bat. "Antzuolan gero eta ume gehiago dagoenez, eskola eta haurreskola handitzeko prozesuan daude. Aurrerapauso batzuk eman dira: esaterako, hezkuntza delegazioa aurreproiektua egiten dabil eta, ezer zehaztuta ez badago ere, elkartekook zain gaude aurreproiektu hori jasotzeko eta aztertzeko", esan digu guraso elkarteko idazkari Nekane Berasategik.

Eskola eta haurreskola ez ezik, jangela ere txiki geratu da eta erabaki dute bigarren txanda martxan ipintzea. "Denak batera ez dira kabitzen jangelan eta txanden banaketa modu malguan egingo da, umeen erritmoa eta kopurua kontuan hartuta", dio Nekane Berasategik.

**OLENTZERO ETA IKASTAROAK**

Olentzeroren kalejiraz ere egin zuten berba. Orain arte irakasleak arduratu dira Gabonetako Olentzeroren kalejiraz eta orain gurasoek antolatuko dute. Hortaz, Pausokatik gurasoak animatu nahi dituzte antolakuntzan parte hartzera.

Umeen heziketaz ez ezik, gurasoenaz ere arduratzen dira eta bi ikastaro antolatu dituzte: lehen sorospenen gainekoa eta teknologia berrien ingurukoa.

Pausokakoek, bestalde, eskertu egin nahi izan dituzte Eskola Kirolean entrenatzaile diharduten gurasoak.

Ikasturte berrirako batzordean ere izan dira aldaketak: sei lagun berri sartu dira, eta 12 kidek osatuko dute orain.

> ARGAZKILARITZA

### Azaroaren 14ra arte luzatu dute argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea

Hasieran urriaren 31n ipini zuten argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epemuga. Udaleko Kultura Saileko arduradunek, baina, jakinarazi dute epea azaroaren 14ra arte luzatu dutela. Parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkietarako gaia librea izango da, eta lanak krema edo beix koloreko 30x40 zentimetroko kartulina finean itsatsiko dira. Argazkien neurria gehienez 25x35 zentimetrokoa izango da.

> OSPAKIZUNA

### Afaria egingo dute ehiztariek San Hubertoren omenez azaroaren 8an, Eperra elkartean

Eperra elkarteak, urteroko ohiturari jarraituz, San Huberto eguna ospatzeko afaria egingo du. San Huberto eguna azaroaren 3an bada ere, ospakizuna zapatuan, azaroaren 8an, izango da. Ehiztarien zaindaria da San Huberto eta haren omenez elkartuko dira herriko ehiztariak Eperran. Afaritara joan nahi dutenek azaroaren 5era, eguaztenera, bitartean izango dute elkartean izena emateko aukera.

> ESKULANAK

### Umeendako marrazketa ikastarorako beste talde bat sortuko da eguaztenetarako

Astelehenetarako eskaini zen marrazketa ikastaroak arrakasta handia izan du (6 eta 9 urte bitarteko 12 umek dihardute), eta ume asko kanpoan geratu direla ikusita, beste talde bat sortzeko aukera aztertu du Udalak. Maite Telleriak emango duen ikastaroa eguaztenetan izango da 18:00etatik 19:30era eta hileko kuota 15 euro ordainduko dituzte parte hartzaileek. Udaletxera jo behar dute interesatuek izena ematera.

**UDALA** > AURREKONTUAK 2009

# Oxel Erostarbe: "Gure nahia da aurrekontuetan adostasuna lortzea"

Irisgarritasun plana eguneratzea eta parte hartzea sustatzea dira erronketako bi

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Badator urte amaiera eta Elgetako Udalean hasiak dira datorren urteko aurrekontuak prestatzen. Legeak eskatzen du aurrekontua urtea hasi aurretik onartu behar dela, nahiz eta udal askotan arau hori ez duten betetzen. Elgetan urtarril erdialdera onartu zituzten iazko aurrekontuak. "Asmoa da 2009ko aurrekontuak urte amaierarako onartzea", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Gure borondatea adostasuna lortzea denez, gerta daiteke kontua aste bi edo hamar egun atzeratzea, baina asmoa da urte bukaerarako onartzea".

**PROIEKTU NAGUSIAK**

2008. urtea proiektu potoloen urtea izan dela uste du Erostarbek. "Datorren urtean proiektu horiei guztiei amaiera ematea tokatzen da", azaldu du, eta Torrealdeko haurreskola berria ipini du adibide moduan. "Bestetik, etorkizunari begirako asmoak ipiniko ditugu martxan", gaineratu du. "Kiroldegiaren etorkizunaz hausnarketa egin behar dugu: 2002an onartutako irisgarritasun plana agortuta dago eta eguneratu beharra daukagu. Azkenik, herritarren parte hartzearen inguruan sakondu beharra dagoela uste dugu".

**UDALAREN DIRU KONTUAK**

Irisgarritasun plana eguneratzeak bakarrik 20.300 euro hartuko ditu. Udalak jakin berri du, gainera, Gipuzkoako Foru Aldunditik aurten 60.000 euro gutxiago jasoko dituela. "Hori diru asko da Elgeta moduko herri txiki batendako", adierazi du alkateak. "Ikusiko dugu datorren urteari begira zer-nolako aurreikuspena dagoen".

Udalaren egoera ekonomikoa delikatua da eta gaur egungo krisiak ez ditu gauzak erraztuko. "Udalera iritsi ginenean ez zegoen aurrezkirik", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Dena gastatuta zegoen industrialdearen garapenean eta bestelako proiektuetan. Horri egun mundu mailakoa bihurtu zaigun krisia gehitzen badiogu, ba... ikusiko dugu zer gertatzen den".

2008rako Udalak 2.835.565,76 euroko aurrekontua onartu zuen Aralarren, Edurne Alberdiren eta Leire Basauriren botoekin. EAJ-EAk kontrako botoa eman zuen orduan.

> PELOTA

### Zortzi norgehiagoka aste bukaeran pilota txapelketan

Aurrera doa lau t'erdiaren barruan Elgetako ez-federatuak jokatzen ari diren pilota txapelketa.

Zortzi norgehiagoka jokatuko dituzte aste bukaera honetan, lau barikuan 21:00etan hasita eta beste lau domekan 11:00etan hasita.

Norgehiagoka guztiak *www.goiena.net/elgeta* helbidean dituzue ikusgai.

> ERRETIRATUAK

### Gaztaina-erre jana egingo dute azaroaren 7an

Elgetako erretiratuen elkarteak urteroko gaztaina-erre jana egingo du azaroaren 7an, barikuan.

Ozkarbi elkartean deitu dute hitzordua, 19:30etik aurrera.

Jakinarazi dute elkarteko kide guztiak daudela gonbidatuta.

> KIROLA

### Hirunako areto futbol txapelketa antolatu du gaztetxeak

Elgetako gaztetxeak hirunako areto futbol txapelketa antolatu du azaroaren 8rako, zapaturako.

Txapelketa 17:00etan hasiko da eta parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute aurretik Udal Liburutegian, azaroaren 6a baino lehen. Taldeek hiru lagunekoak beharko dute izan.



Alkatea eta zinegotziak, osoko bilkuran. GOIENKARIA

**POLITIKA** > FRANKISMOAREN HONDARRAK

# Franco Elgetako ohorezko alkatea izan da atzora arte

Franco 1949a ezkero zen ohorezko alkate, atzoko bilkuran kargua indargabetu zuten arte

L.Z. > ELGETA

Francisco Franco Bahamonde Elgetako ohorezko alkate izan da atzora arte. Diktadorea hil eta 33 urtera indargabetu dute izendapen hori, atzo egindako osoko bilkuran.

Aurreko astean salatu zuten Debagoieneko Fusilatuen eta Senitartekoen eta Lagunen Batzordeak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak diktadorea oraindik ere ohorezko alkate zela Debagoieneko zenbait herritan. Arrasate eta Aretxabaleta aipatu zituzten orduan egindako ekitaldian eta herri horietan udalbatza bereziak deitzeko eskaera egin zuten, lehenbailehen izendapen horiek indargabetzeko.

Elgetan artxiboetara jo zuten eta konturatu ziren Francok, hain zuzen, herriko ohorezko alkate karguan jarraitzen zuela. 1949ko abuztuaren 20an izendatu zuten, Bartolome Elkoro alkate zela.

Udaletxean dago osoko bilkura hartako akta. Ez da oso ondo ikusten, baina, antza denez, orduko zinegotzi gehienak ez ziren izendapena onartu zen osoko bilkura hartan egon.

**ORDENANTZA FISKALAK**

Atzoko bilkuran, bestetik, ordenantza fiskalak %4,5 igotzeko erabakia onartu zen. Zaborraren kuota gehiago igoko da; oraingoz %10, hain justu ere.

Debagoieneko Mankomunitatetik datorren erabakia da eta asmoa da aurrerago kuota hori gehiago igotzea.

**bere ustez**



Geaxi Ezpeleta

## Amonatxoz mozorrotutako otsoak

Pinotxoren ipuina eduki dut gaur esku artean. Eta umetan gozarazten zidan liburu berak gaur gogoetarako bidea ireki dit. Zergatik ez ote zaie mundu honetako politikari eta agintariei gezurra esaten duten bakoitzean Pinotxori bezala sudurra haziko! Agian horrela gauzak beste era batekoak izango lirateke.

Edurne Zuriren istorioa ikusi dut ondoren bere apalean jarrita.

Lehen bururatzen ez zitzaizkidan irudiak etorri zaizkit gaur burura.

**"Zergatik ez ote zaie politikari eta agintariei Pinotxori bezala sudurra haziko?"**

Gure herria lo mantendu nahi duten sorginek sorgindua. Sudurrik hazten ez zaien politikariek lagunduta. Ispilu magikoak esan ote die beraiek baino ederragoa dela bere txikitasunean?

Ondoren, Txanogorritxuren kontakizuna ikusi dut Edurne Zurirenaren alboan. Honek ere zer pentsatu ekarri dit.

Nor edo nortzuk izango ote dira amonatxoz mozorrotzen diren otsoak?

Agian, erabakia bai (baina beraiek ezarritako parametroetan) aldarrikatzen dutenak gazte independentistak, herria lo mantendu nahi duten sorginen aginduz, jipoitzen dituzten bitartean?

((112))
SOS DEIAK


Nardeaga kalean nekazaritza produktuak saltzen ziharduten postu ugari ipini zituzten. JOSETXO ARANTZABAL


Gaztetxoenak ere gustura ibili ziren azoka egunean. JOSETXO ARANTZABAL


Denetariko hegaztiak egon ziren. J.A.

**KULTURA** > ERRETIRATUEN EGUNEKO AZOKA

# Udala pozik dago azokak izandako erantzunarekin

Erretiratuen Eguneko azokak arrakasta handia izan zuen; Nardeaga kalean eta parkean jende ugari ibili zen animaliak eta postuak ikusten

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Udaleko Kultura batzordea oso pozik dago joan den zapatuan, Erretiratuen Egunean, egindako azokak jasotako erantzunarekin. Kultura zinegotzi Ainara Inuntziagak azaldu du beste urte batzuetan baino jende gehiago ibili zela kalean eta herritarren parte-hartzearekin oso pozik dagoela: "Nardeaga kalea eta parkea jendez beteta egon ziren goizean. Herritar asko hurbildu zen azokara. Erretiratuen Eguneko azoka indartzea zen gure helburuetako bat, azoka borobilagoa egitea, eta esango nuke lortu dugula".

Nardeaga kalean nekazaritza produktuak saltzen ziharduten 40 postu egon ziren eta horietatik 35 aramaioarrak ziren. Inuntziagak azaldu du herritarrei eman zietela lehentasuna eta gelditzen ziren postuak kanpoko baserritarrei eskaini zizkietela.

Animaliak izan dira aurtengo azokaren nobedade handiena: "Benetako azoka bat izateko animaliak falta zitzaizkion Erretiratuen Eguneko azokari. Joan den urtean hegaztiak ipini genituen, baina ganadua falta zen. Aurten, behiak, zaldiak, ardiak eta ahuntzak izan ditugu. Azken finean, ganadua ikustea da baserritarrei gehien gustatzen zaiena", dio Inuntziagak.

**BASERRITARREI ESKERRAK**

Kultura zinegotziak adierazi du azokaren arrakastaren zati handi bat herriko baserritarrei zor zaiela: "Oso pozik gaude baserritarrengandik jaso dugun laguntzarekin. Azken finean, eurak izan dira animaliak ekartzeaz arduratu direnak. Euren laguntza ezinbestekoa izan da. Lan oso txukuna egin dute eta eskerrak eman nahi dizkiegu".

Pozik daude azokaren emaitzarekin eta datorren urtera begira ere azoka borobiltzen jarraituko dutela azaldu du Inuntziaga zinegotziak.

Unzueta
sagardotegia
GAUR URRIAK 31,
INAUGURAZIOA
19:30etatik 20:30etara.
Gonbidatuta zaudete!
Zabola z/g. Aramaio
Tel.: 945 44 50 95

**UDALA** > BATZORDEAK

# Batzordeetako aktak herritarren eskura egongo dira

Herritarrek batzordeetan lantzen diren gaien jarraipena egiteko aukera izango dute hemendik aurrera

**A.B.** > ARAMAIO

Udalak batzordeetan lantzen dituen gaien jarraipena egin nahi badute herritarrek, batzorde horietako aktak eskura izango dituzte aurrerantzean; hain zuzen ere, udaletxeko harreran dagoen apalategian ipiniko dituzte akta horiek.

**UDALEKO BATZORDEAK**

Zazpi batzorde daude Aramaioko Udalean: Euskara, Kultura, Hirigintza, Ongizatea, Ogasuna, Zerbitzuak eta Mendi Ingurumena. Horietan guztietan Udal Gobernuko kide bat dago batzordeburu eta gainerako batzordekideak udalbatza osatzen duten alderdietako zinegotziak dira. Herritarrek ere har dezakete parte batzordeetan; Hirigintzakoan eta Kulturakoan, esaterako, herritar talde batek badihardu lanean.

Kultura batzordea hilean bitan biltzen da; hileko lehenengo eta hirugarren eguaztenetan, 18:00etan.

Euskarakoak, berriz, hilean behin egiten du bilera; hileko azkenengo astean, baina, eguna aldatu egiten da landu beharreko gaiaren arabera.

Zerbitzu eta Hirigintza batzordeak, bestetik, astean behin elkartzen dira. Dena dela, Asier Agirre alkateak azaldu du euren asmoa dela batzordea bera hamabost egunean behin biltzea, talde teknikoak astero biltzen jarraituko duen arren.

Ogasun, Ongizate eta Mendi Ingurumeneko batzordeek, azkenik, ez dute biltzeko egun zehatzik. Gaien arabera erabakitzen dute noiz elkartu.

**KULTURA** > ZINEA

## Domekan hasiko dira berriz umeendako zine emanaldiak

Udazkenarekin batera iritsi da, berriz ere, domeka arratsaldeetan filmak ikusteko garaia

**A.B.** > ARAMAIO

Eguraldi txarrari eta hotzari aurre egiteko, umeendako plan aproposa da kultura etxean, epeletan, filmak ikustea. Domeka honetan hasi eta maiatz ingurura arte, domekero film bat ikusteko aukera izango dute Aramaioko gaztetxoenek.

*Ahatetxo itsusia eta ni* filmarekin hasiko dute zine emanaldien programa. Ahatetxo itsusiaren eta Ratsoren –bere ama– istorioa da film horrena. Berez, ahatetxoaren aita da Ratso, baina oskoletik atera eta ama deitzen dionean ahatetxoaren ama izango dela erabakiko du Ratsok. Hori horrela, ahatetxoa zaintzeko ardura hartuko du. Dena dela, ez da erraza izango; hiriko arratoiengandik eta hegazti maltzurrengandik ihes egiten duten bitartean jateko zerbait aurkitu beharko dute.

> GOIENA TELEBISTA

### Asier Agirre alkatea 'Goiena magazinea' programan izango da azaroaren 6an, eguenean

GOITBk *Goiena magazinea* programa berria hasi zuen urriaren amaieran. Saioak eguenetan bailarako alkateei eskainitako tartea dauka, *Alkatearekin zuzenean*. Arrasate, Elgeta eta Bergarako alkateak pasa dira dagoeneko platotik eta datorren eguenean Asier Agirre alkatearen txanda izango da. Herritarrek parte hartzeko aukera izango dute; euren galdera zuzenean egin ahal izango diote alkateari. Telefonoz edo Internet bidez egin ditzake galderak herritarrak. Telefonoz egitekotan, 943 25 05 05 zenbakira deitu behar da edo SMS bat bidali 5533 zenbakira: *AZ* idatzi, espazioa utzi eta egin nahi den galdera idatzita. Horrez gain, *magazinea@goiena*.com helbide elektronikora ere idatz daiteke. Saioa 19:45ean hasiko da GOITBn.



Udalbatzako kideak martitzenean, urriak 28, egindako ohiko osoko bilkuran. MIRARI ALTUBE

**UDALA** > ORDENANTZA FISKALAK

# Zaborra %10 igoko dute, eta gainerako udal zergak, %4,5

## Automobil txikienen zerga ez dute igoko, baina potentzia handidunena, bai: %4,5

## Udalaren garajeko tokiak zozketatuko dituzte, eta horretarako banaketa berria egin dute

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Martitzenean, hilak 28, egin zuen udalbatzak ohiko osoko bilkura. Ordenantza fiskalak onartu zituzten; hau da, udal zerga eta tasek 2009an izango dituzten igoerak. Eusebio Villar alkateak iragarri zuen zerga gehienak KPI igoko dituztela, eta Gatzagan irailetik irailerako KPI hartzen dute kontuan igoerak aplikatzeko; hau da, %4,5. Hala, ondasun higiezinen gaineko zergak eta urak %4,5eko igoera izango dute. Zaborraren kasuan, Mankomunitateak aholkatutakoa beteko dute: orain, %10eko igoera ezarriko diote, eta hemendik sei hilabetera, %24raino igoko dute.

Automobilen zergaren kasuan, potentzia txikiena duten hiru kategoriei, hau da, ohikoei ez diete igoerarik aplikatuko, eta potentzia handikoei –4x4 ibilgailuak, furgonetak…– %4,5. Iaz ere ez zuten ohiko autoen zergarik igo, Gatzagan derrigorrez behar dela automobila arrazoituta. Pilotalekua erabiltzearren ordaindu beharreko tasa dagoenetan uztea erabaki dute, eta 3 euro ordaindu beharko dituzte ordubete erabiltzearren. Hala ere, alkateak adierazi zuen argiaren kostua zenbatekoa den zehatz jakitea komeni dela eta horren arabera datorren urtean igotzea pentsa daitekeela. Udal tramiteak egitearren kobratzen diren tasek ere ez dute igoerarik izango, eta abereak mendian ibiltzeagatik kobratzen direnek ere ez. Azken horien gaineko erabakia abeltzainen elkarteak hartu behar du, baina sortu bitartean –abendu inguruan– Udalak ezarri du.

**GARAJEKO TOKIEN ZOZKETA**

Villarrek iragarri zuen pilotaleku azpian dagoen Udalaren garajeko lekuen zozketa egin behar dela aurten. Lehenengo, zein herritarrek gura duen galdeketa egingo dute, eta ondoren zozketatu. Gainera, garaje barruko tokien banaketa ez zegoen ondo eginda lehen, eta berria egin dute. 20 automobilendako lekua dago, baina bi toki ezin erabilita dituzte orain –patineteekin ibiltzeko *U*-a dagoelako gordeta. Udalaren asmoa da lehenbailehen kentzea bertatik *U* horren zatiak, eta bi motorrendako eta bi quadendako tokia egitea.

Garajeok bi urterako zozketatuko dituzte aurreko baldintza berberetan, eta gura izanez gero beste bi urte luzatu ahal izango dira. Garajearen tasak ere %4,5eko igoera izango du 2009an.

**KONTRATU HAUSTURA**

Bestalde, gatz museoa eta Labidea denda kudeatzen dutenen eta Udalaren arteko kontratua apurtzea onartu zuten osoko bilkuran. Amaia Olabe eta Aitziber Gorosabelek 2003ko martxoan zabaldu zuten Labidea denda, eta gatz museoaren ardura hartu. Orain, ardura horiek uztea erabaki dute, eta orduan jarritako fidantza itzultzea onartu zuen udalbatzak. Villarrek gaineratu zuen: "Aitziber Gorosabeli eskatuko diogu beste hiru hilabetez jarraitzeko lanean". Gainera, gertu dago Udala 2007an hitzartutako 300 euroak ematen jarraitu eta, galerak izanez gero, bere gain hartzeko. Gorosabelekin elkartzeko asmoa azaldu zuen alkateak, guztiaren berri eman eta adostasuna lortzeko. Behin hiru hilabeteok pasatutakoan, denda eta museoarekin zer egin erabaki beharko dutela gaineratu zuen.

## Gaztainuzketako mendi etxeak, zabalik berriro

Ia bi hilabete itxita egon ostean zabaldu dituzte berriro Gaztainuzketako mendi etxeak. Bertan bizi diren Amaia Olabe eta Xabier Jausoro aretxabaletarrek hartu dute etxeen ardura, eta eguaztenean inauguratu zuten denboraldi berria. Lehen legez, lo egiteko aukera eskaintzen dute, eta jatekoa ere bai: plater konbinatuak eta ogitartekoak, eta aste barruan menuak ere bai.



M.A.

> PARROKIA

## Bihartik aurrera, San Millan parrokian esango dute meza

Bihar, azaroak 1, hasi eta datorren maiatzera bitartean herriko San Millan parrokian esango dituzte mezak. Arrazoia da negu sasoian sartuta gaudela; hala, herritarrek ez dute Dorletako santutegira joan beharrik izango. Betiko legez, 12:30ean dira.

Arantzazuko santutegitik datorren Martin Mendizabal frantziskotarrak esaten ditu mezok Gatzagan, baina, osasun arazoak tarteko, oraingoan ezingo da joan. Hala ere, ordezkoren bat izango da Domu Santu eguna ospatzeko.

> ZIKLO-KROSA

### Ander Altube oñatiarra, Pobesko lasterketan onena

Joan den domekan Pobesen (Araba) egin zuten Euskadiko Txapelketa barruan ziklo-kros lasterketa, eta bertan Ander Altube oñatiarra nagusitu zen. Gero argitu egin bazuen ere, lehenengo orduan behe-lainoa eta tenperatura hotzak izan zituzten. Ulmako txirrindularia 29 ziklisten artean nabarmendu zen, eta bigarren sailkatuari 12 segundoko tartea atera zion.

Oraingo asteburuan, berriz, Karrantzan (Bizkaia) egingo dute ziklo-kros lasterketa.

> FUTBOLA

### Bihar jokatuko du Mondrak eta domekan Aloñak eta UDAk

Joan den astean Vasconiaren zelaian lortutako hiru puntu baliotsuek ematen duten lasaitasunarekin hartuko du Mondrak bihar Real Union (16:30).

Aretxabaletak, berriz, aste barruan ondo gozatu du Deban egindako 0-7koaz. Domekan, baina, bosgarren lekuan dagoen Zumaiako izango dute aurrean (16:30) eta hurrengo erronka etxean irabaztea da.

Aloña, azkenik, eskuhutsik itzuli zen joan den astean, eta Vasconiaren bisita izango dute domekan (16:30).

> MENDIKO DUATLOIAK

### Antxintxika, hirugarren Green Cup Txapelketan

Joan den astean Antxintxika Triatloi Taldeko Juan Sanchez, Miguel Vazquez, Roberto Vazquez, Patxi Torres, Xabi Ugarte eta Aitor Rementeria Calatayuden (Aragoi) izan ziren, Europako mendiko duatloi txapelketan. Taldeko kideek lan ona egin zuten, eta taldeka hirugarren sailkatu ziren –Euskadiko ordezkari moduan lehiatu ziren. Horri esker, Portugalen egingo duten lasterketara gonbidatu dituzte.




La Caixako ordezkari Ane Miren Carracedo, Aretxabaletako alkate Inazio Garro eta Kirol teknikari Asier Muxika, eguaztenean egindako aurkezpen ekitaldian. XABIER URTZELAI

**SARIAK** > DEBAGOIENEKO KIROL SARIAK

# Abenduaren 20an Debagoieneko Kirol Sariak banatuko dituzte

"Debagoienean kirol esparruan jo eta su lanean dabiltzan lagunak saritzea da helburu nagusia"

Ekimen horrek ez ditu eliteko kirolariak bakarrik sarituko, baita entrenatzaileak, babesleak...

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

Eguaztenean aurkeztu zuten Debagoieneko Kirol Sariak ekimena, Aretxabaletan. Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok adierazi moduan, ibarreko kirolariak eta kirol jardueren atzean dauden lagun eta elkarteak saritzea da asmoa: "Ibarreko kirol esparruan makina bat lagun dabil jo eta su lanean, eta horiek saritzea da ekimen honen helburu nagusia, lan hori publikoki errekonozitzea. Batetik, 2008an kirolari onenak izan direnak saritzea; eta bestetik, kirol sare horren sostenguaren alde egunero lan isila egiten dutenak ere saritzea: prestatzaileak, zuzendariak, babesleak..."

**14 SARI IZANGO DIRA**

Sari banaketa abenduaren 20an Arkupen egingo duten ekitaldian burutuko dute, eta guztira 14 sari banatuko dituzte: 2008ko emakumezko eta gizonezko kirolari onenaren saria; kirol talde onenaren saria; kirol teknikari onenaren saria; kirol ibilbidearen saria; kirol babeslearen saria; kirolari anonimoaren saria; Udalen saria –Aretxabaletako, Eskoriatzako, Oñatiko, Leintz Gatzagako, Aramaioko eta Elgetako udalek egin dute bat ekimenarekin–; eta herritarren saria.

Hala, aurreko sariak epaimahai batek erabakiko baditu ere –herritarrek egindako proposamenak kontuan hartuta–, azkeneko saria herritarrek erabakiko dute. Hori guztia egiteko, hau da, beste sarietarako proposamenak egiteko, eta herritarren sariaren aldeko botoa emateko, eskuorri bat duzue ibarreko La Caixako bulegoetan –Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin. Horrekin batera, botoa emateko beste modu batzuk ere izango dira, *www.dks08.net* eta *www.goiena.net* webguneen bitartez; hori bai, azaroaren 6tik aurrera.

Herritarren sariari dagokionez, Debagoieneko bizilagunek bost aukera hauetako baten alde egin beharko dute: Zuhaitz Ezpeleta (Arrasate, mendi lasterketak), Maider Unda (Aramaio, borroka librea), Reyes Azkoitia (Bergara, pilota), Fernando Zufiria (Arrasate, atletismoa) eta Joseba Iñurrategi (Eskoriatza, pilota).

> PILOTA

### Asegarceren eskutik, pilota jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza, Eskoriatzako pilotalekuan, ilunkaran

Eskoriatzako Udalak pilota jaialdia antolatu du gaur arratsalderako. 20:00etan hasita Chafeek eta Escuderok Saralegiren eta Apraizen kontra jokatuko dute jaialdiko lehenengo norgehiagokan.

Norgehiagoka estelarrean, berriz, bigarren mailako lau t'erdiko txapelketako norgehiagoka izango da ikusgai. Hor, Aimar Olaizolarekin batera eskuz binako txapeldun izan den Oier Mendizabalek Oteitza izango du aurrean. Jaialdia ikusi ahal izateko pilotazaleek 6 euro ordaindu beharko dituzte eta 14 urtetik beherako gaztetxoak doan sartu ahal izango dira pilotalekura.



Oier Mendizabal Eskoriatzan izango da gaurko jaialdian. GOIENKARIA



**ATLETISMOA** > IV. SERVIMASA SORALUZE-BERGARA KROSA

# "Elitekoekin batera, herriko korrikalariak gura ditugu"

## Bihar arratsaldean egingo dute Servimasa Soraluze-Bergara krosaren laugarren ekitaldia, eta antolatzaileek 300 korrikalari espero dituzte

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Antolatzaileek martitzeneko aurkezpenean onartu moduan, biharko krosari begira dagoeneko dena dute gertu: "Internet bidez egindako izenematea inoiz baino hobeto joan da; iaz 253 lagun animatu ziren, eta aurten 300 lagun espero ditugu", adierazi zuen Aitor Rementeriak.

Parte-hartze horren barruan, antolatzaileek herriko korrikalarien aldeko apustua egin dute: "Ritxar Fernandezek esan digu probara etorriko dela, eta Zuhaitz Ezpeleta etortzea ere gustatuko litzaiguke. Badakigu, baita ere, azken orduan Afrika aldeko hainbat korrikalari ere etor daitezkeela, atletismora ere krisia iritsi delako, eta horrelako lasterketetako diruarekin egiten dutelako aurrera. Gure asmoa ez da, baina, proba-ra elite mailako korrikalariak bakarrik erakartzea, herriko jendea gura dugu". Hala, herritarren parte-hartzea sustatzeko, aurten koadrilendako ere aparteko sari bat egongo da, eta, noski, horrek gatz gehiago jarriko dio probari.

**BABESLEEN GARRANTZIA**

Antolatzaileek, gainera, hasieratik eskertu gura izan zuten Bergarako Udalaren eta Servimasaren laguntza: "Argi esan gura dugu euren laguntza barik ezinezkoa izango litzatekeela kros hau egitea".

Antxintxikak 11.500 euroko aurrekontua du proba antolatzeko, eta, diru horri esker, besteak beste, korrikalariek txiparekin egingo dute bihar korrika. Horrekin batera, korrikalari guztiei elastiko tekniko bat ere oparituko die Antxintxikak. Bestalde, 16:00etan hasita gaztetxoen lasterketak egingo dituzte Bergaran.




Martin Etxeberria, Aitor Rementeria, Mikel Etxaniz eta Jose Mari Barrena, martitzeneko aurkezpenean. X.U.

> ATLETISMOA

### Asier Urdanpilleta, Donibane-Hondarribian lehen euskalduna

Asier Urdanpilleta hirugarren sailkatu zen joan den astean Donibane-Hondarribia maratoi erdian (1:12:03). Bernard Mwangi (1:11:35) izan zen onena, eta Aziz Afaadaf bigarren iritsi zen helmugara (1:11:38). Giokela-Antxintxiketan taldeko atletak, baina, korrika lagun ona izan zuen, segundo gutxira helmugaratu zen-eta Ritxar Fernandez (1:12:26).

Bistan da Behobia-Donostiara begira ibarreko atletak sasoian daudela, lehenengo 30 sailkatuen artean zazpi debagoiendar zeudelako.

> FUTBOLA

### Antzuolak eta BTLSk derbia jokatuko dute erregional mailan

Bihar (16:30, Estala futbol zelaia) jokatuko dute Antzuolak eta BTLSk erregional mailako derbia. Sailkapenari begira, Antzuolak puntu premia handiagoa du, azken postuan dagoelako, lau punturekin. BTLSk, berriz, hiru puntu gehiago ditu, eta horri esker taularen erdi inguruan dago kokatuta.

Joan den astean bi taldeetako inor ez zen fin ibili: BTLSk 0-2 galdu zuen etxean liderraren kontra, eta Antzuolak jipoi polita hartu zuen etxetik kanpora, Oriokok 6-2 irabazi zuen-eta norgehiagoka.

> ERRUGBIA

### Arrasatek Kakarraldo Mungia taldea izango du aurrean, domekan

Joan den astean Santanderren galdu eta gero (45-5), Arrasate Errugbi Taldeko mutilek lider izateari utzi diote, eta Bera Berak bete du leku hori. Hala, Igor Isasiren mutilak lehenengo postu hori errekuperatzen ahaleginduko dira domeka eguerdian.

Orain momentuan hiru talde daude 10 punturekin berdinduta, eta hiru talde horietako bi aurrez aurre izango dira domekan Mojategin: Arrasate eta Kakarraldo Mungia.

Neskek, berriz, Durangon jokatuko dute bihar arratsaldean, 17:00etan.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Club Gimnastic.-Reala
Zapatua. 18:30. Tarragona.

Eibar-Levante
Domeka. 17:00. Ipurua.

**Gazteen euskal liga**
Abetxuko-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Gasteiz.

San Inazio-Bergara
Zapatua. 16:00. Adurtzabal.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-EHU Vasconia
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Real Union
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Aretxabaleta-Zumaiako
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
Antzuola-BTLS
Zapatua. 16:30. Estala.

Lagun Onak-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Garmendipe.

Anaitasuna-Mondra
Zapatua. 15:45. Txerloia

Bergara-Ilintxa
Zapatua. 15:45. Agorrosin.

**Bigarren erregionala**
Ikasberri-Bergara
Zapatua. 17:15. Azpeitia.

**Ohorezko mailako gazteak**
Aurrera Ondar.-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zaldupe.

**Lehen mailako gazteak**
Mondra-Elgoibar
Zapatua. 18:30. Mojategi.

Soraluze-Aretxabaleta B
Zapatua. 11:30. Ezozia.

Bergara-Ilintxa
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako kadeteak**
Beasain-Arrasate
Zapatua. 12:00. Igartza.

Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 12:00. Azkoagain.

Aretxabaleta Arizm.-Ordizia
Zapatua. 16:00. Ibarra.

Bergara-Zarautz
Domeka. 11:30. Ipintza.

**Lehen mailako kadeteak**
Eibartarrak-Aretxabaleta B
Domeka. 17:30. Unbe.

Aloña Mendi-Bergara B
Zapatua. 10:00. Azkoagain.

Arizmendi-Urki CD
Zapatua. 10:00. Almen.

**Kadete txiki**
Arrasate-Behobia
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Ohorezko mailako infantilak**
Tolosa-Bergara
Domeka. 11:30. Usabal.

Sanse-Aretxabaleta Arizm.
Zapatua. 10:30. Felix Garin.

**Infantil maila**
Arrasate-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Mojategi.

**Infantil txikiak**
Beasain-Arrasate
Zapatua. 10:00. Igartza.

Aretxa. Arizmendi-Tolosa
Domeka. 11:00. Ibarra.

Bergara-Zarautz
Zapatua. 10:15. Ipintza.

**Emakumezkoen liga**
Eibartarrak-Aloña Mendi
Domeka. 10:30. Unbe.

Arizmendi-Arizmendi B
Zapatua. 15:30. Almen.

Elgoibar-Mondra
Zapatua. 18:30. Mintxeta.

**Emakumezkoen F8 Kadeteak**
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 11:45. Altamira.

**Emakumezkoen F11 Kadeteak**
Arizmendi-Lazkao
Zapatua. 12:00. Almen.

Ilintxa-Mondra
Zapatua. 11:00. Bikuña.

Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 12:00. Ipintza.

**SASKIBALOIA**

**Lehen nazional maila**
MU-Centro de Estudios Mik.
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Kadete mutilak**
Arabako selek.-Gipuzkoa
Gaur. 20:00. Urretxu.

Gipuzkoa-Bizkaia
Zapatua. 12:00. Urretxu.

Bizkaia-Araba
Domeka. 12:00. Urretxu.

**Kadeteak neskak**
Araba-Gipuzkoa
Gaur. 20:00. Urretxu.

Gipuzkoa-Bizkaia
Zapatua. 12:00. Urretxu.

Bizkaia-Araba
Domeka. 12:00. Urretxu.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa**
Urduliz-Ford Mugarri Arrasa.
Zapatua. 11:30. Urduliz.

**Lehen territorial maila**
Decotena-Soraluce BKE
Domeka. 12:00. Zumaia.

**Bigarren territoriala**
Groseko-Arrasate
Domeka. 11:00. Donostia.

Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako gazte maila, gizonezkoak**
Arras. Chapime-Ereintza
Domeka. 11:45. Ituripe.

Usurbil-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Usurbil.

**Gipuzkoako gazte maila, emakumezkoak.**
Citroen Chap.-Bera Bera
Domeka. 10:00. Iturripe.

**Kadete maila, gizonezkoak**
Berezao Aloña-Pulpo
Zapatua. 10:30. Zubikoa.

Irurena-Bergara Txiki
Domeka. 11:30. Ordizia.

**Kadete maila, emakumezkoak**
Bergara-Urnietako
Domeka. 09:45. Labegaraie.

**ERRUGBIA**

**Senior maila, gizonezkoak**
Arrasate-Kakarraldo Mung.
Domeka. 12:00. Mojategi.

**Senior maila, neskak**
Durango-Arrasate
Zapatua. 17:00. Durango.

**Errugbi eskola**
Domekan, 10:00etatik
12:00etara Mojategin.

**PILOTA**

**Gipuzkoako Txapelketa:**
Bergara-Ozkarbi
Gaur. 20:00. Bergara.

Aretxabaleta1-Usurbil2
Aretxabaleta-Eskoriatza
Gaur. 20:00. Aretxabaleta.

Azkoitiko-Arrasateko1
Bergara-Azkoitiko
Ilunpe-Arrasateko
Domeka.20:00.Azkoitia.

**ATLETISMOA**

**4. Servimasa Soraluze-Bergara lasterketa**
Zapatua. 17:00. Soraluzeko plazan. 16:00etan hasita gazteendako lasterketak egingo dituzte Bergaran.



**Arrasatek Kakarraldo Mungia hartuko du domekan**
Arrasateko mutilak puntu kopuru bera duen Kakarraldo Mungia menderatzeko asmoz zelairatuko dira domekan Mojategin (12:00)


Ezagut ezazu zure alderik freskoena
"Txikitan ezagutu nuen nire alderik freskoena,
babarrun-ale lehor batetik zurtoin eder berria sortu zela ikusi nuenean.
Biziak eta naturak aurrera egiten zuten gure harridura eta gozamenerako.
Eta orain, horrenbeste urte pasa direnean, zirrara bera sentitzen dut, baina
Udal Merkatuan oraingoan. Bertan inguru natural batera bainaramate koloreek,
usainek, tratu atseginak eta kalitatezko produktuek.
% 100 naturalak eta oso, oso freskoak direlako."
Eros ezazu zure Udal Merkatuan
udal merkatuak
mercados municipales
aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO



**> TXAPELKETA**
Aramaioar bat, Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan, finalean > 44



**> DANBAKA**
Danbaka musika lehiaketako bigarren zuzeneko saioa, gaur > 45

**> MIKEL FERNANDEZ**
Bergararra da Saioa Etxabarri, eta fisioterapia ikasketak egin ondoren -Italian, besteak beste-, lan hori egiteko zentroa zabaldu berri du jaioterrian > 50



# Zabalotegi berritua Bergarako kultur hutsunea betetzen hasi da

Inaugurazio ekitaldian musika eta dantza izango dira protagonista, gaur, 19:00etan

Aste bukaera guztietan formatu txikiko emanaldiak egingo dira






Eneko eta Miyukiren ikus-entzunezkoa eta *Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino* antzezlana izango dira Zabalotegin, besteak beste. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA

"Zabalotegi areto berrituarekin hasierako pausoa eman dugu Bergarako kultura eskaintzaren hutsunea betetze aldera", dio Maider Osak, Kultura teknikariak. Osak dioenez, "15.000 biztanle inguru dituen herri batentzat ez da nahikoa 120 pertsonarentzako lekua duen areto bat". Zabalotegi nahikoa ez dela garbi dago, beraz. Osak honela azaltzen du: "Ezin gara Zabalotegi aretoarekin geratu. Areto, antzoki edo auditorio handiagoa lortzea da gure helburua". Bergararren kultura gosea aseko duen areto handia egiteko aukerak egon badaude. Orain dela hilabete Bergarako alkate Agurne Barrusok proposatu zuenez, adibidez, Miguel Altuna institutua areto moduan egokitzea aukera bat izan daiteke.

Zabalotegi aretoa Bergarako kultura eskaintzaren hutsunea betetzeko nahikoa ez bada ere, bada zerbait. Herriko kultura talde bat baino gehiago gaurko eguna aspalditik itxaroten dabiltza. Izan ere, kultura arloan sortzen dena erakusteko ezinbestekoa da leku fisiko propioa izatea.

**INAUGURAZIO EKITALDI XUMEA**

Bergarar askok ezagutuko dute dagoeneko areto eraberritua. Izan ere, urriko lehen aste bukaeran ospatu zen IX. Txotxongilo Mostraren bost ikuskizun bertan eskaini ziren. Hala ere, inaugurazio ofiziala gaur izango da.

Irekiera ekitaldian musika eta dantza izango dira protagonista, eta, aretoa bera bezala, ekitaldia xumea izango da: musikaz giroturiko sarrera ekitaldi baten ostean, Mikel Igartua eta Ibane Baseta dantzarien saioa izango da, Udal Txistularien Bandak lagunduta. Gero, Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Musika Eskolako Ganbara taldeak kontzertu laburra eskainiko dute.

**ASTE BUKAERA GUZTIETAN ZERBAIT**

Zabalotegi areto berrian aste bukaera guztietan kultura emanaldiren bat eskaintzea da asmoa. Gainera, kultura arduradunak jakinarazi duenez, emanaldiokin, "adin eta gustu guztiei zuzendutako ekitaldietara ahalik eta jende gehien erakartzeko moduko kultura egitaraua antolatzea da asmoa". Horretarako, ikus-entzunezkoak, ipuin kontaketak, antzerki emanaldiak eta musika saioak eskainiko dira.

Azaroko egitaraua lotuta dago, eta bihar bertan eskainiko da lehen emanaldia: *Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino* antzezlana, hain zuzen ere. Aretoaren kudeaketari dagokionez, Osak aurreratu du ez dutela oraindik aretoaren kudeaketaz arduratuko den pertsonarik aukeratu. Izan ere, asmoa da aurrerantzean teknikari batek izatea aretoa eramatearen ardura.

**ARETO TXIKIAN, SAIO TXIKIAK**

Denetariko kultura ekitaldiak eskainiko dira Zabalotegi areto berrian, baina guztiak formatu txikikoak izatera behartuta daude. Hasteko, Osak gogorarazi duenez, "aretoa nahiko txikia da, eta, azken finean, aretoak berak markatzen du kultura ekitaldiaren muga".

Aretoaren ezaugarri fisikoei erreparatuz, guztira 326 metro koadro ditu areto eraberrituak. Metro koadro horietatik erabilgarriak direnak honela banatzen dira: agertokiak 73 metro koadro hartzen ditu eta eserlekuek okupatzen duten tokiak, berriz, 112 metro koadro. Agertokiaren mailan dauden eserlekuak 120 dira guztira, eta leku eskasa aprobetxatzeko finkoak ez diren eserlekuak jarri dituzte. Beraz, behar denean helburu askotarako aprobetxa daitezkeen 73 metro koadro erabili ahalko dira.

Bestalde, ikusleentzako komunak behean daude, leihatilaren ondoan. Artistentzat, ordea, komun, aldagela eta makillajerako gela agertoki ondoan aurkitzen dira. Azkenik, goiko solairuan kontrol gela eta bulego bat jarri dituzte.

Beraz, gaur ezkero izango da zertaz gozatu Bergarako kultura eskaintza aberastera etorri zaigun Zabalotegi aretoan.

---

HASTEKO, ANTZERKIA

## 'Ino, Ino, Ino badator Bonbardino' antzezlana izango da ikusgai bihar, 18:00etan

Zabalotegi aretoko egitarau ofiziala antzezlan batekin hasiko da. Ane Monna, Oskola eta Karramarroi antzerki taldearen lan horretan haurren aurkako jazarpenaren gaia lantzen da. Gai konplexua da, are gehiago antzezlan baten bidez tratatu nahi bada. Gaiari adarretatik helduz, modu ulergarri, erraz eta dibertigarrian aurkezten den obra da *Ino, Ino, Ino badator Bonbardino*. Une dibertigarria pasatzeko balioko du, baina aukera ona ere izango da ikusle moduan egongo diren haur zein helduek obrako zenbait pasarte euren bizitzarekin konpara dezaten.

Antzezlan dinamikoa da, testua, musika, edukia eta koreografiak erritmo arin baten bidez interpretatzen dira-eta.

---

DATUA

**120**

**ESERLEKU GUZTIRA**

Zabalotegi berriak 120 eserleku ditu. Hala ere, finkoak ez direnez, eserlekuok hartzen dituzten 112 metro koadroak aprobetxatu ahalko dira. Agertokiak, bestalde, 73 metro koadro inguru ditu.

**MUSIKA** > GIPUZKOAKO XII. EUSKAL KANTU TXAPELKETA

# Bea Asurmendi aramaioarra Donostiako finalean izango da

Finala azaroaren 9an izango da, 17:00etan, Donostiako Antzoki Zaharrean; Asurmendik Ken Zazpi taldearen 'Malen' kantua abestuko du

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Euskal Kantuzaleen Elkarteak aspalditik antolatzen du Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketa. Urtetan zehar maiztasuna aldakorra izan bada ere, 2006an lehiaketa urtero ospatzeko erronka hartu zuten, eta oraingoz helburua lortzen ari dira. Aurtengoa dagoeneko lehiaketaren hamabigarren edizioa da.

Urriko hiru aste bukaeratan egin dira txapelketako kanporaketak: urriaren 11n Zumaian, urriaren 18an Villabonan eta hilaren 25ean Azkoitian. Hala, kanporaketa horietan maila onena erakutsi dutenak datorren domekan Donostiako Antzoki Zaharrean jokatuko den finalean izango dira. Txapelketara hiru debagoiendar aurkeztu ziren eta bat finalean izango da: Bea Asurmendi aramaioarra. Asurmendik bakarlari moduan jardungo du, eta gitarra eta guzti, Ken Zazpi talde gernikarraren *Malen* kantua interpretatuko du. Finalean ordezkari debagoiendar bakarra, beraz.



Bea Asurmendi, Villabonako kanporaketan. EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEA

**MAILA ONA**

Txapelketak hiru modalitate ditu: bakarlariak, bikoteak eta taldeak; eta finalean bi taldek, zazpi bikotek eta zortzi bakarlarik –tartean Asurmendi– hartuko dute parte. Antolakuntzak balorazio positiboa egin du kanporaketek izan duten parte-hartzearekin eta protagonistek erakutsitako mailarekin. Hori horrela, finalerako sailkatuak aukeratzea, Ainhoa Ansa Euskal Kantuzaleen Elkarteko kideak adierazi duenez, "ez da une polita izan". Horrelakoetan gertatzen denez, ez da lan erraza izan batzuk hartu eta beste batzuk kanpoan uztea.

Txapelketan oso maila ona egon dela dio Ansak, eta, guztiei eskerrak emateaz gain, etorkizunean eurekin harremanetan egotea espero du: "Urtean zehar elkarrekin gauza oso politak egin ditzakegu".

**KANTU ZALETASUNA BULTZATU**

*Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko*, dio esaerak. Tamalez, kantuan egiteko ohitura –euskaldunon kultura izaeraren parte dena– azken urteetan galtzen ari da. Eta hori ekiditea da, hain justu ere, Gipuzkoako Kantu Txapelketa antolatzen duen Euskal Kantuzaleen Elkartearen helburuetako bat; kantatzeko euskaldunok daukagun ohiturari eustea, alegia.

Bestalde, euskal kantuan dagoen "errepertorio aberatsa" berreskuratzea eta ezagutaraztea ere nahi du elkarteak. Baita euskararen eta euskal kantuaren inguruan Gipuzkoako kantari gazteak eta hasiberriak batzea ere. Abeslari gazteak elkartzeak, dio Ansak, "kantu eta kantari berriak plazaratzea" ahalbidetuko luke.

Euskal Kantuzaleen Elkarteak, bere zeregin horretan, Euskal Kantu Txapelketaz aparte beste hainbat ekitaldi antolatzen ditu. Besteak beste: haur kantarien jaialdiak, kantu zikloak eta Lourdes Iriondoren omenezko kantaldia.

## "Sorpresa izan da sailkatzea; maila handia zegoen"

**J.B.** > ARRASATE

**Iaz ere hartu zuen parte Bea Asurmendik (Aramaio, 1991) txapelketa horretan. Iaz taldeka izan bazen ere, aurten bakarlari moduan egongo da Donostiako Antzoki Zaharreko finalean.**

**Nola joan zen kanporaketa?**

Urduri nengoen, eta, gainera, hasieran musikarik gabe hasten naiz abesten. Ahotsa gitarrarekin nahastean lasaiago jardun nuen.

**Espero zenuen finalerako sailkatzea?**

Sorpresa izan zen, bakarlari asko zeuden-eta. Aurten oso maila handia egon da; gainera, azken unean erabaki nuen bakarlari moduan joatea.

**Finala irabazteko moduan bai?**

Zaila izango da, maila handia egongo da-eta; txapelketan parte hartzearen esperientziarekin geratzen naiz.



ARRASATEKO PARROKIAKO KORUA

## Arrasateko parrokiako korua ezin hobeto ibili da Vatikanora egindako bisitan

Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiako korua Vatikanoan izan zen joan den aste bukaeran. Arantza Uriarte zuzendariak "ezin hobeto" ibili direla aitortu digu. Aita Santuarekin egoteko aukerarik izan ez duten arren, haren bedeinkapen agiri bat jaso dute. Parrokiako koruak meza bitan kantatu zuen, eta emanaldiak "oso ondo" egon zirela dio Uriartek. Gainera, turismoa egiteko ere aprobetxatu zuten; ahalik eta gauza gehien ikusteko bi taldetan banatu ziren.

> MUSIKA

### Hainbat kolaborazio Juan Carlos Irizarren disko berrian

Juan Carlos Irizar musikari oñatiarrak *Euskal abesti enblematikoak* deritzon diskoa kaleratu du. 26 kantu biltzen dituen diskoan, besteak beste, Xabier Euzkitzek, Belen Madariagak, Asier Muniategik, Jose Antonio Villarrek, Marian Larreak eta Galdakaoko Ganbara Abesbatzak hartu dute parte. Diskoarekin batera 38 abestiren partiturez osatutako liburua atera du.

> ANTZERKIA

### Aretxabaletan ere ezin izango da 'Ohean' antzezlanaz gozatu

Arrasaten gertatu bezala, Maskarada taldearen *Ohean* antzezlana bertan behera geratu da, aktoreetako bat gaixorik dagoelako.

Maskarada eta Glu-Glu taldeen lan horretan Carlos Panera da zuzendaria, eta Aitor Beltran eta Matxalen de Pedro dira aktoreak.

**MUSIKA** > DANBAKA

# Heavy metala, metal eta hardcorearen batuketa eta rocka zentzu zabalenean

Bergara, Aretxabaleta eta Eibar aldeko taldeak ikusteko eta entzuteko aukera izango da gaur, egubakoitza, Espaloian

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Danbakaren hirugarren edizioko lehenengo kontzertua pasatu da, eta, hortaz, zuzenekoetako motor guztiak piztuta daude dagoeneko. Lehenengo emanalditik taldeek maila handia erakutsi dute eta ikusleek ere ederto erantzun zuten, Espaloia berotu eta giroa sortuz. Ea horrela jarraitzen duen!

Kontzertu-egubakoitzero moduan, lau talde eta lau eskaintza zeharo desberdin. Horien artean, badira rocka zentzu oso zabalean landuko duten taldeak, gitarren doinuarekin edo teklatuarekin ondo aberastutakoak. Horren adibide dira Ni_Neu eta Adi Holden, esaterako.

**HEAVYA ETA HARDCORE-METALA**

Baina doinu gogorragoak ere entzun ahal izango dira. Hala, Lord Witch taldeak power metala landuko du, ahots melodia eta gitarra landuekin, heavy patroiekin agintzen duten moduan.

Eta, bestalde, Scam taldeak izan duen garapena zuzenean ikusteko aukera izango dugu. Punk-pop edo hardcore melodikotik abiatuta, hardcorea, metala, emocorea eta melodia batzera heldu dira aspaldian.

**KONTZERTUA**

Gaur, egubakoitza. 22:30.
Elgetako Espaloia.
5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

> Ni_Neu
> Scam
> Lord Witch
> Adi Holden



**NI_NEU** | Eibar

Ni_Neu talde askotan (Kafha, Jak...) ibilitako Aitor Sologaiztoa musikari eibartarraren proiektua da. 2003an hasi zen idea horri forma ematen, eta 2006an lehenengo maketa grabatu zuen, etxean; instrumentu guztiak Sologaiztoak berak grabatu zituen. Ni_Neu taldeak rocka, doinu lasaiak eta elektronika batzen ditu, teklatuaren protagonismo handiarekin eta emozioa oso presente dagoela. Dagoeneko hainbat musikari batu zaizkio eta taldea osatzen dabil, baina beste musikari batzuen premian dago.



**SCAM** | Aretxabaleta

Scam taldea Aretxabaletako Mikel, Imanol, Paulo eta Anderrek osatzen dute. Oso-oso gaztetxoak zirela, punk-popa edo hardcore melodikoa egiten hasi ziren, eta Danbakako bigarren edizioan zuzenean jotzeko sailkatu ziren.

Gerora, baina, garapen handia egin dute: gaur egun, hardcorea, metala, emocorea eta melodia batzen dituzte, Berri Txarrak-en eraginak gehituz. Ingelesez eta, tarteka, euskaraz abesten dute.



**LORD WITCH** | Bergara

Bergarako laukote hori 2004an sortu zuten, eta ordutik hona oso argi izan dute euren jomuga heavy metal melodikoa edo power metala dela. Partaideen artean hainbat aldaketa izan badituzte ere, Iker, Jorge eta Eugek hasieratik dihardute proiektu horretan buru-belarri. Horiei azkenekoz Eugenio batu zitzaien. Gazteleraz abestutako kantuetan oso presente daude ahots argi eta melodikoa, gitarra riff indartsuak eta baita bateria erritmo gogorrak ere.



**ADI HOLDEN** | Bergara

Adi Holden talde berri samarra da, iaz Bergaran sortutakoa. Luzaroan Cool Panic talde rockeroan aritutako Alex Muela da abeslari eta gidaria, eta harekin batera Arturo, Txarli eta Ruben musikari eskarmentudunak daude. Oraingo proiektu honetan, berriz, estilo koordenada zeharo aldatu dute eta rocka ikuspegi oso zabalean lantzen dute, gitarrei ukitu berezia emanez eta oraingoan, iraganean egin ez zuten moduan, euskara erabiliz, gainera.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Goiena.net

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Altzola.** Pisua salgai Altzolan. 3 logela, sukaldea, komuna eta despentsarekin. 108.000 € (negoziagarriak) 680 70 76 39.

BERGARA

**Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin.**

**610 73 65 40**

**Arrasate.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai San Andresen, Bañez Doktorea kalean. Berrikuntzak behar ditu. 162.273 euro. 629 10 41 31.

**Baiona.** Baionan San Leon auzoan 40 m2ko egoitza-terraza: 12m2 hegoaldea, sukaldea, haize egokitua, igogailua, 3. eta azken solairua, sotoa, aparkalekua kanpoan. 00-33-(o) 624 58 21 52

**Bergara.** Bergaran 75 metro koadroko etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Hiru logela, trastelekua eta arropak eskegitzekoa. Terraza eta barbakoa. Aire girotua. Bi aparkaleku. Eguzkitsua eta leku lasaian, berritua eta egoera onean. 198.000 euro. 943 76 07 50

**Bidegoian.** Etxebizitza berria, primerako materialak, 3 logela, 3 bainu , egongela ederra, garajea,lorategia, leku lasaian, Bidegoianen. 609 86 05 45 edo 606 36 24 39.

**Bilbo.** Alde zaharreko metrotik 7 minutura, ingurune lasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko modukoa. 74 m2. 4 logela, berogailu indibiduala (gasa), igogailua, trastelekua eta garaje plaza 1 (alokairuan). 944156749.

**Eibar.** Legarre-Gain kalean pisua salgai. Logela bi, sukalde-egongela eta komuna. Guztiz berriztua. Eguzkitsua. 150.000 euro. Ordaintzeko erraztasunak. Tel. 665 72 85 04.

**Eibar.** Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi, balkoia eta despentsa. 43, 9 milioi pezeta. Tel. 653 73 33 57.

**Elgeta.** Duplexa salgai. Hiru logela eta bi bainugela. Modernoa eta erosoa. Beheko sua. Guztiz jantzia. 210.000 euro. 685 75 18 91.

**Elgoibar.** Pabilioia salgai Elgoibarren, Olaso poligonoan 200m. Bulegoa prestatua. Telefonoa 639 31 32 93

**Elgoibar.** Pisua salgai Elgoibar erdigunean, guztiz erreformatua, bizitzera sartzeko. 639 07 45 42.

**Elgoibar.** Etxea salgai Mutrikuko Samikolla pasealekuan. Oso bista ederrak, 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpoalderantz, ganbara, Gas Ciudad eta altzariekin saltzen da. 670 58 84 80.

**Elgoibar.** Etxea salgai San Ignazio 3an: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Oso argitsua, balkoiduna, bista onak, ganbara, igogailua, gas naturala, altzariekin, guztiz berritua. 690 78 66 18.

**Etxarri Aranatz.** Pisua salgai Etxarri Aranatzen. Eraikin berria eta mustutzeko. 2 logela, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. Bista paregabeak. Interesatuek hots egin 687 73 65 55 telefonora

**Etxarri Aranatz.** Etxarriko zentroan etxebizitza salgai. Egongela, 3 logela, 2 komun, trastelekua eta garajea. Salneurria: etxebizitza eta garajea 156.000 euro (etxebizitza bakarrik: 150.000 euro) Tel.: 609 71 60 23.

**Fresneda.** Goitik behera eraberritzeko dagoen 140 metro karratuko harrizko etxea saltzen dugu, 390 metro karratuko hiripartzelan. Argia eta ura sartzeko ditu, baina etxearen ondoan daude. Gaubeako udalerrian dagoen Fresneda herrixkan dago (Araba), Valderejoko natur parkearen ondoan. Telefonoa: 615 72 11 20.

**Ikaztegieta.** Etxebizitza salgai Ikaztegietan. Herriaren erdigunean kokatua. Igogailuarekin eta bi balkoi ederrekin. Deitu iluntzetan: 628 69 88 07 eta 666 61 57 66.

**Itsasondo.** Etxebizitza oso merkea. 80m2. 4 gela. Etxetik irten eta zure berdegunea, terraza, txoko, oilategi, eta baratzea edukitzeko aukera daukazu. Etxeak berrikuntzak behar ditu. Herriak zerbitzu anitzak ditu: eskola, haurreskola, medikua, jatetxea, ostatua, jangela, tren geltokia, zaintza, musika eskola... 696 21 81 95.

**Lakuntza.** Babes ofizialeko pisua Lakuntzan, 3 logela, 2 komun, garaje eta trastelekua. Informazioa: 618 08 21 14

**Lasarte-Oria.** Salgai lokal bat Andatza plazan, 2. zk. Etxebizitza egiteko modukoa. 60 metro karratu ditu eta argitsua da, argi naturala du. Tel.: 943 36 37 22, Cecilia Arbizu.

**Lekeitio.** Pisua salgai lekeition. Bi logela, ezkaratza, egongela, komuna eta sarreraduna. Berriztatuta eta jantzita. Deitu 688 69 63 36 zenbakira.

**Markina-Xemein.** Atikoa salgai Markina-Xemeinen, Okerra kalean. 40 metro karratutakoa. Prezio negoziagarria. 676 02 34 37.

**Oñati.** 116 metro koadroko duplexa salgai erdigunean. Lau logela, sukaldea, bi komun eta egongela. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

**Oñati.** 79 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Guztiz jantzia. Hiru logela, bia bainugela, sukaldea, egongela, ganbara eta garajea. Oso eguzkitsua. Prezioa adosteko. 680 44 95 55.

**Oñati.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai Kale Barrian. Bi logela. Oso prezio interesgarria. 652 75 60 52.

**Oñati .** 116 metro karratuko duplexa salgai erdigunean. Lau logela, sukaldea, bi komun eta egongela. Prezioa adosteko. 635 71 41 39

**Oñati .** 79 metro karratuko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezioa adosteko. 635 71 41 39.

**Ormaiztegi.** Ormaiztegin etxebizitza salgai. Herriaren erdigunean kokatua. Igogailua, 3 logela, sukaldea, 3 bainugela, ganbara eta balkoi ederrarekin. 630 45 66 62

**Tolosa.** 85m karratuko etxebizitza, 500m karratu terrenoarekin, Tolosan bertan. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugela ditu. Terraza konpartitua. Gela guztiek (bainugelak ere bai) leihoa dute. Eguzkitsua. Prezioa: 45 milioi pezeta negoziagarriak.Telefonoa: 606 96 64 32. Posta: *olatzgaba@yahoo.es.*

**Urdiain.** Pisua salgai Urdiainen. Interesatuek deitu 648 22 80 79 edo 659 89 59 08 zenbakietara.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Altsasun logela bat alokatzen da sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Interesatuek hots egin 606 00 23 40 telefonora.

**Arrasate.** Arrasate. Bikote arduratsu eta garbiak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Andoain.** 2 logelako etxebizitza ematen da errentan. Guztiz eraberritua, bikote batentzat aproposa. Igogailua, trastelekua. 70m karratu, 2 logela, sukaldea eta egongela bat eginik eta komuna. Guztiz eraberritua. Azaroaren 1etik aurrera erabilgarri. Oso argitsua. 650 41 24 15

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Oso ekonomikoa. Hiru logela eta egongela. Bikote edo ikasleentzat egokia. Jose Angel eta Laura. 615 74 32 79 edo 696 79 43 88.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan urtarriletik aurrera unibertsitate ondoan. Hiru logela. Berogailuarekin. 653 72 55 85 edo 620 31 33 72.

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Berogailu zentrala dauka. Igogailua. 605 77 51 71.

**Asteasu.** Neska gazte batek pisua bilatzen du alokairuan Asteasu, Aduna, Amezketa, Ikaztegieta edo inguruko herri txiki batean 697 52 20 48.

**Bergara.** Gela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Erdigunean. Eguzkitsua. 627 75 81 94.

**Bergara.** Bergara. Etxe bat errentan hartu gura dut, Bergarako edozein zonatan. Reina. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60

**Bergara.** Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 658 28 90 86

**Bergara.** Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. 699 66 33 63 edo 689 20 13 17

**Bilbo.** Pisu eder eta argitsua, bistak dituena Bilbo hirigunean. Altzari guztiak eta igogailua ere baditu, bizitzera sartzeko prestatua. Berogailua gas naturalarekin. 658 71 46 97

**Canfranc (estazioa).** Ski denboraldirako aproposa (alpinoa, iraupenekoa, eta abar.). Sei edo lau pertsonentzat aproposa. Bi logela (2+2) eta sofa-ohea saloian. Sukaldetxoa eta komuna. Garajea eta trasteroa barne. Kontaktua: 607 46 31 62 edota *amoxolo@gmail.com*. Argazki gehiago eta deskribapena: *canfranc.blogspot.com.*

**Donostia.** Donostian, Antso Jakitunaren etorbidean, konpartituriko pisuan bi gela alokagai, neska banarentzako. Bata 240 euro eta 330 euro bestea. Deitu arratsaldez, 943 11 10 88 zenbakira.

**Eibar.** Apartamentu edo estudioa alokatuko luke langile batek Eibarren edo inguruan. Deitu 645 00 53 91 telefonora, iluntzean.

**Etxarri Aranatz.** Pisua alokatzen da Etxarri Aranatzen. Etxebizitza argitsu eta handia. 3 logela. Gas naturala. Altzariekin. Toki lasaia. Bizitzera sartzeko. 678 38 49 52.

**Lasarte-Oria.** Pisua alokatzen da Lasarte-Orian, Sasoeta auzoan. Abala eskatzen da. 649 52 67 66

**Lasarte-Oria.** Pisua alokatzen da Lasarte-Oria erdigunean. Abala eskatzen da. 686 67 45 52.

**Lekeitio.** Lekeition 75 metro karratutako etxebizitza alokatzen da, erdigunean. Urte osorako. Deitu 667 20 31 71 edo 687 40 87 71.

**Luz St Sauveur.** Bi logela dituen apartamendua. Ohe handi bat gela batean, bi litera dituena bestean eta ohea bihurtzen den sofa bat sukalde-egongelan; telebista, komuna, dutxa bainuarekin eta balkoia. Herriaren erdigunean. 616 03 61 04. Jon.

**Oñati.** 100 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Ugarkalde auzoan. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. 645 71 98 84.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote arduratsu eta garbiak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Arrasate.** Mutil batek logela hartu nahi du errentan. 645 72 25 24.

**Arrasate.** Logela edo etxebizitza txikia hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Mutil arduratsua naiz, lan finkoarekin. 943 77 07 01 edo 656 66 49 75.

**Bergara.** Etxe bat errentan hartu gura dut, Bergarako edozein zonatan. Reina. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60.

**Bergara.** Bergara. Etxebizitza hartuko genuke errentan familia batendako. 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

**Bergara.** Etxebizitza behar dut errentan. 699 66 33 63 edo 689 20 13 17.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 658 28 90 86.

**Debagoiena.** Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Antzuolan bada hobeto. Presazkoa da. 617 88 20 93.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 659 35 09 30.

**Ibarra.** Emakume batek pisua alokairuan hartuko luke. 2-3 logela eta balkoiarekin, Tolosaldean. 658 73 18 86.

**Idiazabal.** Goierriko bikote batek idiazabalen pisua alokairuan hartu nahiko luke. Interesatuak deitu mesedez 615 75 34 11 zenbakira.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO WWW.DANBAKA.COM
NI NEU
EIBAR
SCAM
ARETXABALETA
LORD WITCH
BERGARA
ADI HOLDEN
BERGARA
BABESLE NAGUSIA
gaztekutxa
LAGUNTZAILEA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgetako Udala
SHOT!
gaztelupeko HOTSAK
SEIN
LORAMENDI KIROLAK
anboto
ANTOLATZAILEAK
Goiena
espaloia

**Saioa Etxabarri** > Fisioterapeuta

# "Batez ere, jendearekin harremanetan egotea eta laguntzea gustatzen zait "

Neska modernoa, berritsua eta alaia da Saioa Etxabarri (Bergara, 24 urte). Fisioterapia ikasketak egitera joan zen Bartzelonara; handik, Bolognara (Italia) joan zen. Han, batez ere, kirolariekin egin zuen lan eta teknika berri bat ikasi zuen: tekarterapia. Orain, Bergaran zabaldu du Felsinee fisioterapia zentroa eta teknika berria zabaldu gura du gure artean.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Ibargarai kalean duen zentroan egin dugu hitzordua Saioa Etxabarrirekin. Egubakoitzean inauguratu zuen zentroa; eta ordutik hona lanean dabil. Gainera, astean bitan dietista eta podologo baten laguntza izango du Etxabarrik.**

**Beti izan duzu argi fisioterapia egin gura zenuela?**

Beti gustatu izan zait fisioterapia, institutura joan aurretik ere bai. Gero, urtebetean, dudatan egon nintzen, baina, egia esan, beti izan dut argi fisioterapia ikasi nahi nuela.

**Zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Jendearekin harremanetan egotea gustatzen zait; eta, baita jendeari osatzen laguntzea ere. Gainera, ikasketak egiteak balio izan dit fisioterapiaren mundua zabalago ikusteko. Hainbat arlo dituela konturatu naiz; ematen du fisioterapia masajeak ematea bakarrik dela, baina hori baino gehiago da: uroginekologikoa, obstetrikoa, pneurologikoa...

Beste hainbat arlotaz gain, haurdun daudenekin lan egiten dut, eta baita inkontinentzia arazoak dituztenekin ere.

**Bartzelonara joan zinen ikasketak egitera. Nolako esperientzia izan zen?**

Fisioterapia ikasketak egitera Bartzelonara joan nintzen. Beti izan dut gustuko Bartzelona, xarma berezia daukan hiria da. Hala, ikasketak han egiteko aukera izan nuen eta pentsatu barik joan nintzen. Han egin ditudan urteak oso politak izan dira. Nire bizitzako esperientzia onenetarikoa izan dela esan daiteke.

Gainera, ez zitzaidan batere gogorra egin Bergara bezalako herri batetik Bartzelona bezalako hiri batera joatea. Lagunak eta familia faltan igarri nituen, baina samur egin nintzen hango bizimodura. Pertsona bezala garatzeko balio izan dit.

**Italian ere egon zara. Nolakoa da hango jendea?**

Karrera bukatu nuenean Bartzelonan geratu nintzen hainbat graduondoko egiten eta gero Italiara joan nintzen lan bila. Han, lan asko dago fisioterapian.

Esperientzia polita izan zen. Orokorrean oso jende jatorra ezagutu dut. Badaude italiar tipikoak, baina orokorrean jende jatorra da.









ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak?** Fisioterapia diplomatura; eta uroginekologia, obstetrizia eta tekarterapia masterrak. **Zaletasunak?** Eskia egitea, bidaiatzea eta lagunekin egotea. **Gorrotatzen duzu zer edo zer?** Garbantzuak; beste jaki guztiak oso gustuko ditut. **Musika talde bat?** Rolling Stones. **Egindako bidaiarik politena?** Italiako hegoaldera egindakoa asko gustatu zitzaidan. **Bizi izateko toki bat?** Bergara. **Parrandarako tokia?** Bilboko jaiak. **Amets bat?** Umeak izatea.

**Eta han, tekarterapia teknika ezagutu zenuen.**

Lan egin nuen zentroan tekarterapia makina jarri berria zuten eta han hasi nintzen hori ikasten. Lehenengo mailako saskibaloi jokalari batekin egin nuen lan. Eguazten batean hartu zuen min; zuntz haustura izan zuen eta zapatuan jokatzeko moduan zegoen. Orduan konturatu nintzen teknika horren benetako abantailak nolakoak ziren.

**Etxera itzuli eta fisioterapia lokala zabaltzea erabaki duzu.**

Bai, beti izan dut gogoa nire fisioterapia zentroa izateko; eta teknika hori ezagutzeak indarra eman dit. Tekarterapia ezagutu izana da zentroa hain azkar zabaltzeko arrazoi nagusia.

**Lagunek masajeak emateko eskatzen dizute?**

Askok. Lagunak gaizki badaude, ematen diet masajeak edo egiten diet tratamendua, baina beti esaten dut ni ez naizela masajista. Fisioterapia eta errehabilitazio bidez osasuna berreskuratzea da gure lana.

**Lanetik kanpo, zer du gustuko Saioak?**

Eskiatzea gustatzen zait, eta egin izan dut baita aerobika eta spinninga ere. Esan daiteke zaletasun gustukoena eskiatzea eta lagunekin egotea dela. Baita lagunekin herriz herri festetan ibiltzea ere. Bestalde, surfa egitea asko gustatuko litzaidake, baina oraindik ez dakit.

**Hortaz, elurra noiz egingo zain zaude?**

Bai; gainera, esaten dute aurten elur gehiago egingo duela. Dagoeneko hasi da mendian elurra egiten. Aste bukaeratan irteerak egiten hasteko gogoz nago.

**Gustuko duzu bidaiatzea?**

Bai, asko gustatzen zait. Mozambiken egon nintzen hilabete eta erdi, fisioterapeuta moduan lan egiten eta baita beste edozer beharretan laguntzen ere. Tunisian, Eskozian, Maia Erriberan... beste hainbat lekutan ere egon izan naiz.

**Aurrerantzean non ikusten duzu zure burua?**

Hemen, lanean ikusten dut. Asko gustatzen zaidan lana da; ez zait gogorra egiten hona lanera etortzea. Beste zerbait ikasi eta eskaintza zabaltzen ahalegindu ko naiz; osteopatia, adibidez.

# Iñigo Segurola 'Ilunpean' saioan martitzen gauean

Iñigo Segurola paisajista izango da 'Ilunpean' saioan datorren maritzenean

**GOIENKARIA** > BERGARA
Iñigo Segurolak, kanpoan, Edinburgon hain justu, egin zituen paisajista izateko ikasketak, Euskal Herrian eta Espainian horretarako aukerarik ez zegoela ikusita. Aurrez, baina, Nekazaritza Perituko ikasketak burutu zituen Iruñean. Bi ikasketak uztarturik, batez ere paisajismoan oinarritu du bere jarduna. Egun, Lur Paisajistak enpresako kide da eta hainbat proiektu dituzte esku artean Euskal Herri mailan. Ezagun egin zuen proiektuetariko bat da Donostiako bulebarrerako diseinatu zuen lorategi-baratzea.

Telebistako saioetan, *Bricomania* eta *Decogarden* saioetan aholkuak ematen ditu.

**'Ilunpean'**
> Martitzena, 21:45
> Domeka, 23:15


Iñigo Segurola, Arrasateko Monterron parkean. IKER BARANDIARAN

## Danbakako zuzenekoak GOITBn

**GOIENKARIA** > BERGARA
Gaur da Danbaka Musika Lehiaketaren bigarren saioa. Kontzertuan, Ni Neu, Scam, Lord Witch eta Adi Holden taldeak ikusteko aukera egongo da Elgetako Espaloian. Gainera, Goiena Telebistak zuzeneko kontzertu horiek ikusteko aukera eskainiko du datorren astean. Martitzenean Eibarko Ni_Neu taldearen kontzertua eskainiko du eta eguenean, berriz, Aretxabaletako Scam taldearen txanda izango da.

**'Danbaka'**
> Martitzena, 20:30
> Eguena, 20:30

GOIENKARIA

## Ibarreko Kirol Sariez jardungo dute 'Harmailatik' saioan

Ibarreko Kirol Sariak izango dira asteleheneko *Harmailatik* saioan protagonista. Horretarako, Xabier Urtzelaik Aretxabaletako Kirol teknikari Asier Muxikaren laguntza izango du. Bien artean, lehenengoz egingo diren Debagoieneko Kirol Sariak zer diren eta nola eta zein helbururekin sortu diren azalduko dute. Horretaz gain, baina, Soraluze eta Bergara arteko krosa ere ikusi ahalko duzue.

**'Harmailatik** > Astelehena, 21:45 > Martitzena, 18:05

### telebegi

**Edorta Arana**
> goiena.net/blogak/hamaika

## Apokaliptikoak eta integratuak

Ikasle nintzela irakurri beharrekoen artean zegoen artikulu honen izenbururako aukeratu dudan Umberto Ecoren liburua. Nik bezala irakurri ez zuenak ere badaki autoreak dioela komunikabideen mezuen aurrean bi jarrera kontrajarri agertzen direla. Batzuek Irakeko gerra, garzonkeriak, finantzen gorabeherak edo negutegi efektuak kataklismoa eta etsipena nagusituko diren sentipenak izango dituzte. Beste batzuek, aldiz, ziklikotasunean, barne-erreforman eta sistemaren baliabideetan jartzen dituztela esperantzak.

Egunotako telebista-albistegiek bizipen berberak sortuko dituzte agian. Baina nago beste bat nagusitzen ari dela, indiferentzia. Eta ondorioz, albistegietako kontuak norberari gertatzen ez zaizkion bitartean, mundua normal dagoela pentsatzea. Brechtek honetaz ere idatzi zuen zerbait, ala?

### arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak, lorategiaren geltokia zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

### astea GOITBn

**Egubakoitza, 31**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Gure saltsan.
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Solaskide: Cecilia Lenoz.
**22:15** Danbaka: The 5 Twisters / Ymotek.
**23:15** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 1**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Perretxikoen mundua.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Danbaka.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 2**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Zarautzeko surf txapelketa.
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Danbaka.
**21:15** Perretxikoen mundua.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 3**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Arte irekia.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikuskizuna.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka: The 5 Twisters eta Ymotek
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Harmailatik.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

**Martitzena, 4**
**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Gazpatxoa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Arte irekia.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Danbaka: Ni neu
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Ilunpean: Iñigo Segurola
**22:30** Ikuskizuna.
**23:00** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 5**
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Zaharrak berri.
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Erreportajea.
**22:30** Perretxikoen mundua.
**23:00** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

**Eguena, 6**
**13:15** Marrazki bizidunak: Katagorriak
**13:45** Perretxikoen mundua.
**14:15** Eltze beroa: Arroza artzo masailarekin.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:30** Danbaka: Scam.
**21:00** Goiena Magazinea.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Erreportajea: Olaia Perurena.
**23:15** Goiena Magazinea.
**23:45** Emisio amaiera.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Gezi-hitzen argibideak:
- Berritsua
- Pl., ale-landarea
- Dozena erdi
- Laztana
- Ikerkuntza
- Arabako mendialdea
- Emakume izena
- Elkartu
- * Irudiko zuhaitza
- Akusazioak
- Presio unitate
- Latz
- Kriptona
- Istu
- Katuaren ume
- (Infin.) Zakuratu
- Utik!
- Azti ezaguna
- Musika nota
- Latzak, gogorrak
- Iodoa
- Röntgen
- Huts
- Tona
- Bokala
- Bokala

GOIENKARIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 8 | 6 | | | | | 4 |
| | 9 | | 2 | | | | | |
| 2 | | 1 | 5 | | | | | |
| | 6 | | | 9 | | | 7 | |
| | 2 | | | | | | 8 | |
| | 3 | | | 1 | | | 4 | |
| | | | | | 8 | 9 | | 5 |
| | | | | | 3 | | 1 | |
| 7 | | | | | 4 | 6 | | |

## hieroglifoa

Nork ekarri zizu oparia?

BASO

A A A A
A A

## hizki salda

Donostiako 5 auzo

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | G | E | L | D | O | A | D | L |
| S | B | M | E | T | U | T | E | A |
| U | R | M | I | Z | G | X | A | E |
| Z | A | J | O | A | I | B | M | U |
| I | S | M | A | R | T | U | A | L |
| A | L | T | Z | I | N | I | R | I |
| U | K | E | G | I | A | Ñ | A | R |
| L | E | A | I | T | U | R | T | O |
| H | E | R | G | R | O | S | I | A |

## soluzioak



**Jeroglifikoa:** Osabak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | K | | S | | I |
| | | | K | A | F | E | A | K |
| | | | | L | E | I | R | E |
| | M | | B | A | R | | K | R |
| S | A | L | A | K | E | T | A | K |
| | K | A | T | A | K | U | M | E |
| Z | A | K | U | R | A | | U | T |
| | L | A | | I | | O | | A |
| G | A | R | R | A | T | Z | A | K |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 7 | 8 | 6 | 3 | 1 | 2 | 9 | 4 |
| 3 | 9 | 6 | 2 | 4 | 7 | 8 | 5 | 1 |
| 2 | 4 | 1 | 5 | 8 | 9 | 7 | 6 | 3 |
| 8 | 6 | 4 | 3 | 9 | 5 | 1 | 7 | 2 |
| 1 | 2 | 5 | 4 | 7 | 6 | 3 | 8 | 9 |
| 9 | 3 | 7 | 8 | 1 | 2 | 5 | 4 | 6 |
| 4 | 1 | 3 | 7 | 6 | 8 | 9 | 2 | 5 |
| 6 | 8 | 2 | 9 | 5 | 3 | 4 | 1 | 7 |
| 7 | 5 | 9 | 1 | 2 | 4 | 6 | 3 | 8 |


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I | G | E | L | D | O | A | D | L |
| S | B | M | E | T | U | T | E | A |
| U | R | M | I | Z | G | X | A | E |
| Z | A | J | O | A | I | B | M | U |
| I | S | M | A | R | T | U | A | L |
| A | L | T | Z | I | N | I | R | I |
| U | K | E | G | I | A | Ñ | A | R |
| L | E | A | I | T | U | R | T | O |
| H | E | R | G | R | O | S | I | A |


## bono fotoa



**Bergarakin muga egiten duen ze herritako kultur etxeko teilatuan aurkitu dezakegu Bergarako harmarria?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar


SUPER AMARA

Super Amarak emandako
60 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..........

..........

IZEN-DEITURAK ..........

..........

TELEFONOA..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara


**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Aretxabaletako **Maria Josefa Iturrospe**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Galderaren erantzun zuzena: Aretxabaletakoak.**

## hildakoak

- **Francisca Gallastegi Elejalde.** Arrasaten, urriaren 23an. 88 urte.
- **Isaias Valderrama Fontecha.** Arrasaten, urriaren 23an. 73 urte.
- **Basilia Garcia Moralez.** Aretxabaletan, urriaren 23an. 83 urte.
- **Pilar Cañamaque Ruiz.** Arrasaten, urriaren 24an. 78 urte.
- **Juan Aiastui Zugasti.** Oñatin, urriaren 25ean. 85 urte.
- **Xabi Elorza Astiazaran.** Oñatin, urriaren 26an. 34 urte.
- **Juan Antonio Lizarralde Jauregi.** Antzuolan, urriaren 26an. 63urte.
- **Isabel Cuadrado Fernandez.** Arrasaten, urriaren 27an. 85 urte.



Aretxabaletako **Felix Eraña** eta Arrasateko **Miren Lasagabaster** 1983ko urriaren 31n ezkondu ziren. Gaur, egubakoitza, bete dituzte 25 urte ezkonduta, eta bihar, zapatua, ospatuko dute urteurrena. Senideen partetik zorionak eta ondo pasa, bikote!



**Sergio Gallego** eta **Joana Lopez** joan zen zapatuan, urriaren 25ean, ezkondu ziren Soraluzen. Zorionak, bikote, eta bidaia on bat izan dezazuela! Koadrilako lagunen guztien partetik patxo handi bana.


# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 25 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 25 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 25 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**
Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle.**




ESKER ONA

## Eusebi Usabiaga Mujika

Txomin Amasorrainen alarguna

Bergaran hil zen 2008ko urriaren 14an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko urriaren 31n.

ESKER ONA

## Basilia Garcia Morales

Aretxabaletan hil zen 2008ko urriaren 23an, 83 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2008ko urriaren 31n.

ESKER ONA

## Juan Antonio Ena Enekotegi

Bergaran hil zen 2008ko urriaren 11n, 85 urte zituela



Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko haren emazte, seme eta sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko urriaren 31n.

ESKER ONA

## Xabi Elorza Astiazaran

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 26an, 34 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2008ko urriaren 31n.

ESKER ONA

## Mikel Celaya Yarza

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.



Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenei,
eskerrik asko haren emazte
eta sendikoen izenean.

Oñatin, 2008ko urriaren 31n.

ESKER ONA

## Juan Antonio Lizarralde Jauregi

Apaiza, misiolari Brasilen

2008ko urriaren 26an hil zen, 63 urte zituela.



Bihotzez eskertu nahi dizuegu
Juan Antonioren azken orduetan eta
ondorengo hileta-elizkizunetan lagundu
eta sendiaren ondoan egon zareten guztioi.

Antzuolan, 2008ko urriaren 31n.

URTEURRENA

## Cesareo Barrena Elorza



Lehen urteurreneko meza
zapatuan, azaroaren 1ean,
12:30an Arrasateko
Santa Teresa elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Juli Arregi Egidazu

Gaspar Ezkurraren alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 1ean,
12:30ean,Arrasateko San Juan Bataiatzailean.

—



*Gure ama, amama eta amandria*
*bost belaunaldi ezagututako emakumea.*
*Bizitza luze horretan zenbat istorio, kontu,*
*patxo eta mimo jaso ditugun zuregandik.*
*Zenbat eta zenbat gauza. Pozgarria eta atsegina*
*izan da benetan zurekin bizitza konpartitzea.*
*Munduko denbora dena pasatuko da, baina zu amama,*
*beti egongo zara gurekin, gure bihotzetan.*
*Patxo handi hundi bat. Zure familia.*

Arrasaten, 2008ko urriaren 31n.


Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Urriak 31-Azaroak 6

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Antzerkia



ARRASATE
**> 'Karabas' antzezlana, Golden Apple Quartet eta Kanpingags-en eskutik**
Botadun katuaren ipuinean oinarritu-ta, familia osoarendako *Karabas* antzez-lana egingo dute Golden Apple Quartet-ek eta Kanpingags-ek bihar, zapatua, Amaia antzokian, 18:00etan. Kantuak eta helduei egindako keinuak dauzka.

## Inaugurazioa



BERGARA
**> Zabalotegi aretoa inauguratuko dute gaur, musika eta dantza emanaldiekin**
Gaur, egubakoitza, egingo dute Zabalotegi inauguratzeko ekitaldia, 19:00etan. Txistulariek, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Orfeoiak, Ganbara taldeak eta Mikel Igartua eta Ibane Baseta dantzariek parte hartuko dute.

## Jaia



ANTZUOLA
**> Saiheski eta trikiti jaia antolatu du Antzuolako Trikitixa Taldeak biharko**
Saiheski-jana eta trikiti eta pandero emanaldiak izango dira bihar, zapatua, Antzuolako Trikitixa Taldeak egingo duen jaialdian, Zurrategiko plazan, 19:00etan. Jasotako dirua V. Debagoiene-ko Trikiti Eguna finantzatzeko izango da.

BERGARA
**> Uberako jaien inguruko logotipo lehiaketa deitu dute**
Uberako jaietarako zapi bat aterako du jai batzordeak, eta horretarako logotipoa aukera-tzeko lehiaketa deitu du Uberan jaio edo bizi direnenda-ko, zein Uberan jaiotakoen seme-alaba eta bilobendako. *San Pauloak Uberan 2009* leloa agertu beharko da logotipoan. Estiloa eta bestelakoak libreak dira. Zapia laranja kolorekoa izango da, eta logotipoa, kolore bakarrekoa.
Norberak lan bakarra aurkez dezake. Honako helbi-dera bidali behar dira: Logoti-po lehiaketa; Jaolatza elkartea; Ubera; 20570 Bergara.
Irabazleak 100 euro eta zapia jasoko ditu.
Lanak entregatzeko mugaeguna abenduaren 7a izango da.

## Antzerkia

ESKORIATZA
**> Munduko ipuin kontaketa izango da, umeendako**
*Munduko ipuinak* delako kontaketa saioa izango da, Garabide elkartearen eta Eskoriatzako Udalaren esku-tik. Umeendako da.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 18:00etan.

BERGARA
**> Antzezlanak egingo dituzte Zabalotegi aretoan**
Bihar, zapatua, Ane Monna, Oskola eta Karramarroi taldeak *Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino* delako umeendako antzezlana egingo du. Sarrera 3 euro da.
Hurrengo emanaldia eguenean, hilak 6, izango da: Ixabel Millet-ek *Printze txikia* delako ipuin kontaketa egingo du, helduendako.
Umeendako antzezlana, bihar, zapatua, 18:00etan; ipuin kontaketa, eguenean, hilak 6, 19:00etan.

ARRASATE
**> Sexismoaren aurkako ipuinak kontatuko dituzte**
Sexismoaren eta emakume-enganako biolentziaren aurkako ipuinak kontatuko ditu Kontu Kantoi taldeko Beatriz Egizabalek gaur, egubakoitza. Euskaraz izango da. Emakume Txokoak antola-tu du emanaldia.
Gaur, egubakoitza, Irati tabernan, 22:00etan.

OÑATI
**> Teknika berri batekin kontatu-ko dituzte ipuinak**
Kamishibai ipuin saioa antolatu du Oñatiko liburute-giak datorren egubakoitzerako, hilak 7. Debagoienean lehenen-go aldiz erabiliko da teknika japoniar hori.
Gonbidapenak banatzen dabiltza haur liburutegian. 7-10 urte artekoendako da, eta 30 umerendako lekua dago.
Ipuin kontaketa saioa, azaroaren 7an, egubakoitza, haur liburutegian, 18:00etan.

BERGARA
**> AHTren inguruko parodia antzezlana egingo dute**
Iruñeko Txiflando Impro-ducciones antzerki taldeak *S.O.S.temible, el silenciador* delako antzezlana egingo du, AHTren gainekoa. Aurretik, trenaren inguruko 20 bat minutuko DVDa emango dute.
Etzi, domeka, gaztetxean (kartzela zaharrean), 19:30ean.

BERGARA
**> Helduendako eta umeendako ipuin kontaketak liburutegian**
*Irakurri* kanpainaren barruan, helduei zuzendutako ipuin kontaketa emanaldia izango da Udal Liburutegian. HHIko (EPA) ikasleek aukera paregabea izango dute kontake-ta horrekin disfrutatzeko.
Bestalde, gaur, egubakoitza, hasi eta abenduaren 12a arte, egubakoitzero, Leire Iruin kontalariak ipuinak kontatuko dizkie 4-6 urte arteko umeei.
Umeendako saioa, gaur, egubakoitza, 17:45-18:30; helduendakoa, azaroaren 3an, astelehena, liburutegiko erakusketa gelan, 15:30-17:00.

## Erakusketak

ARETXABALETA
**> Uraren inguruko erakusketa egongo da kultura etxean**
*Ura, bizi iturri* izenburuare-kin, erakusketa egongo da Arkupe kultura etxean azaro osoan. Astelehenean, hilak 3, irekiko dute.
11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

ANTZUOLA
**> Anelkarrek Senegalen duen proiektuaren gaineko kontuak**
Anelkar taldeak Senegalen, Djiembering-en duen garapen proiektuaren inguruko erakus-keta egongo da Olaran etxean. Hango eguneroko bizitza erakutsiko dute.
Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

## Lehiaketak

ESKORIATZA
**> Argazki lehiaketa egiteko aukera dute dute bihar gazteek**
Argazki lehiaketan parte hartzeko aukera dute 12-16 urte artekoek gaztelekuan. Bi ordu izango dituzte gai jakin batzuen gaineko argazkiak egin eta aukeratzeko. Txatxili-purdi elkarteak antolatu du.
Bihar, zapatua, gaztelekuan.

PROPOSAMENA

ESKORIATZA
### > Kultura arteko afalostea, hainbat indigenekin

Garabide elkartearen eskutik, Debagoienean dauden hego mundu osoko –Bolivia, Ekuador, Para-guai, Kolonbia...– indigene-kin afalostea egiteko aukera dago gaur, eguba-koitza. Euren herrialdeeta-ko egoera kulturalaren eta hizkuntzen berri emango dute. Tertulia girotzeko, kafea, menta, rona eta bestelakoak izango dira. Garabidek eta Eskoriatzako Udalak antolatzen dute.
Gaur, egubakoitza, Ibarraundi museoan, 22:30ean.



## Ospakizunak

BERGARA
**> Halloween gaua ospatuko dute irlandar tabernan**
Halloween gauko ospakizu-na egingo dute Galways irlandar tabernan. Opariak egongo dira.
Gaur, egubakoitza, San Martin plazako Galways tabernan.

## Musika

ELGETA
**> Danbaka lehiaketako bigarren kontzertua, gaur, barikua**
Danbaka musika lehiaketa-ko bigarren kontzertua izango da gaur, barikua, Espaloia antzokian. Honako taldeek joko dute: Ni neu (Eibar), Scam (Aretxabaleta), Lord Witch (Bergara) eta Adi Holden (Bergara).
Sarrerak salgai daude Goienako edozein egoitzatan, 943 25 05 05 zenbakira deituta edo Espaloia antzokian.
Gaur, barikua, Espaloia antzokian, 22:30ean.

ARRASATE
**> RIPeko Karlos eta 'Portu'-ren omenezko kontzertua**
RIP taldeko abeslari eta baxu-jole ziren Karlosi eta *Portu*-ri omenaldi kontzertua egingo diete bihar, zapatua, honako taldeek: Sala&Pascal, Material Rechazado, Never Surrender eta Carrocerías Betoño.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA
**> Disko-jartzaileen emanaldiak izango dira Ziripot tabernan**
Honako DJen emanaldiak izango dira Ziripoten: DJ Lalas (gaur, egubakoitza) eta DJ Mugu (bihar, zapatua).
Saiook 23:00etan hasiko dira.

BERGARA

**> Gamora, Repugnancia Social eta Hijas de la Hevasión taldeak**

Kontzertua antolatu dute biharko, zapatua, Gamora, Repugnancia Social eta Hijas de la Hevasión taldeekin.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 20:00etan.

ARRASATE

**> The Real McKenzies taldeak joko du gaur 3.60 aretoan**

Kanadako Vancouver hiriko The Real McKenzies punk taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, *10,000 Shots* delako diskoa aurkezteko. Taldekideak eskoziar jatorrikoak dira, eta kutsu horretako musika eta agerraldiak egiten dituzte.

Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

ARRASATE

**> Reggae jaia izango da bihar, zapatua, sei talderekin**

Chalwa Band, Poor House Rockers, Revolutionary Brothers, King Konsul, Yanu eta 2H's taldeek reggae jaia girotuko dute gau osoan.

Bihar, zapatua, 3.60 aretoan.

## Bestelakoak

ARETXABALETA

**> Munduan barrena tandemean ibili zirenen esperientziak**

*Tandemean Hego Ameriketan barrena* delako ikus-entzunezkoa egingo dute Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabe senar-emazteek. 45 minutuko emanaldia da, euskaraz eta gaztelaniaz.

Eguenean, hilak 6, kultura etxean, 19:30ean.

ARRASATE

**> II. Historia eta Zinema jardunaldietako film emanaldia**

Arizmendi ikastolak antolatutako Historia eta Zinema bigarren jardunaldietako hirugarren filma emango dute martitzenean: *Lauaxeta* (Jose Antonio Zorrilla, 1987). Gero, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Oscar Alvarez Gilak hitzaldia egingo du.

Azaroaren 4a, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.

OÑATI

**> Gaztetxearen inaugurazio hamabostaldiko ekintzak**

Gaztetxea inauguratzeko, honako ekintzak dituzte oraingo aste bukaeran: gaur, egubakoitza, bideo emanaldia (18:30), afaria (21:00) eta kantaldia (22:30); bihar, zapatua, gosaria (10:00), eztabaida (11:00), bazkaria (13:30), mahai-ingurua (15:15), Sospechosos eta Gargantas desgarradas taldeen kontzertua (18:00) eta afaria (21:00); eta etzi, domeka, gosaria (10:00); *Zer egin du OGAk gaizki?* delako eztabaida (11:00) eta bailarako gazte batzarretako kideekin mahai-ingurua (15:30).

Bazkariak eta afariak, 2 euro; gosariak, euro 1.

# Zinema



## Transsiberian **

**Zuzendariak:** Brad Anderson.
**Aktoreak:** Emily Mortimer, Eduardo Noriega, Ben Kingsley.
Alemania-Britainia Handia-Lituania-Espainia, 2008.
111 min. 18 urtetik gorakoendako.

*Transsiberian*-en hasierako izenburuen artean behin baino gehiagotan Tele 5 izena agertzeak beldur pixka bat ematen badu ere, Alemania, Britainia Handia, Lituania eta Espainiaren arteko koproduzio honek badu bere puntua. Ez da lan borobila, baina bai entretenimendurako balio duen film txukuna: lehenengo bi herenak nahiko ondo badaude ere, agian bukaera ez dago hain ondo burututa. Brad Anderson zuzendariak badaki istorioari tonu kezkagarria ematen. Trena filmeko pertsonaia bat gehiago da, eta trenek izaten duten alde estua eta daukaten mugimendua filmatzeko eran agertzen dira. Plano asko gertukoak eta itxiak dira, kamerak badu alde batera eta besterako mugimendua, eta osagai horiek ematen diote istorioari, irudien kolore motelak eta elurrak duen kolore zuriaren erabilerarekin batera, behar duen giroa.

Filma pertsonaia mehatxatzaile batzuekin zabaltzen da. Gero, trenean dauden beste pertsonaia batzuk agertuko dira. Itxuran, lehenengo pertsonaiek eta trenean doazenek ez dute zerikusirik, baina, lehenago edo geroago, denek topo egingo dute. Gainera, treneko pertsonaiek badute ukitu ezkutu bat, ez dute dena kontatzen eta normaltasun itxura horren azpian zerbait gehiago dago. Sortzen diren harreman horien irudikapenean daude fimaren momentu onenak. Emily Mortimerrek oso lan aipagarria egiten du, ondo azaltzen du pertsonaiaren segurtasunik eza. Zuzendariak, aktoreek, istorioaren alde ezkutuak... erakargarri bihurtzen dute *Transsiberian*, baina bukaera heltzen denean filma konbentzionalagoa da, eta momentu horretara arte erakutsitako pertsonalitatea zerbait galtzen da. Dena den, dignitatez eginiko ekoizpen entretenigarria da.

Antonio Zabala

**ARRASATE**
**AMAIA ANTZOKIA**

**Wanted (se busca)**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Viaje al centro de la Tierra**
Domeka: 17:00.

**ELGETA**
**ESPALOIA**

**Moby Dick**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Vicky Cristina Barcelona**
Egubakoitza: 22:30.
Asteburua: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Kung Fu panda**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Vicky Cristina Barcelona**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua-domeka: 17:00.

**Disaster movie**
Egub.: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua-domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**La boda de Rachel**
18:00, 20:15, 22:30.

**High School Musical 3**
Egub.: 18:00, 20:15, 22:30.
Asteburua: 16:25, 18:30, 20:35, 22:40.

**Camino**
Egubakoitza: 19:45, 22:30.
Asteburua: 18:45, 22:15.

**Transsiberian**
18:00, 20:15, 22:30.

**El reino prohibido**
Egubakoitza: 18:00.
Asteburua: 17:30.

**El nido vacío**
Egubakoitza: 20:15, 22:30.
Asteburua: 20:00, 22:30.

**Quemar después de leer**
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Asteburua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Sólo quiero caminar**
17:00, 19:45, 22:30.

**El cuerno de la abundancia**
17:00.

**El niño con el pijama de rayas**
17:00, 18:50, 20:40, 22:30.

**Los años desnudos**
19:45, 22:30.

**Los limoneros**
17:30.

**El abogado del terror**
19:15, 22:00.

**Retorno a Brideshead**
17:30, 20:00, 22:30.

**Los niños de Huang Shi**
17:30, 20:00, 22:30.

**Noches de tormenta**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO**
**CINEPLEX-GORBEIA**

**High School Musical 3**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Hermanos por pelotas**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Che, el argentino**
19:30, 22:00, 00:30.

**Sólo quiero caminar**
12:15, 16:45, 19:15, 21:45, 00:15.

**Noches de tormenta**
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Viaje al centro de la Tierra**
12:15, 16:10, 18:10.

**Transsiberian**
12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.

**Quemar después de leer**
12:15, 15:45, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**El cuerno de la abundancia**
12:15, 16:05.

**El niño con el pijama de rayas**
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**El gurú del buen rollo**
12:15, 16:30, 18:15.

**Max Payne**
18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

**La conspiración del pánico**
20:00, 22:10, 00:20.

**Camino**
16:15, 19:00, 21:45, 00:25.

**Wall-E**
12:15.

**Diario de una ninfómana**
20:10, 22:10, 00:10.

**El reino prohibido**
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**The women**
12:15, 16:10.

**Mamma mia!**
12:15, 16:25.

**El espíritu del bosque**
12:15, 16:35.

**Disaster movie**
12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

**Space chimps**
12:15, 16:00, 17:45.

**ÁBACO**
**BOULEVARD**

**El reino prohibido**
15:50, 18:05.

**High School Musical 3**
15:50, 17:00, 18:10, 19:30, 20:30, 22:00, 22:45.

**El niño con el pijama de rayas**
18:30, 20:25, 22:25.

**El gurú del buen rollo**
16:20, 18:20.

**Transsiberian**
20:20, 22:40, 01:00.

**Noches de tormenta**
16:05, 18:10, 20:15, 22:15.

**Max Payne**
20:30, 22:35, 00:45.

**Los niños de Huang Shi**
16:00, 18:10, 20:20, 22:40, 01:00.

**Diario de una ninfómana**
20:25, 22:30, 00:45.

**Disaster movie**
16:05, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

**La conspiración del pánico**
16:15.

**Reflejos**
16:00, 18:15.

**Quemar después de leer**
16:10, 18:15, 20:20, 22:20, 00:30.

**Hermanos por pelotas**
16:00, 18:05, 20:10, 22:20, 00:30.

**Sólo quiero caminar**
17:00, 19:40, 22:15, 01:00.



**Vicky Cristina Barcelona ******

Espainia-AEB, 2008.
Zuzendaria: Woody Allen.
Aktoreak: Javier Bardem, Penelope Cruz, Scarlett Johansson.
96 min. 13 urtetik gorakoendako.

Vicky zuhurra eta Cristina abenturazalea bi lagun estatubatuar gazte dira, eta Bartzelonara joaten dira oporretan. Han, margolari andrazale bat ezagutuko dute, eta baita haren emazte ohia ere. Esperientzia berriak bizi eta maitasunaren gainean ikasiko dute.

Woody Allen-ek zuzendutako *Vicky Cristina Barcelona* emango dute Oñatin.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Camino** ****
Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser. Aktoreak: Nerea Camacho, Carmen Elías.
Benetako gertakizun baten oinarritutako film horrek 11 urteko Camino neskatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago eta, era berean, maitemindu egiten da.

**Quemar después de leer** **
AEB, 2008. Zuzendariak: Joel eta Ethan Coen. Aktoreak: George Clooney, Frances McDormand, John Malkovich, Tilda Swinton .
96 min.
Cox agentea bota egin dute CIAtik. Gainera, emaztea tranpetan ari zatzaio. Hiriaren beste puntan, Lindak zirugia plastikoa egin nahi du, eta Chad lankideari kontatzen dio. Cox-ek gordetako informazio disko bat topatzen dute biek...

**Transsiberian** **
Espainia-Alemania-Erresuma Batua-Lituania, 2008.
Zuzendaria: Brad Anderson.
Aktoreak: Woody Harrelson, Emily Mortimer, Kate Mara, Eduardo Noriega.
111 min.
Transsiberian luxuzko trenean, bi bikotek elkar ezagutzen dute: Roy eta Jessiek, eta Carlos eta Abbyk. Halako baten, Roy desagertu egiten da. Haren emaztea konturatzen hasten da beste bikotea ez dela begi bistan ematen zuena.

**Disaster movie**
AEB, 2008. Zuzendariak: Jason Friedberg eta Aaaron Seltzer.
Aktoreak: Matt Lanter, Kim Kardashian, Vanessa Minillo.
90 min. 13 urtetik gorakoendako.
Hiria mehatxatzen duten konta ezineko katastrofeengatik ihesi dabiltzan gazte batzuen abenturak kontatzen ditu filmak. Tartean, hainbat film eta pertsonaia ezagunetaz barre egiten du: Indiana Jones, Iron Man, *Sexo en Nueva York*...

**Tropic thunder** ****
AEB-Alemania, 2008. Zuzendaria: Ben Stiller. Aktoreak: Ben Stiller, Jack Black, Robert Downey Jr.
107 min. 18 urtetik gorakoendako.
Aktore talde batek historiako film garestiena egin nahi du. Larregi gastatu dute, baina zuzendariak ez du filmaketa bertan behera utzi nahi...

**Los limoneros** ***
Alemania-Frantzia-Israel, 2008.
Zuzendaria: Fran Riklis. Aktoreak: Hiam Abbass, Ali Suliman.
106 min. 13 urtetik gorakoendako.
Salma alargun palestindarrak bizilagun berri bat du: Israelgo Defentsa ministroa.

**El gurú del buen rollo** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Mike Myers. Aktoreak: Mike Myers, Jessica Alba, Justin Timberlake.
88 min. 13 urtetik gorakoendako.
Pitka mutil estatubatuar arrunta zen, familiak tenplu hindu baten utzi zuen arte, han espiritualtasunaren bidea egin zezan. Baina, gaur egun, AEBetako publikoaren gustuetan bigarren dago, Deepak Chopra famatua ezin harrapatuta.

**nire aukera**



**Joxu Goenaga**
Uned, Informatika arduraduna
Bergara

## "Belaontzian joango nintzateke"

Asteburuetan deskantsatzeko astia hartzen dut. Eguraldi ona dagoenean hondartzara joaten naiz familiarekin, baina horretarako uda arte itxaron beharko dugu. Zapatu goizean lana dugu Uneden, baina arratsalde partean paseatzera joaten naiz emazte eta alaba gazteenarekin. Ez gara mendiraino igotzen, goiko *estaziño* aldean ibiltzen gara.

Aukeratzerik izango banu, belaontzian ibiltzera joango nintzateke asteburu batean. Ez dut ontzirik, baina ibili izan naiz lagunekin; Santanderrera joan ginen, eta asko gustatu zitzaidan.

**Zer moduz hasi duzue kurtsoa Uneden?**
Oso ondo. Ikasle kopurua mantendu egiten da, eta ez da gutxi; beraz, gustura.

**Ikastaro eta karrera eskaintza zabala duzue. Zein aukeratuko zenuke zuk?**
Bai, 25 karrera daude, eta ikastaroak: idazle eskola, psikomotrizitatekoak eta beste hainbat; beti dugu ikastaro berriren bat. Nik Historiako karrera aukeratuko nuke. Beti iruditu zait interesgarria historia, historiaurretik historia modernora.

**Eraikin edo egoitza berrira joango zarete aurki.**
2010erako Arrizurin egongo omen gara. Guretzako aurrerapausoa izango da. Orain, herri erdian gaudenez arazoak izaten ditugu, gehienbat azterketa garaian. Bergarako jaiekin batera ospatzen direnez, arazoak izaten ditugu zaratarekin eta sokamuturrarekin. Azterketa egitera etortzen diren ikasleak zezenarekin topatzen dira plazan.

**Ze zaletasun dituzu?**
Bizikleta, adibidez. Lehen, asko ibiltzen nintzen; orain, ziklismoa ikustea gustuko dut. Beste alde batetik, asko irakurri izan dut, baina azkenaldian ez dut denborarik. Egunkaria eta Interneteko artikuluak irakurtzen ditut.

**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-10-31

# Txokolatea, pertsonalizatuta

**MAIATZETIK HONA** Maiatzean hasi zen Anton Azpiazu txokolatea batzeko bilgarri pertsonalizatuekin lanean

**AUKERA ASKO** Txokolaterixan, tamaina ezberdinetako tabletak pertsonalizatzen dituzte, bezeroaren gustura

**IRUDIAK, ARGAZKIAK...** Bilgarriak pertsonalizatzeko logotipoak, argazkiak edo bestelakoak erabil daitezke

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Anton Azpiazu (Oñati, 1955) Klaxk Oñatiko txokolatezaleen elkarteko sortzailea da, eta, horrekin batera, Natra Zahorren egiten du lan. Hala, zaletasuna eta ogibidea bateratzen ditu Azpiazuk, eta azken hilabeteotan buru-belarri ibili da egitasmo berri bati forma ematen: txokolatea batzeko paper pertsonalizatuak egiten dituzte. "Lana baino gehiago zaletasuna da, gure asmoa txokolatea herritarrengana gerturatzea delako".

Hala, txokolatearen aitzakiaz Oñatiko altxorrak batu dituzte: eraikin esanguratsuen argazkiak, hainbat tradiziotako erretratuak –Corpusa...– edota Arantzazuko irudiak erabilita egin dituzte txokolate tabletak batzeko bilgarriak. Baina egitasmoa ez da hor amaitzen, txokolatea batzeko bilgarri pertsonalizatuak ere egiten dituzte-eta: "Opariak egiteko oso aproposak dira, eta enpresekin ere hasi gara lanean. Oraingoz, txokolate beltzarekin egiten dugu lan, baina inork txokolate zuria batzeko paper pertsonalizatua gurako balu, ez litzateke inongo arazorik egongo", adierazi du Azpiazuk. Egun, hiru bilgarri mota egiten dituzte, 100 gramoko txokolate tableta batzeko, 150 gramokoarendako eta 250 gramokoarendako: "Prezioei dagokienez, zenbat eta tableta gehiago eskatu, prezioa merkatu egiten da. Hala, gutxieneko kopurua 50 tabletakoa da, eta 100 gramoko tableta bakoitzak 1,10 euro balio du. Handiagoa nahi izanez gero, 250 gramokoak 2,60 euro balio du".



**KLAXK** Anton Azpiazu GOIENKARIAk egindako enkarguari haginkada emateko gertu; ederra zegoen txokolatea. LEIRE KORTABARRIA

**ARTISAU-LANA**

Azpiazuk azaldu du zelan egiten dituzten bilgarri pertsonalizatuak: "Erretratuak, bertsoak, enpresen logoak... edozerk balio du txokolate tableta norberaren gustura pertsonalizatzeko. Posta elektronikoz jasotzen ditugu irudi eta logoak (*anton.azpiazu@natra.es*), eta inpresioak kanpoko enpresa batek egiten dizkigu. Ondoren, bilgarri pertsonalizatuak hartu eta eskuz batzen ditugu txokolate tabletak".

## ahobero

### "Ituna hausteko edo Nafarroa hausteko aukeren artean, nahiago dut lehengoa"

**Miguel Sanz**
> Nafarroako presidentea

PPk hautsitzat eman du UPN alderdiarekin zeukan ituna, eta Raxoik PP foru erkidegoan ezartzeko agindua eman du. Miguel Sanzek, berriz, hauteskunde kanpainan erabilitako terminologia berarekin jarraitzen du: Nafarroa hautsi egin daitekeela...

## iturri onetik

### Ariznoa Gimnasia Elkarteak Almudena Cid gonbidatu gura du urteurren jaialdirako

Bergarako Ariznoa Gimnasia Elkarteak 25 urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko gimnasia erritmikoaren gaineko jaialdia egingo dute otsailaren 28an. Klubeko arduradunek badakite gimnasta gazteendako oso berezia izango litzatekeela Almudena Cid Bergarara ekartzea, eta horretan dihardute. Badakite, baita ere, hori lortzeko klubak esfortzu handia egin beharko duela.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Kutxa, BBK eta Patxi

Batzarrak deituta, aste gutxitan hartuko da erabakia. BBKrena lotuta dago eta baietz esango dio bategiteari, baina Kutxarena ezin da segurutzat jo batzarra egin arte. Aspaldikoa zen EAEo hiru kutxen bategiteko plana eta, luzamendu askoren bueltan, azkenean bikoa izango da, antza.

Seguruenik gutxitan gertatzen direlako, bategiteak estimatu egiten dira gurean. Hau ere baietz esango nuke, oro har, eta areago krisi zaratatsuaren erdian. Afrontuari hobe egiten diote aurre bi lagunek elkar hartuta bakarrak baino.

Eta lan gaitza hartu dute sozialistek kontra jarrita. Ezin benetako arrazoia eman –boto arabarra Patxi lehendakari izan dadin-, Vital egoera itsusian eta atzera egin beharra udaberrian. Ordain garestia, inondik ere.

## ai, ene!




### Latak eusteko gailua asmatu dute

Grissom-ek hatz markak garagardoaren latan aurki ez ditzan, edo lata bera eskuetan berotu ez dadin, horra asmakizuna.

www.nopuedocreer.com

